

Goienkaria

2010eko urtarrilaren 15a > Egubakoitza > X. urtea > 405. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM

"Azken urteotan oparotasunean bizi izan gara eta moteldu egin gara"

Andoni Gartzia
Garaia Berrikuntza
Guneko gerentea > 07



G2a

Raimundo Amador gaur
Arrasaten > 31

ARRASATE
Ospitalerako oinezkoendako bidea
egin nahi du Udalak > 12

BERGARA
Aniztasun Astea egingo dute
martitzenetik zapatara arte > 16

ARETXABAETA
Banda sortu du musika eskolak
hogei bat musikarirekin > 21

ANTZUOLA > AZPIEGITURAK

Aterpea eskolako jolaslekuari

Asteon onartu du Antzuolako udalbatzak eskolako patioa estaltzea > 25

ZERBITZUAK > IBILGAILUAK

Itxaron zerrenda IAT gunean

Irungo eta Urnietako grebak atzerapena eragin du Bergarako tailerlean > 06

INGURUMENA > LURRIKARA

"Haitin bizi den ahizpa ondo dago"

Maddi Garmendia arrasatearra Haitin bizi da, eta bete-betean jasan zuen eguazteneko lurrikara. Etxekoek ez dute harekin barbarik egin, baina badakite Maddi eta senarra ondo daudela. Bestalde, hainbat gobernu kanpoko erakunde hasi dira lanean Haitira laguntza bidaltzeko. > 06

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-06
Elkarrizketa > 07
Iritzia > 08
Gutunak > 10
Herriak > 11-27
Kirola > 28-30
Kultura > 32
Sailekuak > 34
Gazteak > 35
Telebista-Irratia > 36
Zerbitzuak > 36
Eskelak > 37
Non-zer > 38-39

JENDARTEA > GAZTEAK

Adin txikikoendako zentroa egongo da berriz Aramaion

EGOKITZEN Mendixola baserrian obrak egiten dabilta; bukatzean, delituren bat egin dutenendako gizarteratze zentroa izango da

JAURLARITZA Lehen, Foru Aldundiak zeraman zentroa; orain, Eusko Jaurlaritzak hartuko du bere gain

UDALA Eskatu du baserriko beste bide bat egin dezaten, eta itxitura-hesiak herrikoak modukoak; ez elektrifikatuak > 04



LANTALDEA Jacinta, Agustin, Juan, Beatriz eta Nuria fin-fin dabilta jabetxean lanean; beste hiru lankide eta bi arduradun dituzte.

LEIRE KORTABARRIA

Zabalik dago Gureak taldearen Garaia jabetxea

Berrikuntza guneko langile eta ikasleendako eta debagoiendar guztiondako zabalik dago, astelehena ezker, Gureak taldeak Garaia gunean ipini duen jabetxe eta kafetegia. Autozerbitzu

moduan funtzionatzen du eta lanean dihardute zortzi gutxituk, sukaldeko arduradunak eta sukaldeko laguntzaileak. Jabetxeak 160 lagunendako toki dauka. > 02-03

ZERBITZUAK > OSTALARITZA

Lehenengo astea pasata, pozik dabilta Garaia-ko jaketxe berrian

GUREAK TALDEA Kafetegi eta jaketxe zerbitzua ireki du Gureak taldeak Garaia gunean, eta hamar lagunek dihardute; horietatik zortzi, urritasunen bat dutenak

HASIERA Lehenengo egunean 30 bazkari eman zituzten, eta egunero ibili da jendea; arduradunek gogorarazten dute herritar guztiondako dela zerbitzua

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Hasierako urduritasuna baretuz doa pixkana-pixkana Garaia Berrikuntza Guneko jaketxe berrian. Astelehenean ireki zituen ateak, hamar langilek osatutako taldearekin, Garaia gunean lantokia dutenei zein joan gura duen edozeini zerbitzu emateko. Jaketxe horrek, gainera, badu berezitasun bat: Gureak taldeak darama, eta, talde horren filosofiari jarraituta, langileetatik zortzi gutxituak dira. Gureak taldeak aspalditik dihardu Debagoiengan, baina honakoa da ostalaritza arloko euren lehen esperientzia gure bailaran.

Garaia guneko jaketxe eta kafetegi asteleheneetik zapatu-egongo da zabalik, 07:30etik 20:00etara. 160 lagunendako lekua dauka. Goizean, gosariak, pintxoak eta kafetegi zerbitzua ematen dute; 13:00etatik 15:00etara, bazkariak zerbitzatzen dituzte. Autozerbitzu moduan funtzionatzen du jaketxeak, egunero hiruna bat lehenengo eta bigarren plater aukeran eskainita, denetariko jatekoekin. Ogi-tartekoak ere egiten dituzte. Edateko, ura eta ardoa daude aukeran; ardoari dagokionez, botila ipintzen dute eta norberak baso bat har dezake bazkarirako. Menuko plater bakoitzaren prezioa zehaztuta agertzen da, eta menu osoa 8,50 euro da; 10 edo 20 otordurako bonoak eros daitezke. Enkarguz afariak ere emango dituzte.

ESPERIENTZIADUN LANGILEAK

Lehenengo egunean, joan den astelehenean, 30 bat bazkari zerbitzatu zituzten, eta gainerako

Autozerbitzu moduan funtzionatzen du jaketxeak, eta menua 8,50 euro da; kafetegi ere bada

Gureak taldeak ostalaritza arloan bailaran zabaltzen duen lehen enpresa da Garaia-koa

egunetan ere jendeak jarraitu du hara joaten. Horrenbestez, langileak lan berriari neurria hartzen joan dira. Joseba Urtzelai da zerbitzu berriaren arduraduna, eta Jesus Kalboetxeaga bergararra da sukaldari-burua; haien ardurapean dabilta lanean beste zortzi debagoiendar: bost arrasatear, aretxabaletar bat eta bi bergarar.

Denak bazebiltzan lehen ere lanean; gehienak, Gureak taldeak Arrasateko Osinako poligonon duen lantegian, baina hura oso bestelako lana zen: batik bat, automobilgintzako eta, neurri txikiagoan, sarrailagintzako

Debagoieneko enpresendako egiten dute han lan. Batzuek askotariko lanak egin dituzte, Aratz kutxazainak dioskun moduan: "Administrazioan, Euskadiko Kutxan, Guposten, birjartzaile... egin dut lan. Nire laugarren edo bosgarren lan esperientzia da hau". Beste batzuek ostalaritzan jardun dute: "Eroskiko okindegian ibilitakoa naiz, eta beste jaketxe batzuetan ere banuen esperientzia", esaten digu Beatriz sukaldariak.

SUKALDEAN GUSTURA

Jesus Kalboetxeagaren esanetara, Beatrizez gain, Jacinta eta Nuria dabilta. Eurak arduratzen dira Jesusek esaten dien moduan jatekoak prestatzea: "Denarik egiten dugu: patatak zuritu, saltsak egin, jatekoak arrautza-irinetan pasatu... Gero, platerak zerbitzatu ere egiten ditugu, jendeak har ditzan, eta gastatzen diren neurrian gehiago ateratzen ditugu", azaltzen dute. Hasierako momentuetan, "pixka bat urduri" ibili zirela onartzen digute –"telebistakoak etorri ziren gainera", gogoratzen dute–, baina orain lasaiago duedela. Euren kasuan, sukaldean ibiltzea "asko gustatzen" zaie, eta lan berritik "dena" gustura egiten dutela esan digute; ez dute zailtasun berezirik topatu orain arte. Hala ere, prestatu egin behar izan dira lanean hasi aurretik: "Formazio ikastaro bat egin genuen, eta Donostian praktikak egin genituen gero. Elkarriketatatu egin gintuzten", azaltzen digute sukaldariok.

Sukaldean eurak dabilta, eta Agustinek dihardu garbiketa



Kafetegi zabalik dago 07:30etik 20:00etara.


lanak egiten. Arratsaldean, bi emakume gazte etortzen dira garbiketara lanak ere egitera; horiek osatzen dute lantaldea.

DENONDAKO ZABALIK

Langileok pozik daude orain arteko erantzunarekin: "Garaia-ko gustura daude, jaketxea

bertan daukatelako. Baina horiez gain, igeltseroak, Fagorrek langileak... etorri dira", dioskute.

Horren harira, Joseba Urtzelai arduradunak azpimarratzen du jaketxea ez dela bakarrik Garaia gunean dihardutenendako; guztiondako dago zabalik.



Langileak Gureakeko tailer baten.

GOIENKARIA

Gureak eta Katealegia, 200 bat langile

Debagoiengan bi tailer dauzka Gureak taldeak. Handiena da Arrasate-koa, Osinan. 100 laguni ematen die lan. Tailer horren lanaren %90 automobilgintza enpresetara zuzenduta dago, eta %10, sarrailagintza enpresetara. Bergarako lantegia Labegarietan dago eta 80 lagunek dihardute. Automobilgintzan dihardute haiek ere. Langile gehienak gutxitasun intelektualak dituzte, baina badira gizarte-bazterketarako arriskua duten pertsonak ere.

Gutxituei lana eta laguntza ematen dien Katealegia enpresako tailerrak ere badaude bailaran: Aretxabaletan, Bergaran eta Oñatin. Denetara, 93 lagun dabilta horietan, eta haiek ere bailarako industrietarako egiten dute lan.



Langile batzuk, jatetxe aurrean.

LEIRE KORTABARRIA

Garaia guneko eraikin nagusiaren atzealdean dago, aparkalekuaren ostean. Urtzelaik hau azaltzen digu: "Hainbatek uste dute, aparkalekuak barrerak dituzenez, nahiz eta barrerok normalean jasota egon, pribatua dela; baina ez, edozein sar daiteke, eta jatetxea denondako da".

Orain arteko ibilbide laburraz, balorazio ona egiten du Urtzelaik: "Ondo gabiltza; lanpetu samar, baina ondo. Hasieran, jendaurrean lan egiteak ematen duen errespetua geneukan". Errespetu edo beldur horren gainean, Aratzek hauxe esaten du: "Nik praktikak egin nituen

Donostian, unibertsitatean; jende asko joaten zen eta, azkenean, errespetua ematen zuen; baina, jendea ezagutu ahala, errespetu hori gaudituz egiten da". Berari lagundu egin dio kutzazain gisa zeukan esperientziak, eta baikor azaldu da: "Denborarekin, gero eta hobeto egiten joango gara".

Hortik dator Gureak taldearen beste helburu bat: bere kide diren langileei prestakuntza ematea eta lan desberdinak egiteko gaitzen laguntzea: "Bakoitzak duen gutxitasun motaren arabera, lan bat edo bestea egiten dute; baina helburua da denok denetarik egiten ikas dezaten, hala, egun baten norbait ez badago, haren lanpostua betetzeko gai izan daitezen", esaten du Joseba Urtzelaik.

50 LANGILE

Ostalaritza da Gureak taldearen sail bat. Debagoienean hasiberria den arren, Gipuzkoan esperientzia handia dauka, eta arrakasta ere. Jatetxe, catering eta kafetegi zerbitzua ematen ditu, eta enpresa eta erakundearen eskarien arabera ere lan egiten du. Beste bi gune dituzte Gipuzkoan: Errenterian bat, eta Euskal Herriko Unibertsitateko kanpuseko kafetegia, bestea. Horrez gain, eskatzen duen guztiari catering zerbitzua ere ematen diote. 50 lagun lana ematen dio.

Debagoienean taldeak hasten duen hirugarren ildo da; ibarrean, batik bat, industriarako egiten du lan, eta Gupost marketing zerbitzuaren ordezkari bat Arrasaten. Oñatin, Belatxara gasolindegian Guregas taldeko langileek dihardute.

Jesus Kalboetxeaga > Sukaldari-burua

"Jateko garbiak eta etxean egindako postreak eskainiko ditugu"

L.K. > ARRASATE

Jesus Kalboetxeaga sukaldari bergararrak erabakitzen eta prestatzen ditu egunero Garaia jatetxean ematen dituzten platerak. Koipe gutxiko platerak, osasungarriak egingo ditu, bere estiloari jarraituz.

Zer moduz hasiera?

Lehenengo egunak zalapartatsuak dira beti: aurreikuspen batzuk egiten ditu norberak, eta horren arabera kanonizatu prestatu, eta ezin da jakin zenbat jende etorriko den. Aurreikuspenak onak dira: enpresak daude inguruan, Mondragon Unibertsitatea...

Ze iruditzen zaizu gutxitasunak dituzten langileekin jardutea?

Interesgarria da; euren berezitasunak kontuan izan behar dira, daukaten esperientzia falta... baina lanari neurria hartzen diotenean oso ondo moldatzen dira. Azken baten, beste edozein langilerekin jardutea bezala da: denetarik dago.



L.K.

Zelan egingo duzu lan?

Autozerbitzua izateak mugatu egiten du sukaldaria: janariak kanpoan egon behar du, gertatuta, eta zenbait plater ezin dira egin; adibidez, sikatu egin daitekeen janaria ezin daiteke prestatu. Nik betidanik egin izan ditut jateko garbiak, koipe gutxiokoa, eta etxean egindako postreak, eta horretan jarraituko dut; hona datozen enpresek ere horixe eskatu digute.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

URTARRILEKO ZOSKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



EUSKARAZKO JOSTAILUAK

Umeentzako
euskarazko jostailuak



UMEENTZAKO LIBURUAK

Pamiela etxearen
umeentzako liburuak



SASKIBALOIARAKO SARRERAK

Lagun Aro - Murcia
partidurako sarrerak.



GOIENAKO PENDRIVE-A

Gigabyte bateko
pendrive bat.



SARI NAGUSIA URTARRILA-MARTXOA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

JOCCA RACLETTE



- Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
- Ez du oliorik behar.

JENDARTEA > GAZTEAK

Adin txikikoendako zentroa izango da berriz Mendixola

Aramaioko Mendixola baserrian obrak egiten dihardute egunotan

Arau-hausteren bat egin duten gazteak eramango dituzte, Jaurlearitzaren ardurapean; lehen, Aldundiarena zen



Itxura hau du Aramaioko Mendixola baserriak egunotan.

JULEN IRIONDO

JULEN IRIONDO/LEIRE KORTABARRIA
> ARAMAIO

Aramaioko Mendixola baserrian lanak egiten ari dira egunotan, eta amaitzen dituztenean adin txikikoendako zentroa izango da berriz ere.

Delitu edo arau-hausteren bat egin duten gazteak eramango dituzte bertara, eta honen aurrean eskaera bi egin ditu Aramaioko Udalak: zentrorra iristeko beste bide bat egokitu dezatela, eta jarriko dituzten itxiturak herriko beste gune batzuetakoak modukoak izan daitezela.

BESTE BIDE BAT EGITEA

Baserrria Ibarren bertan dago kokatuta, Eguzkierripa auzoan, erdigunetik gertu. Eusko Jaurlearitzaren Justizia sailak Aramaioko Udalarari obrak egiteko baimena eskatu zionean, Udalak bertara iristeko beste bide bat egin zezatela jarri zuen baldintza modura. Jaurlearitzak onartu egin zuen eskaria, eta Andramaritik doan bidea egokituko dute. Izan ere, ohiko bidea herriko plazatik eta hainbat etxe eta baserriren aurretik igarotzen da, eta Udalak ez du nahi han-

ESANAK

"Lehen, zentroan zeuden gazteak askatasun handiagoa zuten; eredu hura aproposagoa zen"

Asier Agirre > Aramaioko alkatea

dik polizien furgoiak-eta joan-
etorrian ibiltzea.

Beste baldintza bat ere jarri zuen Udalak, baserrria inguratuko duen itxituraren gainekoa, Jaurlearitzak jartzeko asmoa zena ez zuelako egoki ikusten. Azkenean, herrian dauden beste batzuen antzerakoak jarriko dituzte.

HERRIAN PARTE HARTZEN ZUTEN

Azken urteetan Eusko Jaurlearitzaren esku dago Mendixola baserrria. Aurretik Foru Aldundiak izan zuen beregain; orduan ere adin txikikoen zentroa zen, baina gazteak beste baldintza batzuetan zeuden, zaintzapean baina mugitzeko askatasun handiagorekin. Herriko ekintze-

tan eta bizimoduan parte hartzen ei zuten, ihes egin edo bestelako gaiztakeriaren bat egiten omen zuten tarteka, baina egungoa baino eredu aproposagoa zen, dena den, Asier Agirre alkatearen ustez.

ELGETAKOIA BUKATUTA DAGO

Bestalde, Elgetako Aixola baserrian ipini duten adin txikiko atzeritarrendako zentroa bukatuta dago. Ugartzi enpresak egokitu du zentroa, eta Foru Aldundiaren ardurapean egongo da.

Atzeritik etorritako 15 bat adin txikiko hartzeko lekua izango du, eta zelanbaiteko mendekotasun edo arazoak dituzten etorkin gaztetxoak eramango dituzte hara.

Foru Aldundiaren esanetan, zentro horren helburua da adin txikikoak artatzea eta haiek birgizarteratzerako ahaleginak egitea. Hala, gerora homologatuak izan daitezkeen formazio tailerak emango dituzte: hala nola baratzean ibiltzea, igeltsaritza eta beste batzuk emango dituzte.

Bost metroko hesia, elektrifikatua

Aramaioko Udala oso kritikoa izan da hasiera baten Eusko Jaurlearitzak Mendixolako zentro eraberriturako ipini nahi zituen baldintzekin: "Kartzela baten moduko itxitura egin nahi zuten: bost metroko altuerako hesiak, burdinazko posteak eta elektrifikatuta", esan du Asier Agirre alkatea. Udal araudietan hori egiteko aukerarik aurreikusten ez zela eta, are gehiago, Udalak "inondik inora ez" zuela hori ondo ikusten esan du alkatea. Horregatik, itxitura herrian dauden estilokoa izatea eskatu zuten.

Agirrek esan du "azkenean, espetsuan" bezala egongo direla gazteak. "Aldundiaren zentroa zenean, beste sintonia bat zegoen eta askoz gusturago geunden".

Asmoaren berri izan zutenean, Elgetako Udalak eskatu zuen Foru Aldundiak azal ziezaion zentrotako zentroa izango den eta zelan lan egingo duten han; horri erantzuteko, Aldundiaren ordezkari bat egon zen Elgetan informazioa emateko.

Gerora, Batzar Nagusietan alderdietako ordezkariak gauza bera eskatu zuten, eta abenduaren 17an zentroa bisitatu zuten. Hango arduradunek azaldu zieten berau laster jarriko dutela abian.

OBRAK > INGURUMENA

Bidegorriaren obra gehiago adjudikatu ditu Aldundiak

Soraluze-Mekolalde eta Bergara-Antzuola izeneko tramuen lanak aurki hasiko dira

L.K. > BERGARA

Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko departamentuko Ingarumen zuzendaritza nagusiak esleitu ditu Bergarako bidegorriaren tramu batzuk, Udaleko Obra eta Hirigintza batzordeak jakinarazitakoaren arabera.

Hala, Soraluze-Mekolalde bidegorriaren zatia egokitzeko proiektuko lanak Campezo Construcción SA enpresari esleitu

dizkio behin betiko, eta 876.899,96 euro (BEZ barne) da lanon aurrekontua.

Bestetik, Bergara-Antzuola izeneko txirrindulari eta oinezkoendako bidearen zatia egiteko lanen 1. eta 2. faseak Antzuola Aldi Bateko Enpresa Batasunari ematea adostu du Aldundiak. Lan horien aurrekontua da 794.972,53 euro (BEZ barne).

Gizarte
laguntzarako
Prestakuntza

PSIKIATRIA LAGUNTZAILE IKASTAROA 1go promozioa

kutxaZABAL
ZENTROAK DEIA

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA

Bergarako UNED.
Gizarte Laguntzan Trebatzeko Eskola
San Martin Agirre plaza 4 20570 Bergara
Tel.: 943 76 90 33 • Faxa: 943 76 27 21
Matrikula internet bidez egiteko:
www.uned.es/ca-bergara

Idazkaritzako ordutegia:

Asteartetik ostiralera:
10:30-13:00 eta 17:00-20:00
Zapatuetan: 09:00-13:00

KutxaZabal
Debaren arduraduna
Cristina Soriano
csoriano@bergara.uned.es

EZAUGARRI OROKORRAK

Modalitateak: Aurrez aurrekoa eta konbinatua
Iraupena: 300 ordu (2010eko otsailetik ekainera arte)

Hizkuntza: Gaztelania

Ikastaroaren hasiera: 2010eko otsailak 17.

MODALITATEAK

AURREZ AURREKO MODALITATEA

Klase-eguna: asteartea, asteazkena eta osteguna.

Klase-ordutegia: 17:00-21:00

Prezioa: 250 €

MODALITATE KONBINATUA

Prezioa: 300 €

Matrikula epea: otsailaren 10era arte

UNED BERGARA

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

Oihane Agirre > Goiena Telebistako programazio zuzendaria

"Helburua da, datorren astean GOITB digitalean emititzen astea Murutik"

A. BARRUSO/M. BIKUÑA > ARRASATE
Hilaren 30ean egingo dute behin betiko itzalaldi analogikoa Gipuzkoan. Dagoeneko, baina, Antzuolan eta Aramaion itzali dute seinale analogikoa. Itzalaldi analogikoak dakartzan aldaketak eta Goiena Telebista digitalean non eta zela ikus ahaliko dugun azaltzeko, Goiena Telebistako programazio zuzendaria Oihane Agirrekin egin dugu berba.

Behin betiko itzalaldi analogikoa hilaren 30ean egingo dute. Ze aldaketa ekarriko ditu horrek?

Oinarrian, aldaketa teknologikoa da. Hau da, telebistan jasoko dugun seinalea digitala izango da aurrerantzean, Lurreko Telebista Digitala (LTD) deritzona, hain zuzen ere. Seinalea, orain arte bezala, airez jasoko dugu, ohiko telebista errepikagailuetatik helduko da gure etxeko antenara, baina irudien eta soinuaren kalitatea hobekiago izango dira. Telebista digitalekin kate gehiago ikusiko ditugu.

Gainera, zerbitzuetarako bide berri bat zabaltzen da LTDarekin; horren adibide dugu gaur egungo programazio gida. Interaktibitateko bidea ere zabalduko digu. Esan behar da, Euskalteletik ikusten dutenek berdin jarraituko dutela ikusten GOITB.

Nola prestatu behar dugu etxeko telebista seinale digitala hartzeko?

Etxean dugun telebista-hargailuak ez du seinale digitala ulertzen. Beraz hainbat aldaketa egin beharko ditugu: batetik, gure antena individuala edo kolektiboa egokitu egin beharko dugu eta bestetik, LTDa jaso dezakeen telebista izan beharko dugu etxean eta hala ez bada deskodetzailea.

Goiena Telebista noiz ikusiko dugu seinale digitalekin?

Asmoa da, datorren astean abiatzea seinale digitalaren hedapena. Abiapuntua Muru izango da; honek esan gura du, Leintz bailarako herriak izango direla GOITB digitalean jasotzen lehenak. Ondoren, seinalea Belarrea eta San Migelera eramango dugu, Oñatin eta Bergaran digitalean ikusteko ibarreko telebista. Geroago, Antzuolara, Elgetara eta Aramaiora heltzea izango litzateke asmoa. Baina, Debagoieneko seinalea digitala hedatu arte, ez dugu Goiena Telebistako seinale analogikoa itzaliko. Apirilera arte.

Urtarrilaren 10ean itzali zuten seinale analogikoa Antzuola eta Aramaion. Hortaz, han nola ikusiko dute GOITB?



Oihane Agirre, Goiena Telebistako platoon.

ARRITXU BARRUSO

"Lurreko Telebista Digitalarekin irudiek eta soinuek kalitate hobea izango dute"

"Datorren astean Goiena Telebistako estudioetatik seinale digitala bidaliko dugu Murura"

"Gure konpromisoa da GOITB ikusteko seinale digitala herrigune guztietara helaraztea"

Orain arte bezala, modu analogikoan. Goiena Telebista digitalean abiatu arte seinale analogikoarekin ikusi ahaliko dute. Badakigu eragozpenak sortuko ditugula etxe askotan bi aginte mando erabili beharko dituzte, eta, seinale analogikoa edo digitala aukeratzeko.

Seinale digitalekin GOITB ikusi ahaliko dute baserri eta auzo guztietan?

Hori da gure asmoa. Dena den, gure konpromisoa da seinalea herrigunera helaraztea. Guk ekipo guztiak egokitu beharko ditugu GOITB digitalean emititzeko, eta horrek esfortzu ekonomiko handia suposatuko digu. Baserri eta auzo guztietara hel-

tzeko, Administrazioaren laguntza beharko dugu.

Zergatik zarete toki telebistak, azkenak digitalizatzen?

Goiena Telebistak 2007an lortu zuen digitalean emititzeko lizentzia. Baina lizentzia lortu eta gero, Eusko Jaurlaritzarekin kontratua sinatu behar genuen, eta sinaketa orain dela hiru hilabete egin dugu.

Non ikusiko dugu GOITB seinale digitalekin?

52. kanalean egongo gara. Aparailu batzuek, bakarrik sintonizatuko gaituzte; beste batzuek, aldiz, aginte mandoarekin egin beharko dute bilaketa. Eta gerta daiteke, bereziki antena kolektiboetan, egokitzapen bat egin beharra izatea.

Baina gure ikus-entzule askok, kable edo satelite bidez ere jasotzen dute telebista digitala. Euskateleko kable bidez telebista ikusten dutenengan eraginik izango du honek?

Euskalteleko bezeroek ez dute aldaketarik egin beharko. Kasu honetan telebista ez dugu antena bidez jasotzen, kablez baizik. Beraz, Goiena Telebista berdin berdin jasoko dute, inongo aldaketarik egin gabe. Eskaintzen dituen pakete guztietan ikusi ahaliko da Goiena Telebista, gure ibarrean 11. kanalean eta Debagoienetik kanpo 933. kanalean.

etxeko leihotik



Eneko Azkarate > 'eazkarate@goiena.com'

Agintari, politikari eta hedabideak auzitan

Epaileek artxibatu egin dute Ibarretxe eta Lopezen aurkako auzia, Batasunarekin batzea ez delakoan delitu. Euskal Herrian jende gehienak uste zuena baieztatu dute epaileek. Kopla, berba eta antzezpen askoren ostean, halere. Gehiengo gara Euskal Herrian uste dugunok obligazioa dela eta ez delitu, talde armatu baten su eten sasoiari, agintari eta politikariak batzea armadun horien gertukoekin, soluzioak topatzeko eta bakea behin betikoz lortzeko. Horren kontra daudela publikoki esaten dutenak ere bai. Espainian beste kontu bat da eta, hala, Foro de Ermua eta Dignidad y Justicia auzitan jarri dituzte lehengo eta oraingo lehendakariak. Argudiatu dute urrunegi joan direla. Absurdoaren absurdoa: mahai baten bueltan akordio-tara heltzeko batzea, delitu!

Justizia egin da Ibarretxe auzia artxibatzearekin, baina orain nahiko nuke Egunkaria-rena, hau ere bidegabea, behin betikoz bertan behera geratzea eta akusatuei eta Egunkaria-ko guztiei erreparatzea eragindako kaltea. Zail ikusten dut. Gaitz erdi libre lagatzen badituzte. "Egunkaria-k zer kalte egin die AVT eta Dignidad y Justicia-ri?", irakurri diot Iñaki Uria auzipetuari Argia-n. Izan ere, ultraeskuindar elkarte batzuek akusatuta epaitzen dihardute Madrilen bost euskaltzale. Ez diot galderari erantzunik aurkitu. Zuk?

> Elurra izan dugu hizpide astean. Pozak eta estutasunak sorrarazi ditu. Zein zail egiten zaigun egoera ezohikoetan eraginkorrek izatea. Seguru udal guztiak saiatu direla kaleak garbitzen, batzuek asmatu eta beste batzuek huts egin arren.

> Lurrikarak milaka eta milaka hildako eragin ditu Haitin. Munduko txiroenek hamaikagarren hondamendia pairatu dute. Tamalez, laster ahaztu egingo gara hango egoeraz, hango sufrimenduaz. Eta gu, elurrarengatik ardurduta...

ZERBITZUAK > TELEFONO GIDA

Asteon hasi dira banatzen Goienako gida komertzialak

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Goiena Komunikazio Taldea merkataritza gidak banatzen hasi da astean; hain zuzen ere, Bergarako, Elgetako eta Antzuolako datuak biltzen dituen gida; eta Oñatiko datuak dituen. Bergara 10 gidako 6.600 ale banatuko dituzte; eta Oñati 10 gidako, 3.300. Bestalde, Arrasate 10 gidako 10.400 aleak urtarril bukaeran banatuko dituzte Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Leintz Gatzagan eta Aramaion. Egubakoitze-ko GOIENKARIAren harpidetunak eta bertan publikitate




Aurtengo hiru giden azalak.

egin dutenek jasoko dute gida. Bestalde, hiru gidak Internet bidez kontsulta daitezke; hain zuzen ere, www.goiena.net/gida helbidean.



Larraitz Garai aretxabaletarra, Inaxio Garro alkatearekin.



Oier Aiestui oñatiarra.



Oier Nafarrate otxandioarra.

ARGAZKIAK: MARI CARMEN ARRIETA

Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik 350 euroko lau sari banatu dituzte Debagoieneko lau udalek

Debagoieneko Mankomunitateak gidabaimena euskaraz ateratzeko materiala kaleratu zuen iaz, eta material hori erabili dutenen artean 350na euro zozketatu dituzte Eskoriatzako, Aretxabaletako, Arrasateko eta Oñatiko udalek. Hain zuzen ere, Oier Nafarrate otxandioarra, Larraitz

Garai aretxabaletarrak, Peru Arana arrasatearrak eta Oier Aiestui oñatiarrak jaso dute 350 euroko sari bana (gutxi gorabehera, azterketa teorikoaren prezioa). Saria jaso duten lau gazteetatik hiruk lehenengoan gainditu zuten azterketa. Irabazleek diote azterketa euskaraz egitea ez dela zailagoa.

Mankomunitateak kaleratutako materiala erabiltzeaz gain, teorikoa gaintzeko test guztiak ordenagailu bidez egiteko aukera dute gidabaimena atera gura dutenek. Era berean, irudiak eta informazioa ordenagailu bidez lantzeko bidea dute.

HONDAMENDIA > LURRIKARA

"Haitin bizi den ahizpa ondo dago, baina sustoa itzela izan da"

Marga Garmendia arrasatearraren ahizpak Port-au-Prince hiriburuan egiten du lan

U.MADERA/M.BIKUÑA > ARRASATE
Richter eskalan 7 gradu izan zuen lurrikarak Haitiko hiriburu Port-au-Prince suntsitu zuen eguaztean. Milaka lagun hil dira. Albiste mundu osora zabaldu zen, eta baita Debagoienara ere. Maddi Garmendia aretxabaletarra Haitin bizi da senarrarekin. Ondo daude biak. Erredakzioa itxeko orduan (eguen egardia) etxekoek ez zuten eurekin berba egiteko aukerarik izan, baina onik daudela esan zigun Maddiren ahizpa Marga Garmendiak: "Ioba Mikel Tolosan [Frantzia] dago ikasten, eta lagunei bidalitako mezuen bidez jakin du gurasoak ondo daudela. Auzokide batek esan dio".

Garmendiaren senitartekoak hartu-emanetan jarri dira Kanpo Arazoetarako Ministerioarekin. "Ahizparen datuak eman

dizkiegu, eta haren berririk dutenean abisua jasoko dugu. Era berean, hango egoerari buruz dakiguna kontatu diegu eurei. Esan digute Espainiako Gobernuaren laguntza heldu dela dagoeneko Haitira", esan zigun Marga Garmendiak.

Lasaiago daude, baina ahizparekin berba egin arte erabat lasaituko ez zirela esan ziguten: "Badakigu ondo daudela, baina ez dakigu nola dauden euren lagunak, lankideak... Susto galanta izan da guztiondako".

Maddi Garmendia azken 20 urteotan bizi da Haitiko Petionvil herrian, eta Port-au-Princeko lizeoan egiten du lan.

"POBREAGOA"

Ameriketako herrialderik pobreena da Haiti, eta mundu mailako zerrendan hirugarren pobre-

ena da. Lurrikararen ondorioak itzelak izango direla esan digu Haiti ondo ezagutzen duen Angel Ipiña apaiz arrasatearrak: "Haitiko bizilagunen %67 pobreak dira, eta orain ezer barik geratu dira. Lurrikararekin asko hil dira, baina gosez ere beste asko hilko dira".

Mundu osotik helduko den laguntzak ezertarako balioko duen galdetu genion: "Balioko du eta ezinbestekoa da, baina urte asko beharko ditugu laguntza horren ondorioak ikusteko". Ipiñak gogorarazi zigun iaz Haitin urakanak eta izurriteek kaltetu asko eragin zituztela.

LAGUNTZA BIDALTZEKO

Haitiko kaltetuei laguntzeko hainbat gobernu kanpoko erakunde lanean hasi dira dagoeneko. Informazio gehiago gura duenak www.ongdeuskadi.org/eu helbidean begira dezake. Hainbat banketxe eta aurrezki kutxatan ere kontu korranteak zabaldu dituzte ekarpenak egiteko.

tik hango justiziak aztertu egin beharko dituela atxilotze aginduak. Gartzia eta Yañez defentsek arrazoi politikoak argudiatuko dituzte Espainiara ez ditzaten. "Tratu txarren" arriskua dagoela diote.

KONTROLETIK IHESI

Garikoitz Gartzia zapatuan atxilotu zuten Portugalen, Guardia Zibilaren kontrol batetik ihes egin ondoren. Atxilotetaren harira, domekan etxe bat miatu zuten Aretxabaletan.

POLITIKA > ATXILOKETAK

Salatu dute Garikoitz Gartzia tratu txarrak jasan dituela

M.B. > ARETXABALETA

Zapatu gauean Portugalen atxilotu zuten ustezko etakide Garikoitz Gartzia aretxabaletarrak Portugalgo poliziaren eskuetan tratu txarrak jasan dituela salatu du Jose Galamba abokatuak. Gainera, Grande Marlaska Espai-

niako Auzitegi Nazionalako epaileak Garikoitz Gartzia eta Iratxe Yañez estraditatzeko eskatu du. Prozesua azkartzeko, haiek atxilotzeko euroagindua ematea hobetsi du. Dena den, Portugalgo Justizia ministroak esan du estradizio eskaera onartu aurre-



Bergarako IAT guneko irteera.

GOIENKARIA

ZERBITZUAK > AUTOEN AZTERKETAK

Grebarengatik hamar eguneko itxaron-zerrenda Bergarako IAT gunean

Irungo eta Urnietako IAT gunetako langileak greban daude, eta auto azterketak pilatu egin dira Debagoienean

M.B. > BERGARA

Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) egiten duten Irungo eta Urnietako gunetako langileak greban daude, eta horrek eragin zuzena izan du Bergarako gunean. Debagoienetik kanpoko gidari askok txanda eskatu dute Bergarako gunean, isunen beldur; izan ere, Bergarako da Gipuzkoan zabalik dagoen gune bakarra. Azterketak egiteko eskarria handitu egin denez, itxaron-

zerrenda luzatu egin da. Hori horrela, asteon hitzordua hartu dutenei hilaren 21erako eman diete txanda. Normalean, egun batetik bestera ematen dute txanda, baina orain, eskatu eta hamar bat egunera ematen dituzte.

Begarako IAT gunean ez dute grebarik egin, beste enpresa batek kudeatzen duelako -Irun eta Urnietakoa TÜV Rheinland Group taldeak kudeatzen du.

LAN BALDINTZAK PAREKATU

Irungo eta Urnietako langileek behargin guztien lan baldintzak parekatzeko eskatu diote zuzendaritzari, baina alde biak ez dira adostasunera heldu, oraingoz. Hilabete da lanuzteak hasi zituztela eta egoera horrek 20.000 gidariri eragin die dagoeneko.

Andoni Gartzia Garaiaiko zuzendari-gerenteak dio berritzeko, "isiltasun eta lasaitasun handia" behar direla, "zarata gutxi". Eta ekimena. "Konbentzituta egon behar da norbera berritu nahiaz". 10 urte betetzera doazenean, Garaiak helburuak betetzen diharduela dio. 400 pertsonatik gora dabilta Garaian lanean, "duela sei urte inor ez zegoen tokian". Eta 20 enpresa.

Andoni Gartzia > Garaia Berrikuntza Guneko zuzendari-gerentea

"Azken urteotan oparotasunean bizi izan gara eta moteldu egin gara"

ENEO AZKARATE > ARRASATE

Andoni Gartzia buru-belarri dihardu azken 9 urteetan Garaia Berrikuntza Gunea garatzeko lanean. Aurretik, Mekalki kooperatiba sortu zuen Oñatin, beste lagun batzuekin batera. Berrikuntza da haren pasioa, eta berrikuntzaz eta Garaiaz jardun dugu harekin.

Zer da berrikuntza?

Berrikuntzaren definizio bakarra ez dago. Bestalde, enpresen mundura mugatuta dago, edozein motatako enpresetara, baita erakunde publikoetara ere. Eta, bestalde, merkatura, bezeroari begira dagoen kontzeptu bat da. Hortaz, prozesu konplexua da, baina sinplea ere bai. Beste enpresa batzuek egiten ez dutena eta egitea pentsatzen ez dutena egitea ere izango litzateke berrikuntza. Eta produktu berriarekin iristea merkatura. Berrikuntza pertsonak egiten dute, baina enpresa barruan egiten da. Berrikuntzak sormenaren iturritik edaten du eta sormena pertsonak daukate.

Zer behar da berritzailea izateko?

Isiltasun eta lasaitasun handia, zarata gutxi. Eta ekimena. Konbentzituta egon behar da norbera berritu nahiaz. Pertsonok badaukagu sormena, talentua, baina hori landu egin behar da eta jarrera ekintzailea izan behar da.

Debagoienean berritzaileak gara?

Onak gara garapen teknologikoan. Azken hamabost urteotan ia erabateko enplegua izan dugu. Eta horrek ez dio mesederik egiten berrikuntzari, lasaitu egiten garelako, tentsio puntua galtzen dugulako, sormenerako beharrik ere ez dugulako ikusten. Historikoki, berritzaileak izan gara, baina azken urteotan ia ez da enpresa berritzailearik sortu, nahiz eta gure bailarako enpresak diru asko inbertitu ikerkuntzan edo berrikuntzan. Hala ere, behar dugu berritzaile izan.

Elkar eragitea, espazioa eta berrikuntza. Hiru berba horiek erabiltzen dituzu Garaiak izan nahi duena definitzeko. Zer esan nahi duzu horrekin?

Interakzioa da pertsonen arteko informazioa konpartitzea. Espazio bat, gune egoki bat, beharrezkoa da elkarlanean jardunez berritzeko eta merkaturaz zure produktua erosteko prest dagoen norbait topatzeko.



Andoni Gartzia, Garaia Berrikuntza Gunean, Arrasaten.

ENEO AZKARATE

Gaur egun berrikuntzari, ikerketari, sormenari, garapenari... behar besteko garrantzia ematen diogu, oro har?

Uste dut baietz. Gainera, Debagoienean beti egon izan da berrikuntza, baina hotza izan da, ukiezina, ikusezina. Gakoa da jendea ohartzea hezkuntzan eta berrikuntzan oinarritu behar dugula gure etorkizuna. Gure gazteek ikusten dute beste jendarte batean bizi garela: informazio jendartean.

Krisi garaia ona da berrikuntzan sakontzeko?

Sasoi latzak beti dira onak aurrera egiteko, berritzeko, inflexio puntuak sortzen direlako krisi sasoietan. Hortaz, ondo etorria izan dadila egungo krisia. Orain, beste alde batean daude krisiaren ondorioz galtzen diren lanpostuak eta sortzen den ezinegona, ziurgabetasuna... Hori konpondu egin behar da.

KRISIA ETA BERRIKUNTZA

"Ekintzaileak izanda, azkarrak izanda eta arriskatuz izango gara berritzaileak"

ETORKIZUNA

"Hezkuntzan eta berrikuntzan oinarritu behar dugu gure etorkizuna"

GARAIA

"Gaur egun, 400 pertsonatik gora eta 20 enpresa gabiltza Garaian lanean"

Krisitik irteteko, berrikuntzak eta ikerketak zelan lagun dezakete?

Ekintzaileak izanda, azkarrak izanda, arriskatuz... Orain arte oparotasunean bizi izan gara eta moteldu egin gara. Krisitik irteteko eta egungo eredutik beste batera igarotzeko, hezkuntza eta berrikuntza ezinbesteko euskarriak dira; ez bakarrik, baina bai derrigorrezkoak. Ekimenean dago gakoa.

Noiz zabaldu zen Garaia eta zenbaterainoko okupazioa dauka gaur egun?

Abenduan beteko ditu 10 urte. Hasiera batean, gune bakarra zegoen eta gaur egun bospasei eraikin daude. Hiruzpalau urteetik hona, hasi gara enpresen eskuetan jartzen azpiegiturak, eraikinak... Eta, aurretik, beste sei urte egon gara urbanizazio lanetan-eta. Gaur egun, 400 pertsonatik gora gabiltza Garaian

lanean, duela sei urte inor ez zegoen tokian. 20 enpresa ezberdin daude: Edertek; LKS; Microsoft; Ikerlan, Espainian beste inon ez dagoen gela zuri batekin; Ategi, erosketak egiteko web ataria... Gehienak bertakoak edo ingurukoak, nahiz eta bokazio zabala eduki Garaiak.

Zaila da kanpotik enpresak eta ikertzaileak erakartzea Debagoienara berrikuntza egitera?

Bai. Gaur egun, gainera, tesuinguru honetan, zailagoa, eta Gipuzkoak daukan egiturarekin, are eta zailagoa, eskualde gehienetan daudelako Garaia antzeko ekimenak: Goierri Berrikuntza Gunea dago Ordizian; Eibarren ere Teknologia Poloa egin nahi dute Teknikerren inguruan; Galarretan ere Garaia antzeko zerbitzua; Miramon...

Garaia etor daitezkeen enpresa berri batzuk edo zabalduko dituzten beste batzuk aipa zenitzake?

2011rako etxetresnen teknologien gaineko enpresa bat kokatzea nahiko genuke eta, bestalde, aurki MUK teknologia berrietan oinarritutako berrikuntza gune bat jarriko du. Laborategiak eta abar izango dira 11.000 metro koadro inguruko gunean. Enpresaren eta unibertsitatearen arteko elkarlana bultzatuko da hor.

Garaia hasierako helburuak betetzen diharduzue?

Espero genuen enpresa batzuek oraindik ez dute Garaian kokatzeko eta berrikuntzan murgiltzeko urrats hori egin, beste estrategia batzuk garatu dituztelako, baina helburuak betetzen doaz. 40 milioi euroko inbertsioa egin dugu eta horri gehitzen badiogu enpresak eurek egin duten inbertsioa ekipamenduetan-eta, 85 milioi euroko inbertsioa da. 2001ean aurreikusten zen 13 bat urtetan 130 milioi euro inbertituko zirela. Hasierako epe-muga 15 urtekoa zen. Bide onetik goaz.

Garaian makina bat ekimen antolatzen duzue: jardunaldiak, ikastaroak...

Bai, Garaia ez da bakarrik zientzia, teknologia edo enpresendako kokagunea, pertsonen ere egin nahi diegu tokia. Arrakastaz antolatu ditugu, inguruko agenteekin batera, jardunaldiak-eta. Garaia ekipamenduak eta azpiegiturak zabalik daude herri-terrendako.



zabalik

Maite Aristegi

Elkartu eta erantzun!

Azmo eta desio onenekin ekin diogu urte berriari. 2010, zenbaki biribila, askorentzat, behingoz gure herriarentzako bake justu bati bidea zabaldu beharko liokeen urtea. Aidean, hainbat keinu: ezker abertzaleak serio-serio azken hilabeteetan daraman eztabaidaren haize berri itxaropentsuak, estatuaren eztenkadek eraginda, aspaldian elkarren inguruan ibili gabeko senide "abertzaleak" batera ikusteak, bai faxismoaren atzapar luzeak Rafa, Arnaldo eta lagun bakezaleen espetxeratzeari erantzunez, bai eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren sarraskia salatzen.

Eta lehengusu batzuk falta ziren arren, errepresio zitalenari elkartuta erantzuteko gaitasuna estimatu genuen presoen eskubideak defendatzeko orduan; emozioz betetako bertso-final lapiko espres hartako hitzek eta sentipenek ederki laburbiltzen dute Herri honen bake eta askatasun nahia; urrutit daudenak etxeratuz, eskubide guztiak errespetatuz, behingoz gehiengoaren hitza eta erabakia errespetatzen dadila.

Baina urtea hasi orduko, hor ditugu Herri hau birrintzeko karreran beste hainbat koska, egunotako giroak bezala Herri honen etxe-atarian izotz-beltz kapa lodia jarri nahian; kartzela politika kriminalean oraindik neurri umiliagarriagoak, ezker-abertzalearen eztabaida zapuzteko etengabeko ziri eta filtrazioak, errekonkista espiritualaren bidetik kazikadaz eskuin muturrak inposatutako gotzain berria, eta azkeneko mehatxua, hezkuntza arloko errekonkista nahia, Zelaaren curriculum berriarekin letorkeen txikizioa, ikastetxetatik Euskal Herriaren izaera ezabatu eta euskara atzera botetz.

Erasoaldiok gelditzeko, erne, tinko eta inoiz baino elkartuago egon, edo gureak egin du! Oraingoan kapaz izan behar dugu!

usteak uste

Mireia Bikuña

Elurra, hotza eta beherapenak

Gabonen ondoren, urtarrileko lehen egunetan, beherapenak izaten dira protagonista. Zenbatero deskontuak egiten dituzten, nolako ilarak dauden denden sarreretan, zer erosi duen dendan sartu den lehen pertsonak... Baina aurten, eguraldiak jan die tokia albistegietan beherapenei. Elurra eta hotza: guztiok gaude alerta laranjan! Aitak autoaren sabaian 31 zentimetro elur neurtu zituen domeka goizean. Oñatin, behintzat, hoztuta gabilta aspaldian. Apur bat berotzeko beherapenetara noa bihar!

"Urtea hasi orduko, hor ditugu Herri hau birrintzeko karreran beste hainbat koska"

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

Hain inutilak ez gara

Lluís Bassets

http://blogs.elpais.com/lluís_bassets

Ze galduko litzateke bat-batean paperezko egunkariak desagertuko balira? Kazetaritza ikertzen duen Pew Research Center institutua galdera horri lehen erantzun bat ematen saiatu da: astebetean Baltimore hirian (Washington ondoan) komunikabideetan gertatu denaren jarraipena egin du. Baltimoreko metropoli-barrutiak 2.500.000 biztanletik gora dauzka. Hau da ikerketatik atera daitekeen ondorio nagusia medio digitalek daukaten inpaktuaren gainean: "Paisaia informatiboa oso azkar zabaldu da, baina publikoari iristen zaion gehiena medio tradizionaletik iristen zaio, eta batez ere paperezko egunkarietatik".

(...)
Ikerketak ondo islatzen du medio berriek duten rol mugatua (blogak, *Twitter*...); horiek funtzionatzen dute alerta sistema eta diseminazio mekanismo gisa. Hori bai, medio digitalek telebistari eta irratiari

aurre hartu diete albisteak eguneratzeko azkartasunean, batez ere albiste urgentek. Kontu bereziki kezagarria da filtro kritiko askoren desagertzea: "Izan ere, sarritan ikusten ditugu prentsa-oharrak hitzez hitz idatzita gertakariak kontatzeko lehenengo informazioetan, baina hori aipatu barik".

(...)
Baltimore ez da metropoli handia, baina bai AEBetako erdi mailako hiri motaren erakusgarri: interes orokorreko bost egunkari ditu, bi egunkari espezializatu, interes orokorreko lau website, bost blog lokal eta 30 irrati-estazioetik gora. Ikerketa egiteko, astebetean argitaratutako sei albiste lokal garrantzitsuenak hartu dira, eta emaitzak oso kaskarrak izan dira medio batzuetako: informazio gehienak beste publikazio batzuetatik birziklatutako albisteak ziren, eta originalei dagokienez, %95 medio tradizionalek produzitu zituzten. Ikerketak eztabaida askori bide emango die eta dagoeneko hasi dira Pew-rekin polemizatzen AEBetako galaxia digitaleko blogari ezagunetako batzuk.

[Gaztelaniatik itzulia]

koplak

Eñaut Uriarte

Alpeetara eskursiñua

Edurra ostiralian ta zurittu bapatian, guk Alpetara juateko zita eginda geneukanian.

Eitten zeban mara-mara goizeko lauretan hara, ez genekien helduko giñan guztiok onik metara.

Hauxe da talde alaia Edu, Alpus ta Amaia, Olatz ta Moro, Txomin / ta Jordi ta ni neu hori bai jaia.

Behin furgoneta aparkauta pentsatu giñun hau marka, nahiz termometro baten / zeguan jarritta minus hamaika.

Domeka goiza heldurik kriston euzkia ikusirik, eskiatzera abentau giñan denak ezin siñisturik.

Eskiatzen gabiz sendo egunak geroz ta hobeto, hau mirari bat izan daiteke horrela iraun ezkeru.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailtako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak eta Goienkaria), Xabi Urtzelai (Kirola), Itziar Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarriko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundihano, Ziortza Martín, Itxaso Bereizbar, Aintzane Murumendiarrak **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko
JaurlaritzaGipuzkoako
Foru AldundiaArrasateko
UdalaBergarako
UdalaOñatiko
UdalaAretxabaletako
UdalaEskoriatzako
UdalaAntzuolako
UdalaAramaioko
UdalaElgetako
UdalaLeintz Gatzagako
Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Ateak zabalik zatoz ikastolara!



HAUR HEZKUNTZA 0-6 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

| | | | | |
|--------------|------------|----|-------|----------|
| OLARTE | urtarrilak | 19 | 18:00 | ARRASATE |
| UMEZAINZA | urtarrilak | 25 | 18:00 | ARRASATE |
| SANTA TERESA | urtarrilak | 26 | 18:00 | ARRASATE |
| URIBARRI | urtarrilak | 28 | 18:00 | ARRASATE |

ATE IREKIAK

| | | | | |
|-----------------------------------|------------|----|-------------|--------------|
| JOSE ARANA | urtarrilak | 28 | 18:00-19:30 | ESKORATZA |
| BASABEAZPI | urtarrilak | 28 | 18:00-20:00 | ARETXABALETA |
| OLARTE | urtarrilak | 28 | 17:00-18:30 | ARRASATE |
| ARIMAZUBI - SAN VIATOR TXIKI - | otsailak | 1 | 17:00-18:30 | ARRASATE |
| SANTA TERESA | otsailak | 2 | 17:00-18:30 | ARRASATE |

LEHEN HEZKUNTZA 6-12 URTE

BILERA INFORMATIBOAK

5 urteko
umeen gurasoentzat


| | | | | |
|------------|----|-------|------------|-----------|
| urtarrilak | 19 | 18:00 | ARRASATEko | UMEZAINZA |
|------------|----|-------|------------|-----------|

ATE IREKIAK

| | | | | |
|-----------------------------------|------------|-----|-------------|-----------|
| ALMEN | urtarrilak | 23 | 16:30-18:30 | ESKORATZA |
| GAZTELUONDO | urtarrilak | 26 | 17:00-18:30 | ARRASATE |
| ARIMAZUBI - SAN VIATOR TXIKI - | otsailak | 1-2 | 17:00-18:30 | ARRASATE |
| SANTA TERESA | otsailak | 2 | 17:00-18:30 | ARRASATE |

902 11 20 25
informa zaitez

www.arizmendi.eu



Mendekua eta krudelkeria, infinituak direnean

Eukene Gracia Campillo
Bergara

Momentu aproposak dira oraingo hauek akordatzeko gure familiako, lagun, inguruko presoekin, horrenbeste kilometrora daudenak, estatu krudel eta mendekati batek giza eskubideei muzin eginez erabakitzen dituen kilometroak, hain justu. Zergatik diodan hau?

- Euren kondenei gehituta sufrimendu gehigarriarekin urte larregi daramatzagu: epaiketa sumarisimoetan diseinatutako kondenak inongo berme legal barik, aurrez sinatutako kondenak, pertsonen euren pentsamenduak gure Euskal Herriaren alde, askatasunean eta justizia sozialean oinarritutako ideal justuetan konprometitu aurretik ere.

- Mendekua eta krudelkeria hain da infinitua, inoiz ez zaie ezer nahikoa irudituko: urruntasunaren sufrimendua, isolamenduaren abusua, neurri bidegabe eta ez beharrezkoen umiliazioa. Ezer ez da nahikoa! Dena justifikatzen da. Minutu miserable bakar batek ere balio badu min hau guztia areagotzeko.

- Orain, familiakoak erabiltzen dituzte neurritz kanpoko "arauekin", arau umiliagarriekin, eta horrela ahalegintzen dira presoek kentzen hurbilekoen besarkada beroa, hurbileko irri baten poztasuna. Denak balio du euren helburu miserablea lortzeko, denak balio du gure presoen indefentsioa sufri dezagun, nagusikeria erabiltza euren mazmorretan kartzelaratzea erabaki zutenengandik.

Agian, azkenean ere, une bereziki aproposa izango da, gure konpromiso leialarekin, sufrimendua txikitzeko, bat

eginda egoteko, zailtasunei aurre egiten ahalegintzeko, ez errenditzeko... gure presoetako bat bera ere inongo estatuen krudelkeria eta mendekua sufrizera behartuta egon ez dadin lortu arte. Aurrera elkarturik!

Aretxabaletako futbol eskolari, mila esker!

Aitor Bengoa Lopez
Aretxabaleta

Lerro hauek UDA eskolan buru-belarri lanean dabilzitan pertsona guztiei eskerrak emateko erabili nahi ditut.

Bai entrenatzaile moduan: Oinatz, Ezkibel eta Daneli eta, nola ez, zuzendari: Ion, Iñaki eta Igorri.

Lehenik, esan behar, eskola honek duen filosofiarekin bat natorrela.

Eskola honek duen filosofiak agian gure seme-alabak ez ditu aurrerantzean eliteko jokalaririk egingo eta, kontuz, agian esan dut, ez dadila inor haserretu, zeren badakigu

Atxabaltan lehen mailako jokalaririk asko izan ditugula eta: Barkero, Arenaza, Etxabe, Zubi, etab...

Baina ziur nago filosofia honek aurrerantzean gure seme-alabak eliteko pertsona egingo dituela.

Argi eta garbi ikusi da Bixente Etxeandia azken torneoan. Eskola honek 2000. urtean jaiotako hurrekin bi talde egin ditu eta bi talde hauetan haur guztiak nahastea, esanguratsua izan da. Niretzat oso ondo!

Honekin argi adierazi dute ez zaiela batere arduratzen txapelketa irabaztea, haur guztiak taldekide izatea eta guztiak ongi pasatzea baizik. Berriz, oso ondo!

Hurrenganako tratua ezin hobea izan da: entrenatzaile, zuzendari, arbitro eta denen partetik.

Adin honetako haurrek hainbeste partidutan egin ditzaketan erruak asko izaten dira, ba entrenatzaileen ahotik ez dut erasi bat ere entzun; alderantziz, beti animatzen eta animatzen ibili dira. Berriz ere ederto!

Arbitroak, berriz, beti haurrak zuzentzen, laguntzen eta bi taldeak momentu guztietan animatzen, bai etxeokoa, bai kanpokoak. Arbitroak ere bikain! Esan behar, arbitroak eskolako zuzendariak izan direla. Eurei esker, joko guztiz garbia ikusi da. Partidua amaitu bezain pronto, entrenatzaileak beste ekipoari bostekoak ematen bidaltzen zituen taldekide guztiak. Oso-oso ondo!

Honegatik denegatik, zuen filosofiarengatik, urtean zehar ordaingabe egiten duzuen lanarengatik... Mila esker! Horrela segi eta ez aldatu sekula zuen filosofia! Aupa, UDAko futbol eskola eta aupa, UDA!

Oñatin 'gatzik' ez daukagu

Miren Intza
Oñati

Uste dut izenburuak azken elurte honetan Oñatin gertatu denaren deskribapen nahiko perfektua ematen duela. Bestela, nola uler genezake gaur egun eguraldiak hainbeste aurrerapenez zer datorren zehazten digunean, Oñatin *gatz* gutxi egotea?

Batetik, nola uler genezake igandea delako inortxo ez egotea herriko elur-kentze lanetan?

Nola ulertu herriko 2 parking publikoetako sarre-rak izotz pistak izatea igande gauean; horren ondorioz, astelehenean bertatik autoak atera ezinda bakoitzak ahal duen moduan lanera joan beharra ekarri. Nora jo behar dugu oñatiarrok honelako arazoaren aurrean?

Batera nahiz bestera deituta, garbi utzi ziguten Bergarako Ertzainek, baita ondoren lotsaz 112ra deituta ere, guzti horren ardura Udalarena zela.

Beste alde batetik, nola da posible herriko jende kopuru handi bat mugitzen den tokietan, hau da polikiroldegia, plaza, Santa Anako pasabidea, ambulatorioa, Kalebarria (banketxeen inguruak), herriko zebrabide-etako bazterrak, umeez ibili behar duten tokiak, eta abar luze batek hain garbiketa eskasa eta kaxkarra izatea?

Nork zuzendu ditu Oñati-ko brigada famatu hauek? Denok ikusi ditugu palak gelditu eta zigarro-erretzen.

Udaltzainen lana goizeko 9etan dena elurtuta dagoenean eta inon ezin denean aparkatu, multak jartzea bakarrik al da? Uste dut pala bat hartu izan balute bakoitzak astelehen goizean, herriari zerbitzu hobea emango lioketela. Ez dago beraien bulego aurrea nola izan duten ikusi besterik, gero bai, zinta batzuk jarri inor pasa ez dadin eta kito, arazoa konponduta.

Uste dut hau guztia hobeto antolatu izan balitz, herriaren egun hauetan izan diren erori eta kolpe asko saihestuko lirakeela. Gainera, jauzi izanak badakizue oinetako deserosoak eramategatik izan dela? Hurrengo urterako denok Olentzerori kranpoiak eskatzea izango dugu onena!

Ba, horixe, elurraren aurrean Oñatin *gatzik* ez.

Lehergaiak

Joxean Dieguez
Arrasate

Lehergaiak atzeman omen dituzte Espainia aldean. Politikariak aztoratuta, eta komunikabideak zalapartaka. Eta bai, gure inguruan ere lehergaiak dabilza gora eta behera astero. Eta inork ez du hemen ezer esaten. Besaide

bidean eraiki duten leherkari biltegia ikustea besterik ez dago. Udalatx zulatze erabiltzen ari diren lehergaia da. Gure mutur aurretik pasatzen da, eta bertako politikariak isilik, komunikabideak itsu.

Zer egiten ari zaizkigu, gure ingurua suntsitzen, Udalatx odol hustuz eta gure etorkizuna hipotekatuko duen azpiegitura inposatzen ari diren bitartean, guk beste aldera begiratzeko?

Besarkada bero bat azken atxilotuei.

Norbaitek gidatzen du?

Jesus Markaide
Arrasate

Zapatua, 2010eko urtarrilaren 9a. Egubakoitzean elur asko bota du egun osoan. Gauak elur gehiago eta izotz ekarri ditu, munduko meteorologia parte guztiek iragarritako moduan.

Zapatu goizeko 11:00etan, Udala plazatik Erguenera igotzeko aldapak patinatzeko pista dirudi eta bertatik pasatzen ausartu diren auto gehienek patinatzen dihardute.

Udaletxera deitu dut eta galdetu dut Udaleko brigadakoek lanean diharduten. Baietz esan didate. Udaltzaingoari adierazi diot zein den Erguenera igotzeko aldaparen egoera.

Ustekabean harrapatu dudala iruditu zait eta oharra hartu du. Harritu geratu naiz ni: herri honetan bada Erguineko aldapan ere elurra egiten duela ez dakienik?

Harrigarriagoa da Udaltzaingoak ez jakitea bere betebeharra dela bideak ixtea, hauek pasatzeko moduan ez badaude.

Honekin guztiarekin, galdera bat dator kit burura, honako hau: norbaitek gidatzen du?

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com



**IKUSI
MAKUSI**
Umeen paradisia





> **ARRASATE**
Ospitalerako oinezkoen bidea egingo dute E plana baliatuta > **12**



> **BERGARA**
Aniztasun Astea egingo dute hilaren 19tik 23era bitartean > **16**



> **ARETXABALETA**
Musika banda osatzen dute 8 eta 13 urte arteko 20 lagunek > **21**



> **ELGETA**
Udaleko langileei eragingo die Euskara Planaren lehen faseak > **26**

ARRASATE > HERRITARRAK

Kanpoko pertsonaiei euskarazko ahotsa ipintzen die arrasatear batek

BIKOIZTAILEA

Urtebete daroa Aner Narvaezek bikoiztaile lanetan; 'Blue dragon'-en ahotsa da orain

ETORKIZUNA

Lanbide "zaila" dela aitortzen du, baina horretan jarraitu gurako lukeela diosku

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Kanpoko telesail eta filmak euskaraz ikusten ditugunean, protagonista garrantzitsuenetako batzuk ez dira inoiz iruditan agertzen, baina euren lana ezinbestekoa da euskarazko ikus-entzuzkoendako: bikoiztaileak dira, euren ahotsa pertsonaiei ematen dietenak. Bada, Debagoienean ere bada bikoiztaileak; izan ere, musikari moduan ezagun dugun Aner Narvaez arrasatearrak bikoiztaile dihardu azken urtean. Orain, Euskal Telebistaren 1. eta 3. kateetan ematen duten *Blue dragon* marrazki bizidunetako pertsonaia nagusia bikoizten du. Eta herriko umeez ezagutu dute: "Ahotsarengatik ez, baina batak besteari esanda-edo, ezagutu egin izan naute kalean", dio Aner Narvaezek.

AKTORE IZAN BEHARRA DAGO

Hark kontatu digu zelari hasi zen: "Betidanik ikusi izan ditut eta gustatu izan zaizkit marrazki bizidunak eta filmak, eta bikoizketaren munduak erakarri ninduen. Bilbon ikastaro bat topatu nuen, oso gustura ibili nintzen, eta gero beste bi egin nituen. Horren ondoren hasi nintzen lanean". Orain, batik bat Mixer enpresarendako egiten du lan.

Bere esanetan, lana "zaila" da, eta aktore izatea ere eskatzen du. "Pertsonaian erabat sartu behar da bikoiztailea, eta dena pertsonaia egiten duen moduan egin: pertsonaia ez tula egiten badu, bikoiztaileak ere ez tula



Aner Narvaez, bikoizten duen *Blue dragon* pertsonaiaren irudiaren ondoan.

LEIRE KORTABARRIA

egin behar du; sakon arnas hartzen badu, bikoiztaileak ere bai..." Pertsonaiekin bat-egite hori, gainera, bat-batean egin behar dute bikoiztaileek: "Hitz

egiten dugun bitartean, telebista baten aurrean gaude, atril bat daukagu eta, hor, momentuan ikusi dugun testu bat. Irudien bi pase egiten digute, gutxi gorabe-

hera 30 edo 40 segundoko eszenak, eta momentu baten ikusi behar dugu pertsonaia non dagoen, zertan..." Trukuak ere badaude: "Pertsonaiaren begietara begi-

ratzeak asko laguntzen du; begiek asko esaten dute: alai dagoen, haserre dagoen..."

Egutegi finkorik ez dute izaten: "Egun batetik bestera deitzen didate; eta egun batzuetan sei edo zortzi ordu eta beste batzuetan bat edo bi lan egin behar izaten dut", esan digu Anerrek.

ERREGISTROAK

"Sarritan gaiztoak ematen dizkirate"

"Berdin zait umetxo batena edo agure batena egitea; denetarikoa pertsonaia egingo nituzke", dio Aner Narvaezek. Hala ere, orain arte "ahots grabea duten pertsonaia" eman izan dizkiote gehien. "Askotan, gaiztoarena egitea" egokitu zaio. Hala, *Avatar* telesailan (irudian) parte hartu zuen. "Suaren erregea nintzen, gaizto-gaiztoa zen", dio.

Parte hartu izan du ere bi filmetan eta dokumentaletan, paper txikiekin. Horiek ere gustura egingo lituzkeela dio.



Avatar telesailako irudi bat. GOIENKARIA

ESANAK

"Pertsonaian sartu behar du bikoiztaileak; horretarako, pertsonaiaren begiek asko laguntzen dute"

"Euskal bikoizketaren industria ez dago bere momentu onenean, baina oro har ondo dago; asko miresten dudana jendea dago"

Aner Narvaez > Bikoiztailea

"ASKO LAGUNDU DIDATE"

"Euskal bikoizketaren industria ondo dago, jendea badabil, nik asko miresten dudana jendea eta asko lagundu didana; jende askok urte pilo darama bikoiztaile, eta aholkuak ematen dizkirate, lagundu izan didate... Gainera, euskarazko bikoizketa oso-oso maila handikoa da", esaten digu Anerrek, eta gaineratzen du ondo ordainduta dagoela. Hori horrela izanda ere, "orain ez da momentu onena bikoizketarako, estudio asko larri dabilta", gaineratzen du. Hala ere, bere burua hor ikusten du: "Gustatuko litzaidake honetaz bizi izatea".

OBRAK > E PLANA

Oinezkoendako ibilbidea egin gura dute, ospitalerako

"Ospitale-gunearekin oinezkoen lotura lortzeko ibilbide berria" egin gura du Arrasateko Udalak E planaren bitartez

UBANE MADERA > ARRASATE

Gelmako etxeetatik Nafarroa etorbiderainoko gunea urbanizatu eta oinezkoendako ibilbidea egokitzeko eskaera da Arrasateko Udalak E planean aurten aurkeztu duen lehena.

Obra handia da egin gura dutena, erreka gurutzatzeko oinezkoendako zubi eta guzti.

Izan ere, proiektuaren helburu orokorra da herriaren alde bata eta bestea lotzea, oinezkoendako ibilbide baten bitartez. Bestela esanda, Gelma eta ospitale-gunea lotzea oinezkoendako.

PLAZA ETA APARKALEKUAK

Hirigintza Saitetik emandako xehetasunen arabera, bide horren zati handi bat aterpean egin gura dute, pergola batekin estalita (zubia, adibidez).

Plaza berria ere egokitu gura dute, zubia bukatu eta Mankomunitatearen egoitzaren arteko gunean. Eta plaza horretarako jarleku, iturri, oinezkoendako ibilbide eta bestelako ekipamenduak aurreikusitakoak dituzte.



Gelma eta Nafarroa etorbidea lotu gura ditu Udalak, Deba ibaia gaindituko duen oinezkoendako zubi eta guzti.

U.M.

BESTELAKO ESKAERAK

Gizarte Zerbitzuen gastua finantzatzeko

Beste proiektu batzuk finantzatzeko laguntza eskatzeko asmoa ere badu Arrasateko Udalak, eta hori egin ahal izateko dokumentazioa batzen dabilta orain. Adibidez, gura du Musakolako kiroldegiko egitura sendotu, udal eraikinen arteko sare informatikoa osatu eta gizarte zerbitzuen gastu arruntaren zati bat finantzatu. Beharrezko dokumentazioa batu beharko dute hilabetea bukatu aurretik, orduan bukatzen da-eta eskaerak aurkezteko epea.

Bestalde, inguru horretan (Lantegi Eskolaren atzeko partean) 22 aparkaleku egokituko dituzte, eta baita bizikleta eta motorrendako bi aparkagune ere.

Plazaren inguruan, berriz, zera egin gura dutela iragarri dute: "Berdegune handiak, hainbat zuhaitz motarekin, bisitariari eguzki eta gerizpe artean gune atsegina eskaintzeko".

Bukatzeke, Mankomunitatearen ondoko espaloi eta bestelakoak ordenatu egingo dituzte.

EIRAIGIN BATZUK BOTA

Hori guztia egiteko, baina, gaur egun Nafarroa etorbideko hainbat eraikin bota egin beharko

dituzte; adibidez, SUDC elkarteak biltegi moduan erabiltzen duen eraikina eta txabola batzuk.

MARTXOA BAINO LEHEN

Oinezkoendako ibilbide berri hori egiteko 850.000 euro pasa beharko dituela aurreikusitako da Arrasateko Udalak. Eta horixe da Madrilgo Gobernuari eskatutakoa (joan den egubakoitzean). Orain, beraz, gobernu zentralaren erantzunaren zain daude.

Edozelan ere, baiezkoa jasotzen badute, iragarri dute martxo aurretik adjudikatuko dituztela lanak, E planaren baldintza izango delako urtea bukatu baino lehen guztia amaituta izatea.

DENBORALEA > ELURRAREN OSTEKOAK

Elurraren ostean zuloak azaldu dira kaleetan

Horiek konpontzeko azterketa egingo du Arrasateko Udalak

U.M. > ARRASATE

Pasatako denboraleak utzitako herritarren kexu, Udalaren azalpen eta bestelakoez gainera, orain, elurra eta izotza urtu denean, zuloak ere utzi ditu herriko hainbat errepidetan; San Frantzisko Xabier biribilgunearen bueltan, esaterako.

Arrasateko Udalak ikusi ere ikusi ditu, eta iragarri du azterketa egin beharko duela ahalik eta lasterren konpontzeko. "Bage-neukan aurreikusita hainbat gune berriro asfaltatzea; lan horiek ezin izan ditugu egin, justu azken asteotako eguraldi txarraren eraginez. Bada, orain, berrikusi egingo dugu errepide eta gune horien egoera eta asfaltatzeko obren barruan sartuko dugu elurteak utzitako zuloak ere konpontzea", azaldu dute Obra eta Zerbitzu Saitetik.

KEXUAK ETA AZALPENAK

Kexuak ere utzi ditu, baina, denboraleak; kasu horretan, denboraleari aurre egiteko Udalaren lana kritikatu dute herritar askok

(20tik gora dei BAZen) eta baita PSE-EE alderdiak berak ere.

Bada, hori dela-eta, Udalak azaldu du badakiela "herritarrek traba edo enbarazu ugari igaro

behar izan dutela", eta horren aurrean, aditzera eman du "halako egoeri aurre egiteko duen udal protokoloak ezarritako baliabideak erabili dituela, eraginkorrak izan direnak lehena-ego egin dituen elurteetan". 30 tona gatz, 40 laguneko taldea eta 2 ekipo dira, hain zuzen, erabilitakoak. Edozelan ere, Udalak gaineratu du uste duela "hobetzen jarraitu behar" dutela.

bere ustez



Aitor Izagirre

Denboraleak kaosa, Debagoiengan

Azken egunotan, normalean igogailurako uzten dugun gaia denon ahotan ibili da. Eta oraingoan merezi du gogoetak; izan ere, nik behintzat ez dut horrelako beste elurterik gogoratzen gurean aspalditik, eta ondorioak izan ditu gure egunerokotasunean, noski. Elurra egiten duen bakoitzean gure errepideetako gabeziak agerian geratzen dira. Hiru elur maluta zerutik behera, eta kaosa gurean. Herri batetik bestera joateko ezintasunak, errepideetan lehen ere bage-

"Noizko ganorazko errepide sarea? Noizko ganorazko garraiobideak? Noizko...?"

neuzkan zuloak biderkatu zein handitu dira, autobusen atzerapenak, norbanakoen haserreak, informazioerik eza agintariaren partetik...

Hori da gure bailarako lotsa nagusienetako bat: garraiobideak. Oraingoan, gainera, ikusi ahal izan dugu Eibar-Gasteiz autobideak (gu salbatzeko eraiki zuten autobide garestia) ez duela arazorik konpondu, eta ezagunei entzundakoagatik, afera are-agotu zuen, ostiralean behinik behin. Noizko ganorazko errepide sarea? Noizko ganorazko garraiobideak? Noizko ganorazko zerbitzu publiko bat? Noizko...?

Garraiobideetan hutsaren hurrengo gara, noiz arte? Hori buruz zerbait erabakitzeke ordua iritsi dela uste dut.



Elikadura • Naturopatia
Erreflexologia
Buruko masaje indiarra

Aurretzako zita:
943 79 05 77

Iturriotz 33, behea 2
ARRASATE



**Urte berriarekin
ORDUTEGI BERRIA**

- 07:15etik 14:30 arte
- 17:00etatik 19:45 arte

Urte zoriontsua opa dizuegu!

DELICATESSEN • URDAITEGIA • PASTELAK
EGUNEKO MASA FRESKOAREKIN PRESTATURIKO OGI GOXOA

Lapurdi kalea 7-9 • Tel.: 943 79 69 93
j.ayani@telefonica.net



Nihad Ben-Omar, Leire Aperribai eta Maite Uribarren, osasun gida eskuan dutela. J.B.

OSASUNA > GIDA

Emakumeei zuzendutako ekintzak euskaraz egiteko osasun gida atera du Ekinek

Beste emakume elkarteetan oihartzuna izan gura dute, eta bitartekari lanak egitea da euren asmoa

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Osasun gida atera berri du Ekin emakume elkarteak. Proiektu berria da, eta, beraz, oraindik komunikazio kanpainan murgil-

duta daude. Ahalik eta oihartzun handien izan gura dute, batez ere Euskal Herriko beste emakume elkarten artean. Haien bitartekari lanak egitea da asmoa.

IKASTARO ETA TAILERRAK

Gidaren zabalkundeaz hasteko ikastaro bi antolatu dituzte: lehen estresaren gainekoa izango da. Hasieran urtarril erdialdean egin behar bazuten ere, otsail hasierara atzeratu da ikastaroa. Lau saio egingo dituzte: hilaren 1ean, 3an, 8an eta 10ean. Ekineko kide Maite Uribarrenek aditza eman duenez, ikastaroak alde teorikoa eta praktikoa izango ditu. Hala, talde txikitik banatuta, norberaren esperientziak hartuko dira aintzat, horrela Arantzazu Loidi aditza-reen estresa gainditu edo txikitzeo estrategiak ikasteko.

Bigarren ikastaroan sexualitatea eta komunikazioa landuko dute bi tailer ezberdinetan: batek, komunikabideen bitartez jasotzen ditugun mezuak aztertuko dituzte, eta bestetik, bizitza erotikoa alaitzeko proiektu pertsonala nola garatu zehazten saiatuko dira. Nerea Sanchez arrasatearrak bideratuko ditu tailerrak.

Bi ikastaroak talde txikitik emango dira, Uribarrenek dioenez, "gertukoagoak eta samurragoak" dira-eta. Hala, hamar lagun inguruko taldeak osatuko dituzte. Izenematea zabalik egongo da urtarrileko azken astera arte.

EUSKARA BEREIZGARRI

Ekinek atera berri duen osasun gidaren zeinu bereizgarria euskara da. Izan ere, elkarteak uste du emakumeen bizi kalitateari eta osasunari buruzko informazioa euskaraz lortzeko "hutsuneak" daudela.

GAZTEAK > TXATXILIPURDI

Neguko jaia egingo du bihar Musakolako gazte txokoak

Pista amerikarra, karaoke lehiaketa eta afari-merienda egingo dute, 16:00etan hasita

J.B. > ARRASATE

Txatxilipurdik kudeatzen dituen gazte txokoek jo eta ke dihardute herriko gaztetxoei aisialdi plan paregabea eskaintzeko orduan. Aste bukaera honetan, Musakolako gazte txokoaren txanda da, bihar negu-

ko jaia egingo dute-eta. 16:00etan hasita eta 20:00ak arte, ez da aspertzeko astirik izango.

12 ETA 14 URTE ARTEKOENAKO

Gazte txokoaren kudeatzaile Lander Juaristik jakinarazi duenez, biharko jaiaren helburua da "12 eta 14 urte artekoak Musakolako gazte txokora hurbiltzea". Izan ere, Juaristik dioenez, adin tarte horretako gaztetxo gutxi ibili ohi da bertan. Normalean, nagusiagoak diren gazteak ibiltzen dira.

Egitarauari dagokionez, ez dute sekulako festa bat antolatu gura izan: "Jai xume-xumea egingo dugu", adierazi du Juaristik. Hala, pista amerikarrekin hasiko dira. Bikoteka edo taldeka jarrita -gerturatzen diren gaztetxoaren arabera-, gazte txokoaren kanpoaldean proba ezberdinez osatutako zirkuitua gainditu beharko dute. Azkarrenak irabaziko du. Gero, karaoke lehiaketa egingo dute egoitza barruan, eta epaimahaiak erabakiko du zeinek duen ahotsik onena.

Azkenik, festari merezi duen agurra emateko, afari-merienda egingo dute. Besteak beste, txistorra eta pizza jateko aukera izango da.



Pista amerikarra.

TXATXILIPURDI

ORDUTEGI BERRIA

Asteleheneretik ostiralera (ordutegi jarraitua)

9:00etatik 20:30era
Larunbatetan
10:30etik 13:30era
16:30etik 20:30era

Sukalde alemanak
3.290 eurotik aurrera

beitia
living & home
>> Etxerako guztia

MUSIKA > KONTZERTUA

'Ekonfest' jaia izango da bihar Durangoko Plateruena kafe antzokian

Ekon taldeak agur jaia egingo du bihar Durangon; Anger, Sharon Stoner, Estricalla, Eraso! eta Sexy Sexers taldeek ere joko dute

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE
Arrasateko Ekon taldeak agur kontzertua egingo du bihar, zapatua, Durangoko Plateruena aretoan. *Ekonfest* izenaz bataiatu duten jaian, Plateruena taula gainera igoko dira Anger, Sharon Stoner, Estricalla, Eraso! eta Sexy Sexers.

Kontzertua 19:00etan hasiko da, baina Plateruena ateak 18:30ean zabalduko dituzte. Talde bakoitzak 50 minutuko emaldia egingo du, eta Ekon izango da azken taldea taula gainean. Sarrerak salgai daude www.kulturalive.com helbidean



Ekon taldeko kideak joan den urteko sanjuanetan Monterronen emandako kontzertuan.

GOIENKARIA

eta Arrasateko Lazkano musika dendan 16 eurotan. Kontzertu egunean leihatilan egongo dira salgai sarrerak 19 euroren truke.

URTEBETEKO BIRA

2003ko urrian agur kontzertua egin zuten Ekonekoek Arrasateko gaztetxean. Orduetik hona, tal-

dea deseginda egon da; baina iaz, Hatortxu 10erako elkartzea proposatu zieten. Hala, urtebeteko bira egin dute arrasatearrek.

"Aurreikusita geneukan urtebeteko bira egitea; orain, berriro, nor bere proiektu pertsonaletara itzuliko da", adierazi digu Yago Goronaeta *Yagomoon* Ekoneko gitarra-jotzaileak.

Kontzertua Durangon zergatik egin behar duten galdetuta, Yagok dio "areto egokia" gura zutela bai soinu aldetik eta baita espazio aldetik ere. Izan ere, Ekonek pantailak erabiltzen ditu ikuskizunetan, eta baita piroteknia ere. Zapatuan sorpresak egongo direla aurreratu digu Yagok.

15 URTE

Ekon taldea 1994an sortu zen Arrasaten, esperimentu moduan. Taldea gorpuzten joan zen, eta esan daiteke metala, sanpleatuak, rapa eta beste uztartzen asmatu zutela arrasatearrek; hala, jakin-mina piztu zuten.

Hiru disko kaleratu zituzten euren ibilbidean zehar: *Zurrumbilo kaotikoa* -Mil A Gritos, 97-; *Etnia 2000* -Mil A Gritos, 99- eta *Salatzen dut* -Gor, 02-.

JAIK > LEHIAKETA

Hilaren 30era arte aurkez daitezke 2010eko Inauterietako kartel lehiaketako lanak

Edonork parte har dezake lehiaketan; formatuak bertikala izan behar du eta teknika librea

A.E. > ARRASATE
Hilabete besterik ez da geratzen Aratusteetarako. Hori horrela, Udalak Aratusteak iragarriko dituen kartela egiteko lehiaketa martxan jarri du.

KARTELAREN NEURRIA

Lehiaketan edonork parte har dezake. Formatuari dagokionez, berriz, neurri berezi batzuk izan beharko ditu kartelak: 50x70 zen-

timetrokoa izan beharko du kartelak, eta, lana euskarri digitalean aurkezten bada, DIN-A3 tamainako paperean inprimatuta ere eraman beharko da. Formatuak, nahitaez, bertikala izan behar du.

TESTUA

2010 Inauteriak Arrasate testua derrigorrez agertu behar da kartelean, eta jai horren ezaugarri-

ren bat jaso eta adierazi beharko da.

Lanak 2010eko urtarrilaren 30eko 13:00ak baino lehen eraman beharko dira BAZera.

400 EUROKO SARIA

Kultura Sailekoen asmoa da otsaileko lehenengo egunetan erabakitzea irabazlea nor den. Lehenengo saria lortzen duenak 400 euro irabaziko ditu.

Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da, eta, egoki ikusten badute, erakusketa egiteko aukera egongo da kartelekin.

> ZINEMA

Drama, 'thriller'-a eta haurrentzako zinema izango da aste bukaera honetako eskaintza

Zapatuan, domekan eta martitzenean Roland Emmerich-en *2012* filma eskainiko dute. Zapatuan 19:00etan eta 22:30ean, domekan 19:30ean eta martitzenean 20:30ean. *Thriller* generoko filma da *2012*. Eguenean, ostera, Ken Loach zuzendari ezagunaren *Buscando a Eric* filma eskainiko dute, 20:30ean. Haurren zinemari dagokionez, *Planet 51* filma eskainiko dute domekan, 17:00etan.

> MUSIKA

Las Gildas eta The Dealers zapatuan 3 Aretoan eta Mahaster River bergararrak Irati tabernan

Zapatuan emango dute kontzertua 3 Aretoan Las Gildas eta The Leaders taldeek; modu horretan, egubakoitzean Raimundo Amadorrek eskainiko duen flamenkoari hartuko diote lekukoa. 23:00etan hasiko da kontzertua, eta sarrera bost euro kostako da.


Bestalde, Irati tabernan Bergarako Mahaster River hirukoteak kontzertua emango du zapatuan, 20:00etan. *Nahasterreka* azken diskoko doinuak eskainiko dituzte bergararrek, besteak beste.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

PUB HAIZEA



Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

> ERRUGBIA

Senior mailakoek Kantabriako bisita izango dute bihar

Joan den astean ligako partidua bertan behera geratu ostean, Kanpanzar ART taldeko mutilek Universidad de Cantabriaren bisita izango dute bihar Mojategin (16:30).

Domekan, berriz, alebin mailakoek Gipuzkoako txapelketako bosgarren jardunaldia jokatu dute (10:30).

> TXIRRINDULARITZA

Lizentziak berritzeko deialdia egin dute zikloturistek

Debagoiena Zikloturista Taldeak aditzera eman dute 2010erako lizentziak berritzeko epea zabaldu dutela. Lizentzia berritzeko edota klubeko bazkide egiteko interesa dutenek haien egoitzara joan baino ez dute (Zuloaga kalea 10). Hilaren 16an, 23an eta 30ean. 11:00etatik 14:00etara.

> PILOTA

AGT pilota taldearen angulen zozketa, otsailaren 5ean

Gabonetan aurreratu moduan, Arrasateko AGT pilota taldeak aurten ere angulen zozketari heldu dio; izan ere, iaz zozketa horrek emaitza onak eman zituen. Aurten, baina, bisiguak ere zozketatuko dituzte. Adi otsailaren 5eko ONCEko zozketa-ko lehen lau zenbakiei.

> ESKUBALOIA

Ford Mugarri Arrasatek Basauri hartuko du bihar

Hirugarren postuan dagoen Ford Mugarri Arrasatek (21) ligan zailtasun handiekin dabilen Indupe Basauri (7) taldearen kontra jokatu du bihar, zapatua, Iturripen (17:00). Bestalde, Orgazen mutilek jokatzeko dute joan den astean atzeratutako lehia.

> ATLETISMOA

Pista estaliko txapelketan hasi dira markak lortzen

Arrasateko atletak Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldian izan ziren, eta poliki-poliki badatoz markak.

Eukene Dorronsorok urrea ekarri zuen 60 metroko proban (8.20), eta Uxue Bengoetxea bigarren izan zen (8.61). Eta podiumera igo ziren pertika saltoan Maialen Axpe (3,35), Lore Mar (3,25) eta Malen Ruiz (3).



Besidekoek iaz Midi eta Belagua artean egindako mendi zeharkaldiko erretratu.

XABIER IZQUIERDO

MENDIA > BESAIDE

Besaidek gertu dauka 2010eko egitaraua

Urtarrilaren 21ean egingo du Arrasateko mendi taldeak batzar orokorra, 19:00etan, Kulturaten

barrutik ezagutuz lelopean, eta webgunean duzue horren gaineko informazioa. Eta mendiko bizikletarekin ere asteburu-pasa prestatzen dabilta -ez dator egutegian- Lanestosa (Bizkaia) aldera. Arrasateko MTB martxa, berriz, urriaren 16an izango da.

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Besaide mendi elkarteak urte berriarekin batera egutegi berria estreinatu du, 2010erako hitzorduz beteta dagoen egutegia. Eta, sasoi hobetan normala den moduan, eskiko irteerak dira datozen hilabeteotan protagonista. Eskaintza, baina, ez da horretara mugatzen, oinezko irteerak, mendiko bizikleta irteerak eta espeleologia egiteko proposamenez beteta dator-eta urtea.

Kontuan hartu behar da segidan emango dugun informazioak urtean zehar aldaketak izan ditza-keela, eta Besaideko kideek webgunean (www.besaide.org) bertan emango dituzte egon daitezkeen aldaketen berri.

Oinezko mendi irteerei dago-kienez, Besaideren asmoa da hile- ro bat antolatzea. Lehenengoa otsailean izango da, Badaia mendikatera (Araba, Gasteiztik ger- tu) eta martxoan eta apirilean Gorbeia (1.482 metro) eta Mendaur (1.131 metro) mendietan barrena ibiliko dira.

Oinezko irteerak, baina, Eus- kal Herriko mugetatik haratago ere egingo dituzte, Gaztela eta Leonera -maiatzean- eta Frantzia- ra (Palas de Balaitus) joango dira- eta. Azaroan, azkenik, GR-20ko Aralarko bira egingo dute.

ARRASATEKO INGURUAK BARRUTIK

Horrekin batera, espeleologia tal- deak hiru irteera egingo ditu *Arrasateko mendi inguruak*

KONTUAN HARTZEKO

Mendiko eskia egiteko ikastaroak

Debagoiengan mendi talde gutxi- eskaintzen dute mendiko eskiko ikastaroak egiteko aukera. Oraingo asteburuan, esaterako, Besaidekoak Somportera (Frantzia) joango dira mendiko eskiko ikastaroa egitea.

Eta, horrekin batera, hainbat irteera prestatu dituzte modalitate horri eskua hartu diotenendako: otsailaren 20an eta 21ean Batallance- Piau Engaly-Gedre mendi zeharkaldia egingo dute eta martxoaren 20an eta 21ean Artigues-Aulom egingo dute.

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak beirina eta kristalak osagaiak

San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

zaldibar

EMAITZAK

| | |
|-------------------------|-----|
| Lasgabaster-AT Celaya | 3-2 |
| Iluntz-Steaua Del Grifo | 9-1 |
| Fidel & Disc-Abokajarro | 2-6 |
| Komando Alpagat-Aldapa | 3-2 |
| Cipris-Iriztu | 4-3 |
| Katenaxio-Dribling | 1-7 |
| Betrayer-Ekaitz | 8-7 |
| Dublin-McAwenDauen | 7-5 |

PARTIDUAK

| Urtarrilak 16, zapatua | Epaileak |
|-----------------------------------|------------------|
| 09:30 Iriztu-Iluntz | AT Celaya |
| 10:30 Lasgabaster-AT Celaya | Cipris |
| 11:30 Cipris-McAwenDauen | Lasgabaster |
| 12:30 Ekaitz-Komando Alp. | McAwenDauen |
| 16:00 Fidel & Disc-Iluntz | Katenaxio |
| 17:00 Katenaxio-Iriztu | Fidel & Disc. |
| Urtarrilak 17, domeka | Epaileak |
| 10:30 Steaua del Grifo-Abokajarro | Betrayer |
| 11:30 Betrayer-Dublin | Steaua del Grifo |
| 12:30 Dribling-Aldapa | Dublin |

SAILKAPENA

| | P | J |
|----------------------|----|---|
| 1. Dublin | 18 | 6 |
| 2. Dribling | 15 | 6 |
| 3. Betrayer | 14 | 6 |
| 4. Cipris | 11 | 6 |
| 5. Lasgabaster | 11 | 6 |
| 6. Iriztu | 10 | 6 |
| 7. Abokajarro | 10 | 6 |
| 8. Mc Awen Dauen | 8 | 6 |
| 9. AT Celaya | 8 | 6 |
| 10. Fidel & Disc | 6 | 6 |
| 11. Ekaitz | 6 | 6 |
| 12. Komando Alpagat | 5 | 6 |
| 13. Iluntz | 4 | 6 |
| 14. Aldapa | 4 | 6 |
| 15. Katenaxio | 0 | 6 |
| 16. Steaua del grifo | 0 | 6 |

Elurteak nahi baino gehiago luzatu du porraldia

Gabonetako atsedendia- ren ondoren taldeak gertu zeuden joan den asteburuan txapelketari ekiteko. Baina, mantu zuriak eragotzi egin zuen Zaldibarren partidurik jokatzeko, eta futbol-gosez zeudenek beste astebete itxaron behar izan dute.

Hala, bihar goizean goiz helduko diote berriro ere txapelketari. Eta goizean goiz diogu Iriztuk eta Iluntzek 09:30ean hasiko dutelako atzeratu- ta daukaten norgehiago- ka. Ordu horretan ikusle gutxi izango da...



Prozesuaren barruan bost elkargune egingo dituzte eta jatorri askotariko eragileek hartu dute parte.

GOIENKARIA

JENDARTEA > ELKARTASUNA

Hilaren 19an hasi eta zapatara arte Aniztasun Astea antolatu du Udalak

Hitzaldiak, tailerrak, musika emanaldia, herri bazkaria... egongo dira

Iaz hasitako aniztasun eta elkarbizitzari buruzko eztabaida prozesuaren ondorioen berri ere emango dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Hilaren 19an hasi eta 23ra bitartean, Aniztasun Astea antolatu du Udalak, Anitzak ekimenarekin elkarlanean. Ekitaldiz jositako astea izango da eta Udaletik dei egiten diete herritarrei parte-hartzera. Astea antolatu dute, besteak beste, iaz jatorri askotariko herritarrekin batera hasitako aniztasun eta elkarbizitzaren gaineko eztabaida prozesuaren ondorioen berri emateko.

2009AN ABIATUTAKO PROZESUA

Iaz otsailean ekin zion Udalak prozesu parte-hartzaile horri.

Hasieran, diagnosi kuantitatiboa egin zuten, herriko errealitatearen berri izateko, eta diagnosi hark argi erakutsi zuen herrian badagoela aniztasuna; eta horrek eragin zuzena duela gizarte arlo guztietan. Hala, helburu nagusia izan da Udalaren eta jatorri askotariko herritarren artean eztabaidarako gune bat sortzea zenbait arlotaz jarduteko: sozio-ekonomia, hizkuntza, hezkuntza, eskubide sozial eta politikoak eta internazionalismoa. Bada, gune hori sortu dute eta dagoeneko bost elkargune ere egin dituzte: diagnosiaren inguruan eztabaida-

tzeaz gain, sozio-ekonomiaz eta hizkuntza, kultura eta hezkuntzaz jardun dute.

Elkarguneon helburua izan da aniztasuna benetan aberasgarria izateko arlo bakoitzean dauden elementu problematiko eta aberasgarriak zehaztea eta guztien artean erronkak adostea. Elementu horiek zehazteak konpromiso sozial eta instituzionalak hartzea ere badakar. Hala, Udal Gobernuak bat egin du konpromisookin eta herriko pertsona guztien eskubide politiko, sozial, ekonomiko, linguistiko eta kulturalak bermatzera bideratu dira.

Astearen egitaraua

19, martitzena

19:00 Topaketan irekiera egingo du Agurte Barruso alkateak, kultura etxean.

Gero, *Gu ere bai* izeneko ikus-entzunezkoa emango dute.

Gero, *Migrazioak eta aniztasuna Bergaran eta Euskal Herrian* delako hitzaldia egingo dute EHUKo ikasle eta Anitzak ekimeneko kide Pedro Albitek eta Anitzak ekimeneko kide Irati Anakabek.

20, eguaztena

18:00 *Riomundo* argitalpena aurkeztuko du Jon Maiak, kultura etxean.

21, eguena

19:00 *Hezkuntza, kultura eta hizkuntzak* delako hitzaldia egingo dute kultura etxean Iñigo Arregi euskaltzaleak; Marcos Nanclares aniztasunaren trataeran irakasle adituak; eta Maitane Arizabaleta *Jardun euskara* elkarte kideak.

22, egubakoitza

19:00 Sozio-ekonomiaren gaineko mahai-ingurua kultura etxean. Parte hartuko dute Antxon Mendizabal EHUKo Nazioarteko Ekonomia irakasleak eta Inclusion Bergarako kide batek.

23, zapatua

12:00 Perkusio eta txalaparta tailerra gaztetxean.

14:30 Herri bazkaria. Jatorri askotariko jakiak dastatzeko aukera egongo da.

19:00 Herri kalejira, trikitiak eta Afrikako perkusioak lagunduta.

22:00 Kontzertua eta ikuskizuna Zabalotegi aretoan. Bumpada Sound-ek eta Euskal Herria Anitza Kolektiboak *Anitzak hitzak* izeneko disko berria aurkeztuko dute: hip-hop, break dancea, beat boxa, bertso-hop, bideoa...

JENDARTEA > OSASUNA

Haizeberri elikadura naturalerako zentroa sortu dute Angiozar auzoan

Urtarrilerako elikadura energetikoaren gaineko ikastaroa eta hitzaldia antolatu dituzte

M.B. > BERGARA

Sukaldaritza natural eta energetikoaren gainean hezi eta informatzeko zentroa sortu dute Angiozarren. Haizeberri izena du eta Inmaculada Ortiz de Orruñoren –Montse Bradforden eskolako irakasle tituluduna– gidaritzapean sortu du herritar talde batek. Bestelako ekintzen artean, urtarrilean hasiko den sukaldaritza energetikoari buruzko ikastaroa eta hitzaldia antolatu dituzte.

SUKALDARITZA ENERGETIKOA

Sei saioko ikastaroa izango da, elkarrekin Angiozarren duen egoitzan: urtarrilak 30, otsailak 13 eta 27, martxoak 6 eta 20 eta apirilak 17 –guztiak zapatuak.

Saio teoriko eta praktikoak izango dira, 10:00-17:00 orduetartean. Bazkariari dagokionez, hori ere bertan egingo da; hain justu, ikastaroan prestatutakoa jango dute parte-hartzaileek. Hainbat menu ikasteko aukera egongo da, eta produktu guztiak biologi-



Haizeberri elkartearen urte bukaeran egindako ikastaroa.

GOIENKARIA

koak dira. Prezioari dagokionez, matrikula dira 100 euro eta 25 euro saio bakoitza.

Izena eman nahi duenak edo informazio gehiago nahi duenak mezua idatz dezake [inma.jose-](mailto:inma.jose-luis@gmail.com)

luis@gmail.com helbidera edo telefono hauetara deitu: 676 64 89 07 (Inmaculada Ortiz de Orruño) eta 634 45 30 82 (Antton Otaola).

Osasuna zure sukaldean delako hitzaldia ere antolatu dute.

Eguaztenean izango da, hilaren 20an, 19:00etan, Bergarako kultura etxean, eta irekia da. Inmaculada Ortiz de Orruño eta Jose Luis Rubio Ucin izango dira hizlariak.

oharrak

LOTERIA

> **Batzokiko Gabonetako Loteria kobra daiteke**

Euzko Alderdi Jeltzaletik jakinarazi dute batzokiko Gabonetako Loteria kobra daitekeela Euskadiko Kutxa-ko edozein bulegotan. Bestalde, asteburua talasoterapia zentro baten ere zozketatu dute eta zenbaki irabazlea izan da: 230.

ZOZKETA

> **Bedelkarrek egin du Gabonetako zozketa**

Dendarien elkarteko Gabonetako zozketako zenbaki sarituak dira: 2.540 eta 54.375 (500 euro) eta 17.584, 41.032, 85.796 eta 89.047 (250 euro).

ZOZKETA

> **Irudi bitxi-dendako zenbaki saritua atera da**

Irudi bitxi-dendak bezoren artean egiten duen Gabonetako zozketako zenbaki saritua da: 7.399.

KINTADA

> **1956an jaiotakoek urteko afaria egingo dute**

Urtarrilaren 30ean egingo dute, Zabala jatetxean. 19:30erako egin dute hitzordua, Fraisko zurin; 21:15ean argazkia egingo dute San Martin plazan eta 21:30ean da afaria. Afaldu ondoren dantzaldia ere izango dute. Izenematea da Zabala jatetxean (943 76 42 57) eta horretarako mugaeguna da hilaren 25a.

HEZKUNTZA

> **Automatismo programagarrien gaineko eskolak Miguel Altunan**

Miguel Altuna Lanbide Heziketa Institututik jakinarazi dutenez, hilaren 18ko 18:00etan hasiko dira *Oinarritzko automatismo programagarriak, STEP7-300* delako ikastaroko eskolak. Otsailaren 22an, berriz, *Automatismo programagarri aurreratuak, STEP7-300* ikastaroa hasiko da. Bietan ala bietan plaza libreak daude oraindik. Hala, parte hartu nahi dutenek Miguel Altuna institutura jo dezakete edo 943 76 70 49 telefono zenbakira deitu.

AUZOAK > JAIK

San Anton auzoan jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran

Domekan, San Anton Abad Egunean, meza nagusia izango da; dantza erakustaldia eta umeendako jolasak ere egongo dira

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

San Anton auzoan Sanantonabat jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran. Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, izango dira ospakizun ekitaldiak.

Bihar, zapatua, 16:00etan hasiko dira ekitaldiak. Ordu horretan, 22. nazioarteko mus txapelketa jokatu da Zubiberrri sagardotegian. Izenematea zabalduko dute ordubete lehenago, Zubiberrin, eta bikote bakoitzak ordaindu beharko ditu 12 euro. Sariei dagokienez, lehenengo bikoteak jasoko ditu bildots bat, xanpaina eta garaikurra; bigarrenak, bi untxi eta xanpaina; hirugarrenak, kilo bat saiheski eta xanpaina; eta laugarrenak, pattarra. Sariok banatuko dituzte 19:00etan.

Eta gaueko bederatzietan herri afaria egingo dute Zubiberrri sagardotegian.



Txerria harrapatzera egingo dute jolas umeek.

GOIENKARIA

DOMEKAN, MEZA NAGUSIA

Etzi, domeka, da San Anton Eguna, eta, hori horrela, 11:00etan, meza nagusia egingo dute auzoko ermitan. Mezan, gainera, Umora-Ona taldeak abestu egingo du. Meza bukatu eta gero, salda, txorizoa eta ardoa banatuko diete ermitaren aterpera joaten diren guztiei, urteroko ohitura jarraituz.

12:00etan, nazioarteko 33. San Anton krosa jokatu da. Zubiberrri sagardotegi ondolik abiatu

tuko da eta bukatu ere hantxe bukatuko da.

Krosa bukatu eta gero, berriz banatuko dute jaien antolatzaileek salda, txorizoa eta ardoa joaten diren guztien artean. Horrekin batera, erromeria ere egongo da.

12:30ean, herri kirolak egongo dira eta Aranzadiko dantza taldearen erakustaldia ere bai. 13:00etan, kaskara jokoa, umeendako jolasak eta txerri-harrapaztea egingo dira.

txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

Igogailuak ez dira jolas egiteko



Boluko auzotar batek igogailu berrien gainean kexua helarazi digu: "Tokatu zait Koldo Eleizaldera igotzeko igogailua hartu nahi eta ezin izatea umeek jolas egiteko erabiltzen dituztelako. Igogailuok ez dira jolas egiteko eta horrela segiz gero, berehala apurtuko dira. Horregatik, uste dut zaintza moduren bat jarri beharko lukeela Udalak ohiko jolasleku bihurtu baino lehen".

LAGUNTZAK

65.143 euro jasoko dituzte GKEek

Udalak ematen duen laguntza hori hamar elkartasun taldek jasoko dute

M.B. > BERGARA

Udalak onartu egin berri ditu gobernuz kanpoko erakundeek jasoko dituzten 2009ko dirulaguntzak. Hamabi taldek egin zuten eskaria eta hamarrek jasoko dute laguntza: guztira, 65.143 euro.

Laguntza hori emango die Udalak erakundeoi lankidetzaren ekimenetarako (laguntza %95, 61.886 euro) eta sentibiltzazioa jorrazteko (laguntza %5, 3.257 euro).

Laguntza jasoko duten erakundeak dira Medicus Mundi, Fisc Fundazioa, Felix-Baltistan Fundazioa, Doa, Serso San Viator, Garabide Elkartea, Tau Fundazioa, Komite Internazionalistak, Bubisher Elkartea eta Oscar Romero Solidaritza Elkartea.

Eskaria egin duten bi elkartek, Bakerako Lankidetzaren Batzarreak eta Ojos del Mundo Fundazioak ez dute laguntzarik jasoko, ez dituztelako beharrezkoak diren baldintzak bete.

Erakundeen laguntza

| KOPURUA EUROTAN | |
|-----------------------|---------------|
| Medicus Mundi | 6.408 |
| Fisc Fundazioa | 6.991 |
| Felix-Baltistan Fund. | 6.408 |
| Doa | 5.826 |
| Serso San Viator | 6.408 |
| Garabide Elkartea | 6.408 |
| Tau Fundazioa | 6.408 |
| K. Internazionalistak | 5.826 |
| Bubisher | 6.991 |
| Oscar Romero | 6.408 |
| GUZTIRA | 65.143 |

ITURRIA: BERGARAKO UDALA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

**TELEIXA
BILTEGIAK**

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

ROCK-AND-ROLL
SHOW-A
ALEX
"EL HIERRO"
IÑIGO
"CRINES"
AGUSTICO

Urtarrilak 17, igandea
20:00etan

kai taberna
Kruz Gallastegi 3
BERGARA

MUSIKA > ORGANO ESKOLA

San Pedroko organoa jo zuten ikasleek, urtea hasteko

Hamabi lagun dabilta organoa ikasten, iraila ezker, Aitor Olea irakaslearen esanetara

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Joan den astelehenean hasi ziren berriro organo eskolak Santa Marina parrokiako sakristau etxean. Apirilean sortu zen organo eskola Bergaran, eta irailaren 8an eman zuten lehenengo saioa; orduz geroztik, lanpetuta dabil Aitor Olea irakaslea; izan ere, astean hiru egunetan, astelehen, eguazten eta egunetan ematen ditu eskolak Bergaran, eta ikasle bakoitzarekin bakarka jarduten du 45 minutuan; 12 ikaslek dihardute. Ezohiko eskola bat izan zuten urtarrilaren 2an; berezitasun moduan, San Pedro parrokiako organoaren inguruan batu ziren hainbat ikasle Olearekin,

taldeko eskola bat emateko organoen artean harribitxi kontsideratuta dagoen San Pedroko instrumentuaz baliatuta. Eskolak Alemaniatic ekarritako eta bereziki eskolarako erositako organo mekaniko batekin ematen dituzte. Aitor Oleak hauxe dio: "Asmoa da hiru hilabete behin Debarroko eliza bateko organo batera joan gaitezela eta han aritzea, hiru hilabete horretan ikasi dituzten piezak jo dituzten ikasleek".

GAZTETXOAK ETA ERRETIRATUAK

Oleak 12 ikasle ditu Bergaran, eta denetarik: "Bi gazteenak dira 14 eta 15 urteko bi neska, eta hor-



San Pedroko parrokoa, Iñigo Mitxelena; irakaslea, Aitor Olea; eta musika eskolako zuzendaria, Marije Ugalde. JOKIN BEREZIARTUA

tik gorakoan artean, 60 eta 65 urtekoak ere badituzte. Batzuk dira bere garaian formazio bat jaso baina ahaztuta dutenak; pianoa ikasi dutenak baina hori ez dutenak lanbide; banketxean ibiltetik erretiratu bat, abokatu bat... Musika maite dute denek; batzuek zaletasun gisa dute, eta badaude ere musika eskolako

irakasle bat; bi gaztetxoak piano ikasleak dira, eta organoa ikasten dabilta bigarren instrumentu gisa; eta bost organo-joleak dira, baina sakondu nahi dute".

Gipuzkoan beste bi organo eskola bakarrik daude, Bergarako bailaratik kanpokoak ere badatoz: Elorriotik bat eta Elgoibartik beste bat.

BELAUNALDI BERRIA

Eskolaren lehen bultzatzailea izan zen San Pedro parrokia, musika eskolarekin batera. Aitor Oleak dioenez, "helburua da beste organo-jole belaunaldi bat sortzea; haiek izan daitezela zaintzaile eta jarraitzaileak; izan ere, instrumentua mutu gelditzen baldin bada, ahaztu egiten da".

EUSKARA > JARDUN ELKARTEA

Iaz baino 14 amodiozko gutun gehiago lehiaketara, azken urteotako igoerarik handiena

Amodiozko gutunen 18. lehiaketarako 62 lan jaso ditu Jardunek, horietatik hamar Bergarakoak

L.K. > BERGARA

Jardun euskara elkarteak 62 gutun jaso ditu amodiozko gutunen 18. lehiaketako deialdian, iaz baino 14 gehiago. Elkarteak pozik egoteko moduko emaitza izan du aurten, parte-hartzeari begiratuta, behintzat; izan ere, azken urteotako gorakadarik handiena izan du esku-hartzeak, datuei begiratuta: hala, 2007.

urtean, 37 gutun jaso zituzten; 2008an, 38; iaz, 48; eta aurten, 62. Horietatik 37 dira 26 urtetik azpiko kategoriakoak.

LAN GEHIENAK, E-POSTAZ

Ohi bezala, Gipuzkoatik ailegatu dira lan gehienak: 42. Horietatik hamar dira bergararrenak; Debagoienetik 19 jaso dituzte. Bizkaitik 15 gutun bidali dituzte

lehiaketara; Nafarroatik, hiru; Arabatik, bat; eta Hego Euskal Herriatik kanpoko parte-hartzaile bat ere egon da.

Parte-hartzaile gehienak emakumeak dira (41); batez besteko adina da 25-30 urte.

Beste datu deigarri bat da posta elektronikoa aukeratzeko dutela gehienek lanak bidaltzeko orduan: 55ek aukeratu dute, eta beste zazpiek, posta arrunta.

EPAIMAHAIK

Honakoek aukeratu dute irabazlea: Jasone Osoro idazleak, Amaia Agirre bertsolariak, Gotzon Barandiaran idazle eta musikariak eta Imanol Sorondo iazko irabazleak. Bestalde, epaimahai gaztea Ipintzako Maialen Odriozola eta Amaia Azpeitiak eta Aranzadiko Ane Barragan eta Jon Montielek osatuko dute.

> UMEAK

Jolasleku ibiltaria hilaren 24an izango da Osintxun, ez 23an

Jardunen jolasleku ibiltaria Osintxura joango da, lehenengo aldiz, hurrengo aste bukaeran, baina ez zapatuan, hilak 23, hasieran aurreikusita zegoen moduan, baizik eta domekan, 24an; azkenean, aldaketa hori egitea adostu dute euskara elkartekook eta osintxuarrek. Gainerakoa lehendik pentsatuta zegoen moduan egingo dute: hala, jolaslekua auzoko ludotekan izango da, 17:00etatik 19:00etara, eta jolaslekuak ohiko dituen ekintzak egiteko aukera izango dute Osintxuko umeek: eskulanak, musua margetu, dantzak...


> MUSIKA

Alex 'El Hierro' eta Iñigo 'Crines'-en emanaldi akustikoa

Alex *El Hierro* eta Iñigo *Crines* musikariek joko dute etzi, domeka, Kai tabernan. Emanaldi akustikoa egingo dute, gitarra akustikoa eta harmonika bat erabilita. Bikote artistiko horretako kideak dira, batetik, Alex Ferreira musikari esperientziaduna, A la Fuga, Los Padrinos, Replacantes eta Los Ajustadores taldeetan ibilitakoa; eta, bestetik, Iñigo Etxeita, Crines taldea sortu zuena orain bi hamarkada eta orain *berpiztu* egin dena. Bi musikariok oso ezagunak dira Arabako agertokietan, eta Bergaran entzun ahal izango ditugu.

ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

ARANE

KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903



Etxera

eramaten dugu

Edaria, postrea eta tabakoa eramaten dugu

Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Inguruetara + 2 €



943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

> ZIKLOTURISMOA
Lizentziak berritzeko azken eguna, urtarrilaren 31

Zikloturisten denboraldia hasteko hilabete gutxirean faltan, Bergarako txirrindulari taldeko ordezkariak lizentziak berritzen dabiltza burubelarra, eta aditzera eman dute urtarrilaren 31 dela lizentziak berritzeko azken eguna.

Lizentziak berritzeko edo informazio gehiago eskuratzeko bi telefono zenbaki daude erabilgarri: 943 76 39 11 eta 689 20 13 13. Lizentziak berritzeko eskuorriak, berriz, Igar-tua eta Ibi bizikleta dendetan aurkituko dituzue.

> SASKIBALOA
Soraluce BKE Beasainera joango da bihar puntu bila

Senior mailako gizonen arteko Beasainera joango dira bihar (18:30, Antzizar kiroldegia) ligako hamalagarren jardunaldia jokatzera.

Autorecambios Goierri taldea sailkapenean atzealdean dabil, baina Bergara da sailkapeneko azken lekuan dagoena, 12 puntu batuta (partidu bat gutxiagorekin). Kategoria berrira moldatzea asko kostatzen ari zaio Bergarako taldeari, baina oraindik hamahiru jardunaldi dituzte aurretik.

> PILOTA
Lau t'erdiko torneoko kanporaketa bat jokatu dute gaur

Gaur bertan hasiko da Bergaran asteburuko pilota eskaintza. 20:00etan 4 t'erdiko torneoko kanporaketa bat jokatu dute, baina arratsaldeko norgehiagoka bakarra izango da.

Bihar, 16:00etan alebinak izango dira lehenengo, Gipuzkoako txapelketan. Ondoren, Euskal Ligan lehiatuko dira kadete eta gazte mailakoak, eta arratsaldeko azken partiduetan Udaberri Txapelketa egongo da jokoan.

ESKUBALOIA > LEHEN TERRITORIALA

Soraluce Bergara goiko postuei begira dago

Azken hiru partiduak irabazita, Muniategiren mutilek geroago eta gertuago dute liderra

XABIER URTZELAI > BERGARA

Lehen territorial mailako Soraluce Bergara igoera faseko postuetatik gertu dago –egungo sailkapena behin-behinekoa da, joan den asteko partidu batzuk jokatzeke daudelako–, eta hori lortzeko ezinbestekoak izan dira Bergarako jarraian lortu dituen hiru garaipenak. Josetxo Muniategiren taldea une gozoan dago: "Eta, harrigarria bada ere, liga hasierako talde bera gara, min hartuta zeudenak ez dira errekupeatu, eta ez dugu aldaketarik izan. Baina orain talde moduan jokatzen gabiltza, hor dago alde han-

diena, eta defentsan ere askoz ere lan zorrotzagoa egiten gabiltza".

IGOERA FASERAKO SAILKATU

Lider dagoen Elgoibar lau puntura dago, baina garrantzitsuen lehenengo hiru taldeen artean egotea da, igoera faserako txartela emango duten postuetan: "Iaz berandu erreazionatu genuen, azken bost partiduetan ibili ginen ondo, baina ordurako berandu zen aurrera egiteko. Orain, hamahiru jardunaldi gertatzen zaizkigu ligako lehenengo fase hau amaitzeko. Eta bigarren itzuli honetan garrantzitsua izan-

go da makalaldi handirik ez izatea", adierazi du Bergarako entrenatzaileak.

DOMEKA GOIZEAN DONIBANERA

Domekan (10:45) Pasai Donibanera egingo du bidaia Soraluce Bergarako, sailkapenean bederatzigarren lekuan dagoen taldearen kontra jokatzea: "Guretako ez da partidu erraza izango, modu anarkikoan jokatzen dutelako. *Saskieskubalo*i egiten dute haiek, jokalariek onak dituzte, baina nor bere kontura ibiltzen da, eta ez dut batere atsegin euren kontra jokatzea. Gainera, domekan oso goiz egin beharko dugu bidaia, eta hor ere lan egin beharko dugu, jokalariek hotz kantxaratu ez daitezen".



Gorka Uribe bergararra jaurtiketa egiteko gertu Ereintzaren kontrako partiduan.

JOSETXO ARANTZABAL

zaldibar

EMAITZAK

| | |
|---------------------------------------|------|
| Alytis-Zigalikatis | 6-4 |
| UD Akabaok-Komando piperrak | 8-6 |
| Diego valor ileapaindegia-Los Latinos | - |
| CM Errota-Gain-Internacional | 10-0 |
| LSJ-Monte Taberna | 5-8 |
| Niu Tim-Irish Pub | 9-6 |

PARTIDUAK

| | |
|-------------------------------------|-----------------|
| Urtarrilak 17, domeka (bar.) | Epalleak |
| 09:30 Niu Tim-CM Errotagain | Monte Tab. |
| 10:30 CM Errota-gain-Monte Tab. | Niu tim |
| 11:30 Niu Tim-Alytis | UD Akabaok |
| 12:30 UD Akabaok-Diego Valor il. | Alytis |
| 16:00 Komando Pip.-Los Latinos | Interna. |
| 17:00 Internacional-LSJ | K.Piperrak |
| 20:00 Irish Pub-Zigalikatis | Antolakuntza |

SAILKAPENA

| | P | J |
|---------------------|----|----|
| 1. CM Errota-gain | 33 | 11 |
| 2. UD Akabaok | 30 | 12 |
| 3. Niu Tim | 27 | 11 |
| 4. Diego Valor | 24 | 11 |
| 5. Los Latinos | 24 | 11 |
| 6. Alytis FK | 24 | 12 |
| 7. Komando Piperrak | 13 | 12 |
| 8. Zigalikatis | 9 | 12 |
| 9. Internacional | 7 | 12 |
| 10. Irish Pub | 6 | 12 |
| 11. Monte Taberna | 6 | 12 |
| 12. LSJ | 3 | 12 |

Bigarren itzuliko lehenengo jardunaldia, ederra

Domekan izango diren partiduei begira, jardunaldi ederra izango da Labegarrietan. Batetik, atzeratutako partiduak jokatu dute lehenengo eta hirugarren dauden Errota-Gainek eta Niu Timek. Horrekin batera, 12:30ean UD Akabaok eta Diego Valor ileapaindegikoak izango dira aurrez aurre; hau da, bigarren eta laugarren sailkatuaren arteko lehia. Oraingo asteburuan ez da txapelketarik erabakiko, baina batek baino gehiagok aurrerapauso galanta egin dezake.

Bestalde, antolatzaileek aditzera eman dute urtarrilaren 31n amaituko dela nortasun agiri guztiak entregatzeko epea. Hori egiten ez dutenek ezingo dute jokatzera jarraitu.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Argakia Kiur

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

Giza eskubideen urraketa jasandakoak omendu gura dituzte

Hiru metro izango ditu, korten altzairuan eginda dago eta herdoilduta geratuko da

Astean moztu dituzte piezak eta datorrenean muntaia egingo dute

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Deba ibaiaren beste aldean Ortuzaletza enpresa egiten dabilen etxebizitzaren artean lehen CVL lantegia-plazatxo bat dago, Iturrizar plaza. Bertan giza eskubideen aldeko eskultura jarzea erabaki zuen udalbatzak orain dela hilabete batzuk. Eskultura hori Iñigo Arregi arrasatearrak egingo du.

KORTEN ALTZAIRUZKOA

Hiru eskultorek bidali zituzten euren zirriborro eta maketak udaletxera eta Hirigintza batzordeak aho batez onartu zuen Arregiren proposamena. Hiru metro izango ditu, ezaugarri oso bereziak dituen korten altzairuan eginda egongo da eta herdoilduta geratuko da: "Hain zuzen, herdoil hori babesgarria da. Eta gero naturak bere lana egingo du eskulturarengan", azaldu digu Arregik. Giza eskubideak gai hartuta sortu du eskultura, baina azalpen gehiago ezin duela eman dio: "Ez da figuratiboa, ez abstraktua; sujerentziak daude.

UDALA > HIRIGINTZA

Iñigo Arregiren eskultura jarriko dute Iturrizar plazan



Deba ibaiaren beste aldean egin berri duten Iturrizar plazan izango du kokalekua giza eskubideen aldeko eskulturak.

M.A.

Nire lana ezagutzen duenak antzemango du".

Aste honetan moztu dituzte piezak eta datorrenean muntaia egingo dute Arrasateko Epele gal-daragintza lantegian. Eta dato-

ren astean bertan gertu izango dela jakinarazi du.

GIZA ESKUBIDE GUZTIEN ALDE

Iaz abenduaren 10ean bete zen Giza Eskubideen Adierazpen Uni-

bertsalaren 60. urteurrena, eta udalbatzak erabaki zuen eskultura batekin omentzea giza eskubideen urraketak jasan dituzten guztiak: "Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren defentsa-

ren eta sustapenaren aldeko konpromisoaren adierazle moduan eta eskubide urraketak jasandako guztiei omenaldi, ordain, errespeta eta aitortzaren sinbolo moduan jarriko da eskultura".



M.A.

Sahararako elikagaiak jasota

Sahararen alde lan egiten duen Iesbaa elkarteak elikagaiak jaso ditu aste guztian Arizmendiko Basabeazpi gunean eta Kurtzebarri eskolan. Urtero legez, arroza, makarroiak, dilistak, kontserbak oliotan, azukrea eta konpresak eskatu dituzte eta gaur da elikagaiok emateko azken eguna. Bestalde, kamioiak erosteko diru-laguntza eman gura dutenek Euskadiko Kutxara jo dezatela.

GIZARTE ZERBITZUAK > ETXERIK ETXEKO LAGUNTZA

Gizadik jarraituko du zerbitzua ematen

Hiru enpresa aurkeztu ziren lehiaketara eta Gizadiri eman diote beste lau urterako

M.A. > ARETXABALETAKO

Lau urtean behin egiten du lehiaketa deia Udalak etxerik etxeoko laguntza zerbitzuaren ardura emateko. Azken urteotan Arrasateko Gizadi enpresak izan du ardura hori eta datozen laurutan ere hark izango du.

ORDUA 18,07 EUROTAN

Hiru enpresa aurkeztu ziren Udalak egindako lehiaketa deira: Eulen, Bizitzen Fundazioa eta Gizadi. Gizarte Zerbitzuen batzordeak aztertu egin zituen hiru eskaintzak eta Gizadik jaso zituen puntu gehien. Ondoren, udalbatzak aho batez berretsi zuen erabakia abenduko osoko bilkuran.

Udalak onartutako oinarrietan 18,07 eurotan zehaztu zuen



Adineko bat lagun batekin alboan, parke baten.

GOIENKARIA

herritarren arreta ordua eta Gizadik kopuru bera eskaini zuen.

10 URTE HERRIAN

Dagoeneko 10 urte bete ditu Arrasateko enpresak etxerik etxeoko zerbitzua eskaintzen herrian.

Langile aretxabaletarrak ditu horretarako, 23, eta 2013aren abendura bitartean Gizadirekin jarraituko dute haiek.

Bi eratako zerbitzua eskaintzen dute: pertsonala -norberaren garbitasuna, paseatzea...- eta etxeoko lanak egitea.

EUSKARA > LEHIAKETA

Deituta dago 21. Loramendi literatura lehiaketa

Lanak aurkezteko epea aldatu egin dute eta urtarrilaren 27a da, 'Loramendi' poetaren jaioteguna

M.A. > ARETXABALETA

21. literatura lehiaketa deitu du Loramendi euskara elkarteak. Urtero legez, Aretxabaletan bizi edo ikasten duten 8 eta 16 urte arteko neska-mutikoei har dezakete parte. Aurreko urte-etan abendurako deitu dute lehiaketa eta urtarrilaren 27aren bueltan banatu sariak; aurten, lanak aurkezteko epea bukatuko da urtarrilaren 27an –Loramendi poeta jaiotzen eguna– eta sariak martxoaren 5ean banatuko dituzte.

IPIUNAK ETA BERTSOAK

Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetan dauden umeek; hau da, 8 eta 12 urte

artekoei ipuinak eta bertsoak aurkez ditzakete. Lan guztiek euskaraz izan behar dute, eta argitaratu bakoak. Ipuinari dagokionez, gutxienez orri batekoa izan behar du eta gehienez hirukoa. Bertsoen sailean, oster, bi bertso egin behar duzute ikasleek, gura duten neurrian.

ESKETXAK EDO FILM LABURRAK

DBHko ikasleek, 12 eta 16 urte artekoek, bertsoak, maitasun gutunak eta esketx edo film laburrak egingo dituzte. Azken atal hori berria da –aurten ez daude komikiak eta grabazioak– eta, edozein baliabide erabilita –telefonoa, argazki kamera, bideo kamera...–, bi eta hamar minutu arteko grabazioa aurkeztu behar du DVD formatuan. Baldintza bakarra dago: elkarriketak agertzea.

Lan guztietan originaltasuna eta bertako euskara erabiltzea baloratuko dituzte epaimahaiko kideek.



Musika eskolako kideek eskainitako Gabonetako kontzertu barruan, bandaren emanaldia.

MUSIKA ESKOLA

MUSIKA > BANDA

Banda sortu du musika eskolak eta hogeiki kide inguru ditu

Urtebete pasatxo da entseguak egiten hasi zirela eta lehen emanaldiak gurasoen aurrean egin dituzte; erronken artean dago jaietan jotzea

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

8 eta 13 urte arteko neska-mutikoei osatzen dute Aretxabaleta-ko banda. Leizarra musika eskolako ikasleak dira guztiak eta Jon Lopez irakaslearen zuzendaritzapean egiten dute lan. Astelehenero elkartzen dira entseguak egiteko eta "oso gustura dabiltzala" onartu dute guztiek. Asko dauka ibiltzeko oraindik urtebete pasatxo duen bandak,

baina kideen ilusioa handia da, eta, lanerako gogoia behar bezala bideratuz gero, emango du zeresana.

Banda osatzen duten instrumentuak dira klarineta, saxofoia, flauta, biolontxeloa, tronpetta, tronboia eta perkusioa. Lopez zuzendariak onartu du instrumentu-jotzaile gutxi dituztela, eta horregatik, helduak bandara gerturatu daitezkeen gura du.

HELBURUAK BETETZEKO, DIRUA

Banda gazte horrek ez dauka helburu zehatzik, baina gaztetxoek argi dute zer lortu gura duten: herriko jaietan jotzea eta kanpora joatea. "Baina horretarako dirua behar dugu, uniformeak erosteko, esaterako, eta eskertuko genuke Udalak laguntzea", diote argi eta garbi.

Dagoeneko hasi dira emanaldiak egiten; iazko ekainekoan, esaterako, UDAREN himnoa jo zuten, herritarren gozamenerako. Gabonetako emanaldia ere arrakastatsua izan zen; ikusleek abestiak errepikatzen eskatu zieten txalo artean.

> ZERBITZUAK

Udalak bidalitako informazioa lau lekutan jasoko dute herritarrek bluetooth sistema erabilita

Herritarrak informatuta izatearen aldeko apustua egin du Udalak, eta teknologia berriek paregabeko aukera eskaini diote. Hala, bluetooth sistema erabilita poltsikoko telefonoan jasoko dute informazioa herritarrek. Lau leku egokitu dituzte horretarako: euskaltegia, Zainduz gimnasioa, Durana kaleko 30. atarrea eta Arkupe kultura etxea. Kulturari dagozkion albisteak bidaltzen dituzte orain –Arkupeko egitaraua, jai egitarauak...–, baina asmoa da herritarrendako interesgarriak diren ohar guztiak bidaltzea.

oharrak

ZINEMA

> 'Millenium 2' helduek eta 'Dos canguros muy maduros' umeek

Gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenan (16:00) *Millenium 2* filma dute helduek eta domekan (17:00) *Dos canguros muy maduros* ume eta gazteek.

GAZTEAK

> Wii txapelketa eta eskulanak Atxagazte gaztelekuan

Bihar wii txapelketa jokatuko dute (17:00) eta domekan eskulanak egingo dituzte matxe paperarekin (17:00).

GAZTETXOAK

> Mahai jolas txapelketa domekan ludotekan

Mahai jolasetan jardungo dute 8 eta 12 urte artekoek.

DANTZAK

> Dantza afroamerikarren ordutegian aldaketak

Jaiki elkarteak antolatutako dantza afroamerikarren ikastaroak ordutegi berria du martitzenetan: 18:30-20:00.

argazki zaharra



Bedarretako futbol zelaia inauguratzen

Aurten beteko dira 60 urte Bedarretako futbol zelaia inauguratu zutena –1950eko abuztuaren 27an–. Izugarritzko jendetza batu zen Athleticen eta Eibarren arteko partidua ikusteko, eta bilbotarrek irabazi zuten (3-1). Aretxabaletar bik jokatu zuten Athleticen:

kin: Bixente Etxeandiak eta Fermin Lasagabasterrek. Lau urte iraun zuen futbol zelaia Bedarreta auzoan; 1954an Ibarra inauguratu zuten Alavesen eta Eibarren arteko partidua jokatuta.

Futbol zelai bat zein bestea bete egiten zirela sasoi baten

gogorarazi gura du aretxabaletar batek, eta dio orain ere herritarren berotasuna behar dutela jokalariek. Domekan dago hori erakusteko aukera.

Argazkia: Learko Gerra.

Testua: Bixente Etxeandia eta Learko Gerra.

Urtea: 1950.



Sorautz-Aingeru Guarda bidegorri tartearen hasiera Olazar auzoan, Sorautz baserria atzean dagoela.

M.A.

UDALA > HIRIGINTZA

Arauen aldaketatxo bat egingo dute Olazarren

Arau subsidiarioen edozein aldaketa egiteko parte-hartze prozesua deitzera dago behartuta Udala, eta dokumentuak ikusgai daude udaletxean

MIRARI ALTUBE > ESKORIATZA

Arau subsidiarioen aldaketa puntuala onartu du Udalak Olazar auzoan. Abenduaren 28an egindako ezohiko osoko bilkuran egin zuen udalbatzak hasierako onarpena, eta urtarrilaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri. Behin betikoa onartu aurre-

tik, baina, parte-hartze prozesua abian jartzera dago derrigortua 2006ko Lurzoruari eta Hirigintzari dagokion legeak jasotako moduan. Hori horrela, interesa duten herritarrek aldaketa horren berri duten dokumentuak aztertu ahal izango dituzte, eta iradokizunak aurkeztu. Horretarako,

ia bi hilabete dituzte, otsailaren 26a arte, eta informazioa Udalaren webgunean *-www.eskoria-tza.net-* eta udaletxeko Hirigintza bulegoan dago eskura. Hirigintza bulegoko ordutegia honakoa da: egunero goizez (10:00-13:00) eta eguenetan arratsaldez ere bai (15:00-17:00).

BIDEGORRIAREN IBILBIDEA

2002. urtean onartu zituen arau subsidiarioak Eskoriatzako Udalak, eta orain, Olazar auzoari, bereziki Sorautz baserri inguruari dagokion arau partikular baten aldaketa jarri du abian. Sorautz baserriko jabeek eta Udalak hitzarmena sinatu zuten 1999an. Jabeek hainbat lursail eman zizkioten Udalari eta trukean etxeak egiteko aukera izango zuten. Adostutakoa berrikus-terakoan, baina, konturatu dira akats batzuk daudela hitzarmenean. Batetik, mugei dagozkien akatsak, dokumentuetan jasotako lursail batzuk saihebidetaren desjabetzei dagozkielako, eta ondorioz, Aldundiarenak direlako. Eta bestetik, arauetan jasota dagoen bidegorriaren ibilbideak aldaketak izan dituelako. Izan ere, aurreikusitako moduan egi-

tea ezinezkoa zen, aldapa handia sortuko litzatekeelako.

Akats horiek zuzenduko dituzte orain egin gura duten aldaketa puntualarekin, eta ondo zehaztuta utzi Olazar ingurua arau subsidiarioetan. Hala, muga berriak jasoko dituzte eta bidegorriaren trazatu berria ezarri. Gainera, errekaaren alboan oinezkoendako beste ibilbide bat egingo dute, hiru metrokoa.

Bestalde, erabakita dago trenbide zaharraren ibilbidea erabiltzea bidegorriarendako, trenaren tunela izandakotik pasatuko da; hau da, hilerrri azpitik. Lanok Construcciones Mariezcurrena enpresari esleitu zizkioten udaberrian, baina oraindik ez daude hasita.

Zehaztasun horien guztien berri jaso gura duenak udaletxean ditu dokumentuak.

BIBLIOTEKA > LITERATURA

Rai Bueno eta Juan Luis Zabala idazleak izango dira datorren astean ikasleekin

'Fatima' eta 'Galdu arte' liburuen egileak gaztetxoek galderak erantzungo dituzte bibliotekan

M.A. > ESKORIATZA

Hainbat euskal idazle pasatuko dira hilabete honetan bibliotekatik ikasle eta irakurle gazteekin egoteko. Galderak egingo dizkiete haiek, eta idazleen sekretuak entzun gurako dituzte.

Martitzenean, hain zuzen, Mikel Valverde marrazkilari eta idazle gasteiztarra hartu zuten

Lehen Hezkuntzako ikasleek. Rita pertsonaia sortu eta haren hainbat abentura kontatu dituen Valverderen azalpenak harrituta jarraitu zituzten gaztetxoek: "Kontuak kontatu bitartean, ia begiratu ere egin barik egin ditu marrazkiak, eta zelan, gainera! *Shola* txakurra, *Rita...* di-dabaten eginda", zioen 10 urteko

ikasle batek. Hain zuzen, *Rita* sailleko liburu berri bat izango dela laster kalean iragarri zien bertan elkartutakoei.

PUNK MOBIDA NOBELAN

Datorren astean beste bi idazle gerturatuko dira. Martitzenean, hilak 19, Rai Bueno idazle eta ipuin kontalaria izango dute aurrez aurre Lehen Hezkuntzako neska-mutikoei. Laz argitaratutako *Fatima* liburu hunkigarriaren gainean jardungo dute eta

ipuinak zelan asmatzen dituen jakin gurako dute gaztetxoek.

Eguaztenean, osteran, Juan Luis Zabala hartuko dute batxilergoko ikasleek. Azkoitiko kazetari eta idazleak hainbat alor jorratu ditu: poesia, nobela, narrazioa, blogak... Oraingoan, baina, 1996an argitaratutako *Galdu arte* liburua izango du berba-gai gaztetxoekin. 1980ko hamarkadako punk mobida eta gazte-txetako giroa jasotzen dituen nobela da, hain zuzen.

> ELKARTASUNA
Saharara bidaltzeko elikagaiak jasotzen dabil Eingeinke

Aste guztian dabil Eingeinke elkarteak Saharara bidaltzeko elikagaiak jasotzen. Arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea eta sardinak oliotan eta azukrea gura dituzte, baita konpresak ere. Almen, Jose Arana eta Luis Ezeiza ikastetxeetan, Coviran dendan eta udaletxean utz daitezke jatekoak eta bihar da horretarako azken eguna.

Bestalde, Eingeinkek gogorarazi gura du egubakoitz guztietan (18:30) izaten dutela bilera ludotekako lokalean eta interesa dutenendako ateak zabalik dituztela.

MUSEOA > ONDAREA

Atxorrotzeko materialaren erakusketa gaur bukatuko da

Indusketa arkeologikoetan aurkitutakoa ikusteko hilabete izan da

Jasotako materiala aztertzerazeroango dute orain, eta gero Aldundiak jasoko du

MIRARI ALTUBE > ESKORIATZA

Hilabete izan dute herritarrek Atxorrotz mendiko gaztelu zahararen aztarnak ezagutzeko. Udazkenean egindako indusketa arkeologikoetan aurkitutako materiala ikusgai izan dute Ibarraundi museoan eta gaur da erakusketaren azken eguna. Material hori guztia aztertzerazeroango dute orain eta urtebeteko lana izango dute adituek. Ondoren, Aldundiaren eskuetan geratuko da Eskoriatzako ondarea, baina, museoak eskaera eginez gero, erakusketak antolatzerazeroa izango dela uste dute Ibarraundiko arduradunek.

ESKORIATZAR ASKO IKUSLE

Indusketa lanetan egindakoa eta aurkitutakoa ezagutaraztea zen proiektuaren helburuetako bat



Gaur ilunkaran kenduko duten Atxorrotzeko aztarnen erakusketa Ibarraundi museoan.

M.A.

eta lan horietan ibilitako Larrate enpresako arduradunek emandako azalpenekin hasi zuten erakusketa azaroan. Museoko arduradunek jakinarazi dute eskoriatzar asko pasatu direla azken hilabetean bertatik: "Atxo-

rorotz mendia oso esanguratsua da eskoriatzarren artean, eta hori igarri egin dugu". Kanpotarren artean, osteraz, ez du aparteko eraginik izan albisteak.

Esku errota baten errotarria, balezta-punta bat, lantza bat,

ezpata bat, txanponak, fauna aztarna batzuk eta beste hainbat objektu topatu zituzten Atxorrotzen eta horietako gehienak daude gaur ilunkara arte ikusgai, argibideek eta argazkiek lagun eginda.

KIROLAK > TARIFAK

Hiru hilabeterako bonuak kiroldegian

Kantxa kiroletarako ez den beste ekintza batzuetarako alokatzeko tasak finkatu dituzte tarifa berrietan

M.A. > ESKORIATZA

Urte berria hastearrekin batera, kiroldegiko tarifa berriak daude indarrean. Aurten, baina, ez dute aldaketarik igarriko erabiltzaileek. Hala, familia abonua 128,90 euro izango da; banakako abonua, 94,30 euro -18 urtetik gorakoak-; eta txartel bateratu familiarra, 194 euro.

HIRU ALDAKETA

Hiru aldaketa aipagarri baka- rrik egin dituzte tarifetan, eta

hirurak, kiroldegiko zerbitzua hobetze aldera.

Orain arte urte guztirako eta urte erdirako abonua zeuden aukeran, baina hemendik aurrera hiru hilabeterakoak ere eskainiko dituzte. Familia abonua kasuan 33,35 euro izango da eta banakako abonua kasuan 28,45 euro. Bestetik, Eskoriatzan erroldatutako familia ugari Udal Kiroldegiko abonuan egiten dieten bonifikazio bera aplikatuko diete txartel bateratuan ere.

Gainera, kantxa kirol jardueretarako ez den beste ekintza batzuetarako errentan hartzerazero prezioak finkatu dituzte: egun erdia, 750 euro eta egun osoa, 1.500 euro. Kultura, hezkuntza edo antzeko ekintzetarako erabiltzen bada, ez diote kobratuko tasarik -dagokion batzordeak hala erabakiz gero.

EMAKUMEAK

'Pentsaera positiboa' hitzaldia eguaztenean

M.A. > ESKORIATZA

Amuska emakumeen elkarteak *Pentsaera positiboa* izeneko hitzaldia antolatu du eguaztene- rako, hilak 20, (18:00); kultura etxean izango da.

OSASUN PSIKOLOGIKOA

Adinekoei eta adinekoekin lan egiten dutenei laguntzea helburu duen Adindu Gerontologia Zerbitzuak enpresako Sonia Ula- zia psikologoa izango da eguaz- teneko hizlaria, eta era positiboan pentsatzeak dakartzan onuren berrri emango diete elkartutako- ei. Osasun psikologikoa zaindu beharra dagoela gogoraraziko du, eta era positiboan pentsatzen ikasi egin daitekeela jakinarazi. Horretarako zein oinatz eman erakutsiko die, norberak topa dezan bidea.

oharrak

SASKIBALOA

> Kadete mailako partidua

Bihar (10:00) kiroldegian kadeteen partidua: Eskoriatza KE-Colchones Otseden OKE.

ARETO FUTBOLA

> Ohorezko ligako partidua

Bihar (16:00) kiroldegian ohorezko mailako taldeen arteko partidua: Eskoriatza KE-Izarra Gorri CF.

ARETO FUTBOLA

> Euskal Ligako partidua

Bihar (18:00) kiroldegian Euskal Ligako taldeen arteko partidua: Eskoriatza KE-Kurutziaga ikastola.

KONTZERTUA

> Anger taldea Inkernun

Hilaren 22an, egubakoitza, Anger taldearen kontzertua Inkernu tabernan (23:00).

MUS TXAPELKETA

> Euskal Herriko II. mus txapelketa

Hilaren 24an jokatu- ko dute Inkernu tabernan.

BIBLIOTEKA

'Hizkietatik a bilduetara' orri-puntua 2010erako

Iratxe Marurik egindako lana da, hark irabazi zuen-eta lehiaketa

M.A. > ESKORIATZA

Lehiaketa deitu zuen Udal Bibliotekak urrian 2010eko orri-puntua aukeratzeko. Abenduaren 14a arte izan zuten interesatuek lanak aurkezteko epea eta 39 jaso zituzten, inoiz baino gehiago. Ume, gazte eta helduek, ikasleek eta adituek hartu zuten parte eta aukeraketa ez zen samurra izan epaimahaiko kideendako. Saria Sodupeko (Bizkaia) Iratxe Marurik jaso zuen, *Hizkietatik a bilduetara* izeneko lanagatik: 250 euro, hain zuzen ere.

Letrak sustrai dituen eta Eskoriatza enbor duen zuhaitzak eta a bilduekin osatutako hodeiek osatzen dute aurtentzen bibliotekan erabiliko duten orri-puntua; dagoeneko eskuragarri dituzte. Sari- rik jaso ez duten gainerako orri-puntuekin erakusketa egingo dute datorren astean bibliotekan.



Orri-puntu irabazlea.

BIBLIOTEKA

KULTURA > DIRULAGUNTZAK

15.922 euro banatuko ditu Udalak kultur eta gazte taldeen artean

Zortzi kultur taldek eta Potemkin, Show Business eta Black River musika taldeek jasoko dute dirua

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Kultur taldeei eta gazte taldeei urteko dirulaguntzaren bigarren zatia banatuko die Udalak datozten egunotan. Guztira, 15.922 euro banatuko ditu, ia 12.773 kultur taldeen artean, eta gainera, gazte taldeen artean.

Jasoko duten diru kopurua 2009rako Udalak zehaztu zuen aurrekontuaren erdia da. Gainerako %50a, uztailean, oporren aurretik jaso zuten.

BOST ABESBATZA

Kultur taldeendako laguntza zortzi talderen artean banatuko dute, eta bakoitzak urte osorako aurrezkitutako ekintzen arabera jaso-

ko dute dirua. Beste behin, Oñatz Dantza taldeak jasoko du diru gehien. Guztira, 4.606 euro jasoko du.

Musika taldeek ere euren laguntza izango dute. Ganbara Txiki eta Txikitxo abesbatzen artean 3.120 euro banatuko dituzte. Beste abesbatza batzuek ere jasoko dute Udalaren laguntza: hain zuzen ere, parrokiako bi abesbatzek eta Oñati Abesbatzak. Elizkizunetan egiten duten lana eskertzeko eta hobetzen laguntzeko, parrokiako emakumeen abesbatzak ia 300 euro jasoko ditu, eta gizonezkoenak ia 600. Azkenik, Oñati Abesbatzak 1.521 euro hartuko ditu.

PINTURA ETA ARGAZKILARITZA

Bestalde, herrian pintura eta argazkilaritza sustatzeko egiten duten lanagatik laguntza jasoko dute Oñart pintura taldeak eta Ilunpetan argazki taldeak. Hain zuzen ere, Oñart-ek 868 euro hartuko ditu, eta Ilunpetan-ek 825 euro. Azkenik, herrian egoitza ez

duen arren, idazten dituen liburuengatik, Eusko Ikaskuntzak 933 euro jasoko ditu.

DISKOA GRABATZEKO LAGUNTZA

Bestalde, herriko gazte taldeek urteko laguntzaren bigarren zatia jasoko dute. Hain zuzen ere, Potemkin, Show Business eta Black River taldeek 1.050na euro jasoko dituzte. Hiru taldeek disko berriak grabatu ahal izateko dirua eskatu zuten. Izan ere, ekintza ezberdinak egin ahal izateko laguntza eskatu zezaketen; besteak beste, urteko programazioa egiteko; elkarrekin sustapenerako; kultur sormenerako; materialaren erosketarako eta eraberritzaerako; eta ez-ohiko jardueretarako. Talde bakoitzak egindako jardueraren gaineko txosten grafikoa aurkeztu behar izan du.

DATUA

8

KULTUR TALDE

Udalak 12.773 euro zortzi kultur talderi emango die, eta gainerako 3.050 euroak Potemkin, Show Business eta Black River taldeei emango die diskoa graba dezaten.



Show Business taldeak bigarren diskoa grabatzeko dirulaguntza eskatu du Udalean. 1.050 euro jasoko dituzte.

GOIENKARIA

KIROLA > APUSTUAK

173.285 euro irabazi ditu kinielan 15ekoa asmatzeagatik

Kordoba-Rayo lehia bertan behera geratuta, 11. laukitxoko ikurra zozketaz erabaki zuten

M.B. > OÑATI

Dirutza handia egokitu zaio oñatiar bati, aste bukaerako kinielako 15 emaitzak asmatzeagatik 173.285 euro irabazi ditu-eta. Txartela Irizar Administrazioan zigilatuta zuten. Hango arduradun Jaime Irizarrek esan digu oso

zaila dela irabazlea nor den jakitea: "Astero kiniela asko zigilatzen ditugu. Halakoetan ezinezkoa da irabazlea ezagutzeko, baldin eta berak ez badu esaten".

ZOKKETA BIDEZ

Txiripaz asmatu zuen oñatiarrak kiniela. Izan ere, 11. laukitxoko partidua, Kordoba-Rayo Vallecano, elurragatik bertan behera gertu zen, eta haren ordezkoa zozketa bidez erabaki zuten. Azkenean 2 izan zen 11. laukitxoa jarri beharreko ikurra.

JENDARTEA > DEIALDIA

Urteko lehen odol-ateratzea egingo dute arratsaldean

M.B. > OÑATI

Herriko odol emaileen taldeak urteko lehen ateratzerako deialdia egin du. Hain zuzen ere, gaur egingo dute ikastolako aretoan 18:00etatik 20:00etara arte. Gainera, urteko bederatzita deialdiak noiz egingo dituzten zehaztu dute: hilero bat, uztailean eta abuztuan izan ezik (ikus ondoko taula). Odol-emaile guztiak jaso dute urteko egutegia etxean. Emakumeek urtean hiru alditan eman dezakete odola, eta gizonezkoek lau alditan.

Urteko odol-ateratzeak

- > Otsailaren 5a
- > Martxoaren 12a
- > Apirilaren 16a
- > Maiatzaren 7a
- > Ekainaren 11
- > Irailaren 10a
- > Urriaren 8a
- > Azaroaren 12a
- > Abenduaren 10a

ITURRIA: OÑATIKO ODOL EMAILEAK

beteranauk

EMAITZAK

Joxely-Etxaikat bertan behera
Xaguxar-Jai Ari b. b.
Txuskos-Nandrolona b. b.
Kalañatasaray-Ankarteko b. b.
> Atsedena: Txarrixak

PARTIDUAK

A TALDEA, URTARRILAK 16
13:00 Gibel Boys-Lozorromo/ Moli
14:30 Dollygans-Bundeswehr/ Marku
16:00 Zorro Bero-Albok/ Albok
17:30 Sasquatch-Indar 85/ Arrilla
> Atsedena: Gaur Bai
> Arduraduna: Kalañatasaray

B TALDEA, URTARRILAK 16
19:00 Joxely-Etxaikat/ Inadr 85

B TALDEA, URTARRILAK 17
13:00 Xaguxar-Jai Ari/ Lazkano
> Arduraduna: Gaur Bai

SAILKAPENA

| A TALDEA | P | J |
|-------------------|----|---|
| 1. Zorro Bero | 12 | 4 |
| 2. Dollygans | 9 | 4 |
| 3. The Gibel Boys | 7 | 3 |
| 4. Gaur Bai | 6 | 4 |
| 5. Sasquatch | 4 | 4 |
| 6. Indar 85 | 4 | 4 |
| 7. Lozorromo | 1 | 3 |
| 8. Albok | 1 | 3 |
| 9. Bundeswehr | 1 | 3 |

| B TALDEA | P | J |
|------------------|---|---|
| 1. Txarrixak | 9 | 4 |
| 2. Txuskos | 8 | 4 |
| 3. Joxely | 7 | 4 |
| 4. Kalañatasaray | 6 | 4 |
| 5. Xaguxar | 5 | 4 |
| 6. Ankarteko | 4 | 3 |
| 7. Nandrolona | 4 | 3 |
| 8. Etxaikat | 1 | 3 |
| 9. Jai Ari | 0 | 3 |

Partiduak ez ziren jokatu elurragatik

B taldearen 5. jardunaldiko partidua bertan behera geratu ziren elurragatik joan den asteburuan. Bestalde, hurrengo bi aste bukaeratan (hilaren 23-24, eta 30-31), Aloña Mendiko eta eskola arteko partiduetatik ez dituzte atzeratutako partidurik jokatu.

> TARIFAK

Zinemako sarrerak 0,50 euro garestitutako dituzte aurrerantzean

Kultura etxeko zinema aretoko sarrerak 50 zentimo garestitutako dituzte aurrerantzean. Hala, helduen saioetako sarrerak 4,50 euro balioko dute; astelehenetako ikusle-eguneko sarrerak 3,50 euro; haurren saioetakoak 3,50 euro; eta zineklubeko sarrerak 4,50 euro. Prezio berriak eguneko zineklub emanalditik daude indarrean, eta aste bukaerako saio guztietan aplikatuko dituzte.

Kultura etxeko zinema aretoko prezioak indarrean zeuden 2003. urtetik.

ELKARTASUNA

Sahararen aldeko kanpaina martxan da

Kanpainaren helburua elikagaiak batu eta Saharara bidaltzea da

A.E. > ANTZUOLA

Saharako herriaren lagunak euskal elkarteak elkartasun kanpaina jarri du abian, beste urte bezela. Kanpainaren helburua Saharako herriari elikagaiak bidaltzea da, jasaten duten elikadura egoera larria arintzeko.

Antzuolan, Eskolan, Aixan fruta dendan, Eroskin eta Kalebarren dendan jasoko dituzte elikagaiak.

HILAREN 22RA ARTE

Martitzenean hasi zuten kanpaina eta hilaren 22ra arte iraungo du. Batuko dituzten elikagaiak hauek dira: hegazuak eta sardinak oliotan, arroza, azukrea, pasta, leka-leka eta konpresak.

Antzuolako Udalak, Eskolak eta Anelkarrek lagundutako kanpaina da.

> KULTURA

Nikaraguaren gaineko hitzaldia eta erakusketa

Ima Escribanok eta Iñaki Agiriano egingo dute hitzaldia martitzenean, hilaren 19an, Olaran etxean, 19:00etan. Kainabera gobernuz kanpoko erakundeko kideak dira Escribano eta Agiriano. Hitzaldiaren gaia izango da: *Gure proiektuak Nikaraguan azkeneko bost urte hauetan.*

Bestalde, hilaren 23an eta 24an *Una vueltecita por Nicaragua* argazki erakusketa egingo dute. Iñaki Agiriano-aren argazkiak egongo dira ikusgai, 12:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era.

AZPIEGITURAK > PROIEKTUA

Eskolako patioa estaltzea onartu du udalbatzak

Eguazteneko osoko bilkuran, Aramaioko alkate Asier Agirreren aldeko mozioa onartu zuten

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Eskolako jolastokian aterpea egitea onartu zuen udalbatzak, aho batez, eguazteneko osoko bilkuran. Aterpearen proiektua Alvaro Perez de Amezagak egin du. "Eztala futbol zelaia egin zuen arkitekto bera.

DIRULAGUNTZEN ZAIN

Era baldintzatuan onartu du proiektua udalbatzak. Izan ere, oraindik lanok egiteko dirulaguntza guztiak zehaztu barik dituzte. 789.000 euroko aurrekontua dute esku artean; baina esle-

penaren ondoren kopuru hori ezberdina izan daiteke.

"Gure asmoa zen lan guztia kanpo finantzaketa bidez egitea, baina uste dugu ezinezkoa izango dela hori", azaldu du Pedro Iturbe alkateak. Hala, Eusko Jaurlaritzak kostu osoaren %60 finantzatzeko konpromisoa hartu du; Kutxako Gizarte Ekintzak, ostera, 65.000 euro jarriko dituela onartu du, baina hitzarmena sinatu barik dago. Bestalde, Foru Aldundiak 100.000 euro jartzeko konpromisoa hartu du, baina hitzarmen hori ere sinatu barik

dago. Enpresen laguntzak gehituz gero, gainontzeko kopurua Udalak jarri beharko luke.

BARNE KIROLA

Udalak hutsune handia ikusten du Antzuolan barne kirola egiteko. Hala, hainbat aukera aztertu ostean, eskolan aterpea egitea dela aukera onena erabaki dute. 26,75x41,45 metroko azalera da estaldu behar dena. Esleipenaren ondoren, sei hilabete egin beharko dira lanok.

AGIRREREN ALDEKO MOZIOA

Aramaioko alkatea 9 urtez kargua betetzeko gaitasun gabe uztearen aurrean, berriz, udalbatzak haren aldeko babes mozioa onartu du.

txaloak eta txistuak



A.E.

Lizarragako auzotarrak pozik Udalarekin



Lizarraga auzoko bizilagun batek deitu du Udala zoriontzeko asmoz. Irakurlea pozik dago Udalak elurte honetan egin duen lanarekin; haren ustez, herriko eta auzoetako errepideak oso txukun izan dituzte une oro. "Baserrian bizi naiz, nahiko urrun, eta gozamen da nola utzi duten errepidea. Gainera, auzoan nagusi asko daude... eskerrak eman nahi dizkiot Udalari", dio.

TXAPELKETA

Herriko mus jokalariek, hitzordua

A.E. > ANTZUOLA

Euskal Herriko mus txapelketarako kanporaketak aprobetxatuz, herriko mus txapelketa jokatu dute datorren aste bukaeran hasita.

Hilaren 22an, 23an, 24an eta 29an izango dira kanporaketak eta final nagusia, ostera, hilaren 31n.

BIKOTEAK, 20 EURO

Jokatu nahi den tokian eman behar da izena 20 euro ordainduta, eta kanporaketa bakarrean har daiteke parte. Herriko finalerako bikote kopurua araberak sailkatuko dira.

Kanporaketak zortzi edo lau erregetara joka daitezke. Sari bikainak egongo dira.

Jardunaldiak

Urtarrilak 22, egubakoitza
22:15ean Mox tabernan.

Urtarrilak 23, zapatua
16:00etan Arin jatetxean.

Urtarrilak 24, domeka
16:30ean Eperra elkartearen.

Urtarrilak 29, egubakoitza
22:15ean Gailur tabernan.

Urtarrilak 31, domeka
Finala
16:30ean Arin jatetxean.

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki



Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

Leire Basauri > Ozkarbiko presidentea

"Irisgarritasun neurriak direla-eta lanak hastear ditugu"



Leire Basauri.

L.Z.

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Ez dio aparteko garrantzirik eman gura, baina Elgetako elkarte batean presidente kargura iritsi den lehenengo emakumea da. Laster utziko du kargua, hilaren 21ean egingo duten batzar orokorrean.

Zer moduz joan dira gauzak?

Urtebete egin dut karguan, eta normal joan da guztia. Karguak dituen ardura arruntekin. Ozkarbiko bazkide guztiak, txandaka, zuzendaritza batzordeko kide izatera deituak gara.

Nire lehenengo urtean presidenteorde izendatu ninduten, bigarrenaren presidente. Izendatua izan bezain pronto, lehenengo emakumea nintzela esan zidaten. Hortik aurrera ez dut bestelako komentariarik entzun.

Herrian jende gehien mugitzen duen elkarte da Ozkarbi.

Zalantza barik. 260 bazkide eta 156 erretiratuko dute elkarte erabiltzeko eskubidea. Herri erdik du Ozkarbiarekin lotura bat edo beste.

Ze gai izan duzue mahai gainean agintaldi honetan?

Beheko solairuan komuna egingo dugu. Obra potoloa da. Elgetako erretiratuen elkarteak gurean du egoitza, eta irisgarritasun neurriak direla-eta hastear ditugu lanak. Akordioa iritsi gara elkarte, Udala eta eraikinaren jabea den Baserritarren kooperatiba.

Ume-umetatik egiten zintzen Ozkarbiko bazkide lehen. Orain, zein da joera?

Ozkarbin dantza taldea zegoen garaiko kontuak dira horiek. Badira urte batzuk talde hori desegin zela. Gauzak aldatu egin dira ordutik hona. Orain ere gure bazkideen artean badaude umeak, baina gutxiengoa dira.

Sail asko ditu gaur egun Ozkarbi elkarteak?

Pilota saila, erretiratuen elkarteak gurean du egoitza, eta orain bazkide batzuen gogo eta ekinari esker sortu berria da Ozkarbi Mendi Taldea.



Juan Ramon Irazabal udal langilearekin dute herritarrek udaletxean harreman zuzena.

L.Z.

UDALA > EUSKARA

Euskara Plana aplikatzen hasteko unea

Udalaren barne erabilera hartzen du aintzat planaren lehenengo faseak; udal langileen egunerokoan izango du eragin handien

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Elgetako udalbatzak aho batez onartu zuen abenduaren 23an Udala Erabilerarako Euskara Plana. Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztien oniritzia izatea eta udal langileek planarekiko erakutsitako interesa kontuan hartuta, Euskara zinegotzi Ana Gillegik espero du egitasmoak bultzada handia hartzea. "Azken hiru urteotan asko ari

gara euskaraz lanean", adierazi du Gillegik, eta Uemak egindako neurketak jasotzen du maila dezente on dagoela uneotan udaletxean".

Planak egiten dituen gomen dioak aplikatzen hasteko garaia da orain. Hiru urteko epea dute horretarako Udalean. "Lehentasunak finkatu barik daude oraindik, baina pentsatzen dut lehenengo pausoa herritarrek bete-

tzen dituzten eskaera orriak egokitzea izango dela". Juan Ramon Irazabalen hitzak dira. Hark artatzen ditu herritarrek udaletxean. "Desagertu egingo dira gaztelera hutsean dauden formularioak, eta euskara hutsean zein ele bitan erabiliko ditugu aurrerantzean".

GAZTEEN ERDARARAKO JOERA

"Barrukoa egin ostean, Euskara Plana herrira begira lantzen hasi beharko dugu", esan du Gillegik. Euskara zinegotzia kezkatuta dago gazteen artean sumatzen duen erdararako joerarekin. Neurketa txiki bat egin gura luke.

oharrak

INTERNET

> Tutorea KZgunean izango da astelehenean, hilak 18

Aitor Madrid tutorea herriko KZgunean izango da astelehenean, 16:00etatik 20:00etara. Bina orduko hamaika ikastaro egiteko aukera izango da egun horretan. Ez da beharrezkoa alde aurretik izena ematea.

OSPAKIZUNA

> San Sebastian kofradiako kideak eguaztenez elkartuko dira

Urtero legez, Elgetako Noblean Kofradiako kideak ekitaldia egingo dute urtarrilaren 20an. Meza entzuteko elkartuko dira 12:00etan. Ondoren, urteko kontuak kitatuko dituzte, eta bazkaria egingo dute Ostatu jatetxean.

IKASTAROA

> Biodantza saio irekia eguenean, hilak 21

Ana Sousak biodantza saio irekia egingo du eguenean. Saioa doan eskainiko du, 19:00etan hasita, herri eskolan, interesa duten guztiendako.

DATUAK

> Hamaika bikote ezkondu dira 2009an Elgetan

Amaitu berri dugun urtean zazpi jaiotza, bost heriotza eta 11 ezkontza izan ditugu herrian. Pedro Mari Ubera bake epaileak emandako datuak dira. Badira 17 urte karguan dela.

ANTZERKIA

> Bihar, zapatua, antzerki tailerra egingo dute umeendako

Udalak antolatuta, Eibarko Zurrumurru taldeak hirugarren mailatik gorako umeendako antzerki tailerra abiaraziko du bihar, zapatua. Gaztelekuan batuko dira, 16:00etan, eta ordu eta erdiko saioa egingo dute.

Helburua da umeen artean irakurzaletasuna bultzatzea. Gauzak ondo bidean, lau zapatutan egingo dute antzerki tailerra. Biharkoa lehenengo saioa izanik, egitasmoaren aurkezpena egingo dute.

Interesa duten gazte guztiek aurkituko dituzte zabalik gaztelekuko ateak. Ez dago zertan aurretik izena eman.

ELURRA > GATZA

Azken bi elurteetan Udalak 23.000 kilo gatz erabili ditu

Gatz erreserba agortu egin da, eta egunotan beste 6.000 kilo eskatu dituzte biltegian edukitzeko

L.Z. > ELGETA

Elurtearen ostean izotzak eman ditu asteon zenbait arazo. Saihesbidea herritik Asentziarako zatian arriskutsu egon da, eta puntu horretan gertatu da ezbeharren bat edo beste.

Hasiera baten aste honetarako iragarpenek elurra ematen bazuten ere, azkenean, tenpera-

tu epeldu eta elur kota igo egin da. "Ez dugu, oraingoz, elurrik espero", esan zuen martitzenean udaletxean Euskalmeten oharra jasotzen dituen Juan Ramon Irazabalek. "Abisuek, behintzat, ez dute aste bukaerarako horrelakorik iragartzen".

Bi elurte izan ditugu denbora laburrean. Udaletik jakinara-

zi dute denbora horretan 23.000 kilo gatz erabili dituztela, eta agortu egin dela biltegian zegoen erreserba. "Beste 6.000 kilo eskatu ditugu", adierazi du Oxel Erostarbe alkatea. "Burgos aldetik ekarriko dituzte".

SALBADOR KALEA

Elur egunotan, brigadako langileen lana eta bizilagunen joan-etorriak errazteko Salvador kaleko beheko aldean dauden lau lorontziak kendu egin zituzten. "Elurra urtu egin da, baina jendeak ez du ezer errespetatzen eta bertatik pasatzen da autoekin", kexu agertu zen alkatea. "Gauzak horrela, ipini egin behar izan ditugu atzera ere, nahiz eta bestelako lanek lehentasuna izan".

ARAMAIO > DANTZA IKASTAROA

Urtarrilaren 22an hasiko dira dantza eskolak

Bariku arratsaldeetan ordubetez erromerietako dantzak ikasteko aukera egongo da eskolako gimnasioan

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Urte berriarekin beti izaten da gauza berriak egiten hasteko gogo. Bada, Aramaioko Lagun Artea dantza taldeak aukera aproposa eskaintzen du horretarako: dantza ikastaroak antolatu dituzte. Abenduaren amaiera aldera egin zuten ikastaroak antolatzen hasteko bilera, eta pozik daude jasotako erantzunarekin. Dago-

eneko hamar pertsona inguruk eman dute izena eta datozen aste-etan kopurua handitzea espero dute. "Pentsatzen dugu oraindik herritar batzuek ez dutela gure ikastaroen berririk izan eta espero dugu ikasle kopurua handitzea. Gauza bat utzi nahi dugu argi: ez dago dantzan egiten jakin beharrik ikastaroetan parte hartzeko. Zerotik hasiko gara; hortaz, edonor etor daiteke", azaldu du Adela Elexalde, Lagun Artea dantza taldeko kideak.

BARIKURO ORDUBETEZ

Dagoeneko ipini dute eskolak hasteko eguna. Urtarrilaren 22an hasiko dira, barikua. Antolatzaileen asmoa da ikastaroa ekainera arte luzatzea. Hori horrela, eskolak barikuro izango dira,

eskolako gimnasioan, 18:00etatik 19:00etara bitartean. Erromerietako dantzak irakatsiko dituzte: "Larrin-dantza, Iparraldeko Inauterietako dantzak, arin-arina eta fandangoa irakatsiko ditugu, besteak beste. Erromerietan egiteko moduko dantzak", dio Elexalde.

Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek hamar euro ordaindu beharko dituzte hasieran. Antolatzaileek azaldu dute diru hori dantza taldera bideratuko dutela beharrezkoa duten materiala erosteko. Elexalde azaldu du irakasle lanetan ibiliko direnek ez dutela kobratuko. Izena emateko aukera badago oraindik; horretarako, interesa dutenek dantza taldeko kideekin harremanetan ipini behar dute.

txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

Herriaren sarreran dagoen seinalea gaizki idatzita dago



Herritar batek honako argazkia bidali digu aste honetan. Herriaren sarreran ipini dute seinale berria da irudian azaltzen dena. Kontua da gaizki idatzita dagoela; *Hirigunea osoan* beharrean *Hirigune osoan* ipini beharko luke. Hori horrela, Udalari eskatzen dio, mesedez, seinalea aldatzeko.

ARAMAIO > ITZALALDI ANALOGIKOA

GOITB modu analogikoan ikusi ahalko da apirilera arte

Urtarrilaren 10ean egin zen itzalaldia Aramaion

A.B. > ARAMAIO

Urtarrilaren 10ean itzali zuten Aramaioko Gureiako errepikagailua. Modu horretan, aro digitalean murgildu zen Aramaio; Arabako azken herria izan da

itzalaldi analogikoa egiten. Hala, herritar gehienek Lurreko Telebista Digitalaren bitartez ikusten dute telebista. Aramaioar gautxi batzuek, baina, telebistako seinalea Muru menditik jaso-

tzen dute. Haien seinale analogikoa jasotzen jarraitzen dute; izan ere, Muruko antena ez da urtarrilaren 30era arte itzaliko.

Goiena Telebista pare bat aste barru hasiko da seinalea modu digitalean eskaintzen; dena dela, jakin beharra dago apirilera arte GOITB modu analogikoan ikusteko aukera ere egongo dela. Horretarako, ikusleek Lurreko Telebista Digitaletik irten beharko dute eta orain arte moduan ikusi Goiena Telebista.

> ZINEMA

Barikuetako film emanaldiak bertan behera gelditu dira, kultura etxean hotz egiten duelako

Barikuro kultura etxean helduendako zinema emanaldiak egon ohi ziren. Antolatzaileek urtarrilerako ere filmen egitaraua presatuta zeukaten, baina kultura etxean hotz handia egiten duela eta emanaldiak bertan behera uztea erabaki dute. Emanaldiak berriz hasten direnean jakinaraziko dutela azaldu dute.

Jose Inazio Beloki > Bake epailea

"Neuk ere ez dakit zenbat urte daramatzadan bake epaile"

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Abenduko azken astean egindako osoko bilkuran izendatu zuten Jose Inazio Beloki bake epaile beste lau urterako. Dagoeneko hainbat urte daramatza zeregin horretan, hark ere ez daki zenbat.

Zenbat urte zeregin horretan?

Ezingo nizuke zehatz esan, zortzitik gora uste dut baietz, baina zenbat... Udaletzeko dokumentuetan begiratu beharko genuke.

Hortaz, hainbat alkate ezagutu dituzu udaletxean.

Bai; pentsa, Eugenio Otsoarekin hasi nintzen, ondoren Joxerra Agirreurreta etorri zen, gero Joxerra Perez eta orain Eusebio Villar dago.

Noiz egoten zara udaletxean?

Egubakoitzetan. Hala ere, astean zehar zerbait sortuz gero, deitu egiten didate. Horregatik, aurrez hitzordua egitea komeni da udaletxean.

Zein da zure eginbeharra?

Ezkontza, jaiotza eta heriotza-ziurtagiriak sinatzea batez ere, eta antzeko beste lanen bat.

Eta bitartekari lanik ez duzu egiten?

Bake epaile izendatu eta lehen urtean bi baseritarren arteko lis-karra bideratu beharra izan

"Lehen urteetan ezkontza asko izan nituen baina denbora luzea daramat inor ezkondu barik"

nuen, baina orain ez. Halako kontu guztiak Bergarako epaitegirara joaten dira.

Gatzagar asko ezkondu dituzte urte hauetan guztietan?

Hasieran bai, bikote asko ezkondu nituen. Baina orain, denboraldi luzea daramat inor ezkondu barik. Aurten bai, ezkontza bat daukat udaberrian.

Eta kontu kuriosoren bat tokatu zaizu?

Ez, apartekorik ez; sexu bereko bikoterik ezkontzea ere ez zait tokatu.

Zergatik erabaki duzu bake epaile izaten jarraitzea?

Ez dakit, ba, pozik nago egin beharrekarekin eta ez dit aparteko lanik eskatzen. Udaleko kideek galdetu zidaten jarraitzeko asmo-



Jose Inazio Beloki.

M.A.

LEINTZ GATZAGA

Elurraren ostean izotzak sortu du arriskua

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Elurrak arrisku handia sortu zuen errepide nagusi eta bideetan joan den asteko egubakoitzetik domekara bitartean. Une batzuetan itxita izan zen Gatzagako bidea eta Udalararen kamioia aste bukaera guztian ibili zen palarekin base-rietara doazen bideak garbitzen eta gatza botatzen. Ondorioz, gatz barik geratu ziren. Zorionez, ez zen istripu larririk izan, baina auto askok jo zituzten bazterrak.

Elurraren ostean izotza izan zen arriskua eragin zuena, bai bideetan, bai kaleetan. Hala, eguazten goizeko lehen orduetan itxita izan zituzten Gatzagako bidea eta Arlabango errepidea.

rik ote nuen eta baiezkoa eman nien.

Eskerrak, ez da beste inor aurkeztu-eta. Zergatik uste duzu?

Ez dakit, ezkontzak bideratu beharrak erreparo edo beldur apur bat ematen die batzuei. Izan ere, batzuk lekukoekin bakarrik etortzen dira ezkontzera, baina beste batzuk 120 lagun ekartzen dituzte eta ekitaldi luzea egin gura izaten dute.



Gordobil, martitzeneko entrenamendu saioa hasi aurretik: "Lanean hasi aurretik Leioako porrotaren gainean berba egingo dugu. Partidua hasi eta berehala ikusi nuen ez genuela zereginik".

XABIER URTZELAI

Igor Gordobil > Aretxabaletako entrenatzailea

"Badakit intentsitate barik jokatzeko dugun partiduetan ez dugula zereginik"

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA
Aretxabaletak dagoeneko egin du urte erdiko lana, 26 puntu batuta. Baina Igor Gordobil (Arrasate, 1971) mutilek oraindik *maratoiko* kilometro gogorrenak dituzte aurrean, eta azken asteotan taldea ez dago bere onenean. Orokorrean, futbolaren, eta zehatzago taldeak aurrean dituen hilabeteen gainean egin dugu berba Aretxabaletako entrenatzailearekin.

Urte erdi pasatxoko lana egin duzue hirugarren mailan. Ze balorazio egiten duzu?

Balorazioa positiboa da, taldea ondo moldatu delako kategorian berrira, eta, besteak beste, lehen itzulian 26 puntu batu ditugulako. Argi daukat merezi dugun tokian gaudela, eta, beste talde batzuek duten aurrekontuarekin alderatuta, Aretxabaletak lana ondo egin duela uste dut.

Oraindik lan handia duzue aurretik.

Duda barik; gainera, bigarren itzulia lehenengoa baino gogorragoa izango dela uste dut. Taldeek dagoeneko ondo ezagutzen

gaituzte, badakite Aretxabaletak zelan jokatzeko duen, eta zailagoa izango da puntuak batzea.

Azken bost jardunaldietan Aretxabaletak ez du partidurik irabazi. Urteko lehenengo makalaldia da hau.

Bai, eta badakigu zergatik den. Aretxabaletak partidu bat irabazteko intentsitate osoz jokatuko behar du, %200 emanda, eta azken hilabeteen galdu egin dugu hori. Urte osoa topera ibiltzea ezinezkoa da, baina zelaian egoteko jarrera, jokalaria horrenbeste presionatzea, kontrarioa itotzea... hori guztia erreperatu egin behar dugu, badakidala intentsitate barik jokatzeko dugun partiduetan ez dugula zereginik. Baina lanean jarraitzeko asmoa dugu, eta lan horrek ekarriko ditu emaitzak.

Domekan Retuertoren bisita izango duzue (Ibarra, 16:30).

Bai, eta zaleei jakinarazi nahi diet partidu garrantzitsua izango dela, eta euren babesaren behar dugula; izan ere, Ibarra hamailetatik jendeak asko estutzen

du kontrarioa. Retuertok baino sei puntu gehiago ditugu, eta garaipen batekin atzean utziko gureko talde hori, gol aldearekin gurea delako.

Taldearekiko kritikak ere entzungo dituzue aulkitik.

Horrelakoak ere entzuten ditugu, bai. Gure lana kritikak entzutea ere bada, baina horrelakoetan jendea esango nioke taldea animatzeko, garbi izateko Aretxabaletak zer den, non gauden eta ze aurrekontu dugun; eta aurrean ze mailako taldeak izaten ditugun.

"Bigarren itzulian gehiago kostako zaigu puntuak batzea, ezagutu egiten gaituztelako"

"Azken bost partiduetan, hasieran erakutsitako nortasuna galdu dugu; hor egin behar dugu lan"

Denboraldian zehar ez duzu arazorik izan jokalaria postu batetik bestera aldatzeko.

Futboleko bada esaera bat zera dioena: *Posizioan jokatu, eta posiziotik jokatu*. Futbola mugikortasuna da, eta jokalaria bat leku zehatz batean egotera derrigortzeaz ez diot zentzurik ikusten, salbuespenak salbuespen. Gainera, taldearendako aberasgarria da hori.

Arrisku bat dauka, posible da postu horretarako zegoen ordezkoko jokalaria haserretzea.

Bai, eta hor lan egin behar da. Talde askotan, nahiz eta 25 jokalaria egon 16 lagunek baino ez dute jokatzeko, eta gurean ez da horrelakorik gertatzen.

Badakit jokalaria bat baino gehiago haserre dagoela gutxi jokatzeko delako, baina seguru nago orain arte denak izan direla behin baino gehiagotan hasierako hamaikakoan. Hemen ez dago ordezkoko finkorik, eta jokalariek jakin behar dute posible dela aste batean deialdian ez egotea, eta hurrengoan hasierako hamaikakoan jokatzeko.


Taldearekin zorrotza izan behar dela esan izan duzu.

Halaxe da. Neuri beti gustatu izan zait helburu *potenteak* jartzeko, eta ez dut esango UDAREN helburuak kategoriaz igotzea izan behar duenik, baina zergatik ez? Hau da, helburu horrekin hasiz gero, gauzak ez badira nahi moduan iristen posible da urtea hamargarren amaitzea. Baina urteko helburu bakarra kategoriarik eustea bada, gauzak txarto eginez gero zuloa joango ginateke.

Hainbat urte egin zenituen preferentean entrenatzen. Salto handia dago?

Kristorena, presio handiagoko dago hemen. Hirugarren maila oso kategorian polita da, jende askok jarraitzen duena. Portugalera joanez gero, gerta daiteke mila lagun aurrean jokatzeko. Gainera, Bigarren B mailan baino diru gehiago dago, batez ere Bizkaian. Javi Gonzalezek -Athleticeko jokalaria ohia- Portugalen jokatzeko ez da kasualitatea. Guk ahal dugun moduan egin behar diogu horri aurre.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekalde 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO - AMPLIFON

Bergara / Bidekurutzeta 10 / 943 76 97 03

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Erdiko kalea 22 / 943 79 71 68

Bergara / Bidekurutzeta 10 / 943 76 97 03

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22 3 ezk. / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerías 56 / 943 79 44 22

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT

PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

FUTBOLA > HIRUGARRREN MAILA ETA OHOREZKO ERREGIONALA

Aretxabaleak Retuerto, Mondrak Hondarribia

Bi norgehiagoka horiek jokatu dituzte oraingo asteburuan etxean, Aloña Mendi eta Bergara kanpora joango dira-eta

XABIER URTZELAI > BERGARA

Hirugarren mailan Aretxabaleak Retuertoren bisita izango du domekan (16:30), eta aurreko orriko elkarriketan Gordobilek garbi esan du taldearendako partidu garrantzitsua izango dela, nahiz eta ez duen final baten gainean berbetan hasi nahi, oraindik goiz delako horrelakoetara-

ko: "Izan ere, galtzen badugu ez da ezer gertatuko, berdin jarraituko dugu lanean. Baina irabazita atzean utziko dugu talde bizkaitarra, bederatzi puntuko aldearekin, eta gol aldea ere gure alde". Gainera, partidu horretarako zaleen babesa eskatu du entrenatzaile arrasatearrak.

Ohorezko erregionalean Mondrak ere erronka antzerakoa izango du, sailkapenean puntu gutxira dagoen Hondarribia mendean hartzea (zapatua, 16:30, Mojategi). Azkargortaren mutilek itxura polita erakutsi dute azken hila-betean, Beriori (1-0) eta Aloñari irabazita (2-0) eta Agorrosinen berdinduta (1-1). Eta, bolada on horri jarraipena eman nahi diote urte berrian, joan den astean

Tolosaren kontrako partidua bertan behera geratu zen-eta.

PABLO DIEZEN ESTREINALDIA

Hernani izan behar zuen, baina Pablo Diez seigarren postuan dagoen Ordiziaren zelaian estreinatuko da Aloña Mendiko entrenatzaile modura (zapatua, 15:30). Oñatikoak 14. lekuan daude, baina Gasteizko entrenatzaileak badu astia talde gorritxo gora eroateko.

Eta Bergarak ere etxetik kanpora jokatu du, puntu kopuru bera (21) duen Hernaniren zelaian. Bitxia da, Bergarak jokatutako azken lau partiduak berdindu egin ditu, baina egindako lanaren aurrean jasotako fruitua txikia izan da.



Aretxabaleako jokalaria Iker Orueta Amurrioren kontrako partiduan.

JOSETXO ARANTZABAL

> XAKEA

Aretxabaleako Arlutzek maila gorenean ekingo dio liga txapelketari

Euskadiko ohorezko mailan lehiatuko da aurten ere Aretxabaleako Arlutz xake taldea. Joan den asteburuan egin behar zuten ligako estreinaldia, Orvinaren kontra, baina bota zuen elurragatik bertan behera utzi zuten lehenengo jardunaldi hura.

Hala, Arlutzekoek oraingo asteburuan jokatu dute bigarren jardunaldia, etxetik kanpora, Batalla xake taldearen kontra. Lehenengo jardunaldian jokatzeke arazorik izan ez zuten artean Naturgas Sestao izan zen onena, San Viatorri 3,5-0,5 irabazita. Sailkapenean eurak daude lehenengo, Barakaldoren da bigarren eta Easo hirugarren.

> XAKEA

Preferente mailan, Arrasate San Andresek 1,5 puntu lehen lehian

Gipuzkoako txapelketan dabilen taldeek ere joan den asteburuan hasi zuten lehia. Preferente mailan dauka Arrasate San Andres taldeak lehen ordezkaria, eta joan den astean 1,5-2,5 egin zuten Urnietairen kontra. Oraingo asteburuan, berriz, Beraun Bera izango dute kontrario.

Arrasate San Andres B taldea, berriz, lehenengo mailan dabil, eta joan den astean 2-2 egin zuten Txaturangaren kontra. Eta azkenik, bigarren mailan Arrasate San Andres C eta Bergara-zaleak taldeak daude. Arrasate C taldeak 1,5-2,5 hartu zuen mendean Elgoibar, eta Bergara-zaleak taldeak 3-1 galdu zuen Goierriin.

> ESKUBALDIA

Asobal ligako taldeak ekarriko ditu Aloña Mendik hilaren 23an

Urtero moduan, aurten ere Aloña Mendiko eskubaloiz sailak punta-puntako lagunarteko eskubaloiz partidua ekarriko du Zubikoara. Hala, Asobal ligan izango duten atsedendia aprobetxatuta, datorren urtarrilaren 23an Arrate eta Reyno de Navarra taldeak izango dira zein baino zehin gehiago, 18:30ean (sarrera 5 euro).

Ligako sailkapenari begiratu eginez gero, nafarrak seigarren daude, eta Labaro Toledoren bisita izango dute domekan. Eibartarrak, berriz, 12. lekuan daude eta domekan Naturhouse La Riojaren taldearen kontra jokatu dute, 19:00etan.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Bigarren maila

Celta de Vigo-Reala
Zapatua. 18:00. Vigo.

Hirugarren maila

Aretxabalea-Retuerto
Domeka. 16:30. Ibarra.

Gazteen liga nazionala

Romo-Aretxabalea
Zapatua. 17:30. Getxo.

Gazteen euskal liga

Bergara-Añorga
Zapatua. 15:45. Agorrosin.

Ohorezko erregiona maila

Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Altamira.

Hernani-Bergara
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Mondra-Hondarribia
Zapatua. 16:00. Andoain.

Erregional preferentea

Elgoibar-Antzuola
Zapatua. 18:45. Mintxeta.

Aretxabalea B-Lazkao
Zapatua. 16:30. Ibarra.

Lehen erregionala, igoera fasea

Axular-Bergara
Domeka. 16:00. Herrera.

SBB Mutrikuarrak-Mondra
Zapatua. 16:30. San Miguel.

Lehen erregionala, kopa

Zestoa B-UDA Arizmendi
Zapatua. 16:00. Zestoa.

Gazteen ohorezko maila

Aloña Mendi-Lazkao
Domeka. 16:00. Azkoagain.

Mondra-Burumendi
Domeka. 16:00. Mojategi.

Gazteen lehen maila, igoera fasea

Pasajes-Aretx. B Arizmendi
Zapatua. 11:00. Pasaia.

Gazteak, kopa

Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 15:30. Almen.

Soraluze-Bergara
Zapatua. 11:00. Estala.

Ohorezko kadeteak

Bergara-Aretx.-Arizmendi
Domeka. 11:30. Ipintza.

Ohorezko kadeteak, kopa eta jaitsiera

Hernani-Aloña Mendi
Zapatua. 12:15. Hernani.

Lehenengo kadeteak, igoera

Aloña Mendi-Elgoibar
Domeka. 11:15. Azkoagain.

Arrasate-Lagun Onak
Zapatua. 12:00. Mojategi.

Kadeteak, kopa

Bergara-Soraluze
Domeka. 17:15. Ipintza.

Aretxabalea-Urki
Zapatua. 10:00. Ibarra.

Eibartarrak-Arizmendi
Domeka. 17:30. Eibar.

Infantil, txapelketen fasea

Aretx. Arizmendi-Arrasate
Zapatua. 12:00. Ibarra.

Infantien ohorezko kopa

Aloña Mendi-Anaitasuna
Zapatua. 11:15. Azkoagain.

Bergara-Ordizia
Domeka. 10:00. Ipintza.

Infantilak, partaidetza

LEK-Idiazabal
Zapatua. 11:00. Almen.

Infantil txikiak, txapeld.

Beasain-Arrasate
Zapatua. 10:30. Beasain.

Infantil txikien kopa

Aretxabalea B-Lagun Onak
Domeka. 12:00. Ibarra.

Bergara-Sanse
Domeka. 16:15. Ipintza.

Alebinak

Arrasate-Aloña Mendi
Domeka. 09:30. Legazpi.

Aretxabalea-Lagun Onak
Domeka. 12:00. Legazpi.

Bergara-Eibar
Domeka. 09:30. Legazpi.

Emakumezkoen liga

Eibar-Arizmendi
Domeka. 12:30. Unbe.

Bergara-Aloña Mendi
Zapatua. 17:45. Ipintza.

Mondra-Elgoibar
Zapatua. 18:30. Mojategi.

Emakumezkoak F11, kad.

Anaitasuna-Arizmendi
Domeka. 12:00. Azpeitia.

Mondra-Lagun Onak
Domeka. 12:00. Mojategi.

Emakumezkoen F8, kadet. Txapelketen fasea

Bergara-Intxaurdi
Zapatua. 11:30. Ipintza.

Emakumezkoen F8, kadet. Kopa

Amara berri-Aloña Mendi
Zapatua. 13:45. Martutene.

SASKIBALDIA

Lehenengo maila

Mondragon Unib.-Urdaneta
Zapatua. 18:00. Iturripe.

Senior autonomikoa

Aloña Mendi-Lizuan.com
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

Gipuzkoako seniorrak

Goiherri-Soraluce BKE
Zapatua. 18:30. Beasain.

Soraluce BKE B-Ruibal
Domeka. 18:30. Labegariet.

MU- Gabi jatetxea

Zapatua. 16:00. Musakola.

Aloña Mendi-Katu kale

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Senior emakumezkoak

Andraitz-Eskoriatza

Zapatua. 16:00. Legazpi.

Gazte gizonzkoak. Part.

Soraluce BKE-Andraitz

Zapatua. 12:15. Labegariet.

Gazte emakumezkoak. Errendimendua

Bera Bera-Eskoriatza

Zapatua. 16:00. Donostia.

Gazte gizonzkoak. errendim.

CD Internacional-MU A

Zapatua. 12:15. Donostia.

Kadete gizonzkoak. partaid.

Soraluce BKE-Aurrera Take

Domeka. 10:30. Bergara.

Aloña Mendi-Zast Zarautz

Zapatua. 11:45. Zubikoa.

Kadete emakumezkoak

Eskoriatza-Colch. Atsedeen

Zapatua. 10:00. Intxaurtxu.

Arizmendi-Andraitz

Zapatua. 10:00. Intxaurtxu.

Aloña Mendi-Soraluce BKE

Zubikoa. 11:45. Zubikoa.

Euskadiko seniorrak, giz.

Ford Mugarri Ar.-Basauri.

Zapatua. 17:00. Musakola.

Euskadiko senior, emak.

Verkol Aloña-Atl.Basauri

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Euskadiko gazteak, emak.

Verkol Aloña-Atl.Basauri

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Euskadiko kadeteak, ema.

Verkol Aloña-Atl.Basauri

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Lehen territorial maila

Donibane Maj.-Soraluce BKE

Domeka. 10:45. Pasai Don.

Ereintza-Izarraitz Aloña

Domeka. 12:00. Zubikoa.

Bigarren territoriala

Arrasate-Ordizia

Domeka. 11:45. Iturripe.

Gazte mailako gizonzko

La Bacaladera-Bergara Sor.

Domeka. 11:30. Irun.

Gazte mailako emakumez.

Bergara Sor.-Talleres Chap.

Zapatua. 19:00. Labegariet.

Citroen Chap.-Winbel

Domeka. 10:00. Iturripe.

Kadete mailako gizonzko

Berezo Aloña-Tolosa

Domeka. 10:30. Zubikoa.

Karibe Zahar-Berezo Aloña

Zapatua. 17:45. Legazpi.

Bergara Sor.-Pneumax Elg.

Domeka. 12:15. Labegariet.

Kadete mailako emak.

Leizaran B-Verkol Aloña

Domeka. 10:30. Andoain.

Verkol Aloña-Urola

Zapatua. 16:00. Zubikoa.

ARETO FUTBOLA

Euskal Liga

Eskoriatza-Kurutziaga

Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.

Gipuzkoako bigarren maila

UDA Orly-Urritza

Gaur. 20:45. Almen.

ERRUGBIA

Senior gizonzkoak

Arrasate Kanpan.-Univ. Cant

Zapatua. 16:30. Mojategi.

Alebinak

Gipuzkoako txapelketako

bosgarren jardunaldia.

Domeka. 10:30. Mojategi.



Arrasate-Kanpanzar taldeak Kantabria izango du aurrean

Elorrioren kontrako partidua bertan behera geratu ondoren, Arrasatek Universidad de Cantabria izango du bihar aurrean.



> KONTZERTUA
Bill Lyerlyk eta
Traveling Brothers
taldeak joko dute
gaur Elgetan > 32



> BERTSOAK
Hamaika Bertutek
3. urteurreneko
jaia ospatuko du
bihar Oñatin > 32

> LEIRE LASA
Baskonia saskibalo
taldearen
'cheerleader' izan
da. Orain,
Arrasaten dago
TAFYD ikasten eta
spinning eskolak
ematen > 35



Raimundo Amador > Musikaria

"Ez zaizkit etiketak gustatzen: musika egiten dut, baina ukitu flamenkoarekin"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Raimundo Amadorrek (Sevilla, 1959) kontzertua egingo du gaur Arrasateko Hiru aretoan, 23:00etan. Musika flamenkoaz, bluesaz, salsaz eta beste doinu askoz gozatzeko aukera eskainiko duela esan digu. Era berean, disko berria esku artean duela aurreratu digu, eta uda parterako salgai jarriko duela. Beste hainbat bitxikeri kontatu dizkigu.

Nolakoa izango da gaurko kontzertua?

Helburu nagusia entzuleek ondo pasatzea da. Alde batetik, bakarka nabilenetik grabatutako diskoetako kantuak joko ditugu. Beste alde batetik, bertsoak egingo ditugu; besteak beste, anaia Rafelekin sortu nuen Pata Negra taldearenak.

Hortaz, zure kanturik ezagunenak entzuteko aukera izango dugu?

Bai, hala da. Kontzertuetan, jendeak buruz dakizkien kantuak jotzen ditugu. Besteak beste, *Ay que gusto pá mis orejas* eta B.B. Kingekin egin nuen *El bollere* kantuak. Azken finean, entzuleekin kimika sortu behar da, eta horretarako, ezinbestean, eurei gustatzen zaizkien kantuak jo behar ditugu.

Aurreko aste bukaeran Barakaldoko Rock Starren egin genuen emanaldia. Aretoa lepo bete zen. Entzuleak gustura egon ziren, eta batzuk oholtza gainera igo ziren gurekin dantzatzera eta abestera. Ea, bada, gaur norbait animatzen den!

Hiru aretoa areto txikia da. Gusturago jotzen duzu txikietan?

Aitarekin hasi eta montoiatarrekin ibili nintzenez, areto txikietan jotzen genuen. Areto handietara salto egitea aldaketa itzela izan zen, baina txikietan konplizitate handiagoa lor daiteke entzuleekin.

Barakaldotik Arrasatera. Nolako harrera dute zure kontzertuek Euskal Herrian?

Urte asko dira Euskal Herri-
ra kontzertuak egitera joaten naitzena, eta beti ondo hartu nauzue.

Esango nuke nire musika atsegin duzuela. Flamenkoa ezagutzeko aukera emango dizuet.

Orduan, flamenkoa da gehien egiten duzun musika?

Gauza bat argi utzi gura dut: nik ez dut flamenkorik egiten, musika egiten dut. Ez zaizkit etiketak gustatzen. Baina, duda barik, flamenkoaren ukituak ezinbestekoak dira. 12 urterekin hasi nintzen aitarekin flamenkoa kantatzen, eta orduan ikasitakoa ez dut ahaztu.

Dena den, kontzertura datozenean askotariko ukituak antzemango dituzte.

Esan diguzu Pata Negrarekin egindako kantuen bertsoak joko dituzuela. Nola gogoratzten duzu garai hura?

1981. urtean sortu genuen taldea anaiak eta biok. Flamenkoa beste musika estilo batzuekin nahasteko aukera izan genuen. Aurretik, baina, Veneno taldea sortu nuen Kiko Venenorekin eta nire anaiarekin. Ordurako, esperientzia genuen Paco de Luciarekin eta Camaronekin egindako kolaborazioekin. Urte oparoak izan ziren.

Pata Negrarekin Cathy Claret ezagutu genuen, eta bi diskotan parte hartu genuen harekin. Urte batzuk geroago, Cathy Clareten *Bollere* kantuaren bertsoa egin genuen B.B. Kingekin, eta *El bollere* kantua idatzi genuen.

Musikari ezagun askorekin egin dituzu kolaborazioak. Norbait aipatuko zenuke bes-teen gainera?

Ezingo nuke bat aukeratu. Musikari eta abeslari ezagunek nirekin kolaboratu dute, eta nik eurekin. Antonio Carmona, Remedios Amaya, Kiko Veneno, Andres Calamaro, Luz Casal, Martirio, Antonio Flores, Malevaje... ezingo nuke bakarria aipatu. Era berean, ezin ditut ahaztu B.B. Kingekin, Cathy Claretekin eta Santanarekin egindako lanak.

Gainera, ezin ditut flamenkoa lantzen duten maisuak ahaztu. Oso inportanteak izan dira nire-



Raimundo Amador.

GOIENKARIA

tako Camaron de la Isla eta Paco de Lucia. Biek ala biek flamenkoak duen handitasuna erakutsi zuten.

Orain dela bost urte kaleratu zenuen azken diskoa. Hurrengo noizko?

Ia bukatuta daukagu. Bost urte hauetan lantzen ibili naiz, kantu berriak idatzi, musika berriak sortu... Gure asmoa da uda parterako merkatuan ipintzea, baina ezin dugu data zehatzik eman.

Badago berrikuntzarik?

Beti daude berrikuntzak. Musika aldatzea gustatzen zait, baina nire jatorria ahaztu barik. 2005etik gaurdaino nire bizitzak izan dituen aldaketak jaso nahi izan ditut; besteak beste, aitaren eta anaiaren heriotzak, eta biloba berrien jaiotzak.

Sei disko bakarrik eta beste lau Pata Negra taldearekin

Raimundo Amador 12 urterekin hasi zen kalean abesten. Aitarekin ibiltzen zen. Ordutik, hamar disko kaleratu ditu: sei bakarrik eta lau Pata Negra taldearekin.

1977. urtean Veneno taldea sortu zuen Kiko Venenorekin eta Rafael Amargorekin. Lau urte geroago Pata Negra osatu zuen anaiarekin. Pata Negra (1981), *Rock gitano* (1982), *Guitarras callejeras* (1986) eta *Blues de la frontera* (1987) diskoak egin zituzten elkarrekin.

BAKARKA, SEI DISKO

Pata Negra taldea utzi ondoren, bakarkako lanari ekin zion, eta ordutik sei disko kaleratu ditu: *Gerundina* (1995); *En la esquina de Las Vegas* (1997); *La noche de flamenco y blues* (1998), *Un okupa en tu corazón* (2002); *Isla menor* (2003); eta *Mundo Amador* (2005). Guztietan, flamenkoa beste musika estilo batzuekin nahastu du.

HARRERA

"Euskal Herrian beti hartu nauzue ondo; musika flamenkoa ezagutzeko aukera emango dizuet"

ETORKIZUNA

"Disko berria daukagu esku artean; epeak betetzen badira, uda parterako kaleratuko dugu"

MUSIKA > ESPALOIAN

Bill Lyerly eta Travelling Brothers gaur gauean Elgetan

Blues gaua Espaloian, Lyerly beteranoarekin eta Traveling Brothers bizkaitarrekin; bi sarrera, 10 eurotan

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Errepidean urte asko daraman musikaria da Bill Lyerly estatu-batuarra eta iaz, martxoan, bere ibilbideko 30. urteurrena ospatzeko *Too Hurt To Cry. The best of Bill's Blues* izenburuko diskoa kaleratu zuen. Gaur, egubakoitz, Elgetan joko du eta harekin batera Travelling Brothers taldea izango da Espaloia Kafe Antzokian.

Lyerlyk, besteak beste, John Lee Hooker, Allman Brothers, Bo Diddley edo Steve Earle moduko izen handiekin partekatu izan ditu eszenatokiak eta gaur egun musikari euskaldunekin osatu du taldea, Lyerly aspaldian Iruñean bizi da-eta. Uztailean Bergaran



Bill Lyerly estatubatuarra dagoeneko 30 urte egin ditu musikan.

GOIENKARIA

eta azaroan Arrasaten eman zena izan dira Debagoienean Lyerlyk egin dituen azken emaldiak.

TRAVELLING BROTHERS

Travelling Brothers talde bizkaitarrak duela bost urte erabaki zuten bluesaren bideak modu sen-

do jorratzea. *Red, hot & blue* da argitaratzen duten hirugarren diskoa eta bertan bluesa ez ezik, swing, funk eta soul doinuak ere entzun ahal dira. Hasierako boskoteari haize sekzioa gehitu zaio eta bederatzi lagunek osatzen dute taldea gaur egun. Taldeak berak sortutako abestiez gain, Willie Dixonen *Hoochie Coochie Man*, Buddy Guyen *Leave my girl alone* eta John Lee Hookeren *Boom Boom* bezalako klasikoak nahasten dituzte euren emanaldietan.

BI SARRERA, 10 EUROTAN

Kultura ekitaldiak sustatu nahian, 2x1 ekimena jarri dute abian Espaloian, eta, hala, gaurko emanaldirako, 10 eurotan bi sarrera eskuratu ahal izango dira. Kontzertua 22:30ean izango da.

Bestalde, Oreka Tx taldeak aurreko egubakoitzean Elgetan eman beharreko *Nomadak Tx zuzenean* emanaldia, elurragatik bertan behera geratu zena, martxoaren 5ean egingo da.

MUSIKA > AMAIA ANTZOKIAN

Piano-jole gaztetxoek emanaldia eguaztenean

Andoaingo jaialdiari begira prestakuntza saioa egingo dute ibarreko piano ikasleek Arrasaten

E.M. > ARRASATE

Ibarreko piano-jole gaztetxoek emanaldia egingo dute eguaztenean Amaia antzokian, 18:30ean. Arrasate, Oñati, Eskoriatza eta Bergarako musika eskoletako piano ikasleek hartuko dute parte. Otsailean Andoainen egingo den piano jaialdiari begira prestakuntza saioa da eguaztenekoa. Guztira, 62 piano-jole (izenak alboko koadroan) izango dira agertokian. Piano-jole gaztetxoek arduradunak Araceli Guridi, Izaskun Barreña, Amaia Urdangarin, Eli-

sabeth Mendiartz, Leire Insausti, Isabella Blezien eta Rakel Hernandez dira.

ANDOAINERA OTSAILEAN

Andoaingo piano jaialdia otsailaren 5ean eta 6an izango da. 18 urte-tik beherako piano-joleei zuzenduta dago eta aurtengo ekitaldian Euskal Herri osoko 876 ikasle batuko dira han. Adinaren arabera A, B eta C mailak izango dira eta, era berean, bi modalitate bereiztuko dituzte: piano bakar-laria eta pianoa lau eskutara.



Eguazteneko emanaldian parte hartuko duten gaztetxo batzuk.

GOIENKARIA

Parte-hartzaileak

A MAILA

Natalia Llanos
Ane Juaristi
Irene Azkargorta
Maria Berroya
Aritz Gerrikagoitia
Marta Igarzabal
Vera Garmendia
Nestor Uroz
Leire Astiazaran
Idurre Elorza

Kepa Sebal
Izaro Garmendia
Mara Hernandez
Julio Narbaiza
Iñaki Manso
Iker Manso
Enaitz Ibabe
Lide Mantxola
Joseba Ormaetxea
Peru Rozas
Maidor Jauregi

Xabier Aldai
Iñigo Azkarate
Josu Berasategi
Eneko Etxeberria
Miren Gutierrez
Naroa Mujika
Ainhoa Olaziregi
Saioa Galarraga
Maddi Iñarra

B MAILA

Asele Solozabal
Txomin Valle

Leire Moñux
Sara Peñin
Mariñe Diaz
Aitziber Eraña
Marina Lasa
Gorka Barkero
Eneko Ibabe
Jone Etxeberria
Nagore Gomez
Unai Agirre
Iñaki Zumalde
Naroa Inza
Uxue Azkarate

Amaia Oregi
Leire Retegi
Ariana Sasietta
Leire Ugarte
Maitane Mayor
Garazi Romero

C MAILA

Ainhoa Aspiazu
Sara Ezkati
Mikel Barkero
June Ortiz Landaluze
Iñaki Beristain

Miren Fernandez
Sara Zubia
Jon Mikel Aiausti
Ainara Gonzalez
Sara Larrabe
Danel Cusi
Cristina Souto
Nerea Urresti
Maddi Mujika
Maitane Mañerikua
Ane Zangitu
Jone Eguren

EUSKARA IKASTAROAK

ARRASATEKO
UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza 2
943 79 70 77

euskaltegi@arrasate-mondragon.net

MATRIKULA
ZABALIKBERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13
943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

Urtarrilaren 18tik 29ra

Abantailaz betetako kluba!

Goiena
kluba

Ongi etorri Goiena Klubera

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Goiena Kluba aurkezten dizu.
Orain arte **Asteleheneko Goienkaria**-ren harpidedun izan zaretenok Goiena Klubeko bazkide izango zarete aurrerantzean.

Goiena Klubeko txartela

Bazkide-txartel personalizatua jasoko duzu etxean. Bazkide-txartelarekin harpidetzak dakarren abantaila eta onura eskusiboetan parte-hartzeko aukera izango duzu. Askotariko ekitaldi eta zerbitzuetan bazkide-txartela erakutsi, onurak aprobetxatu, eta gozatzera!



Goiena Klubeko bazkideen abantailak

Asko dira Goiena Klubak eskaintzen dituen abantailak.

- **Goienkaria** astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktueta prezio berezia:
DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Saillkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak...
eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

Deskontu bereziak

Goiena Klubeko txartela aurkeztu, eta ondorengo enpresetan deskontu eta abantailak izango dituzu.

BARCELÓ BIDAIAK

BERGARA/ARRASATE
• **-%5** pakete konbinatueta 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)
• Laser depilazioa: hanka osoa + izterrendoa
• **-%15** + opari besapekoak (axilak).
• **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
• **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainenetan edo bekainenetan.
• **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

ARETXABALETA
• **-%15** zerbitzu guztietan.

IKER SUKALDEAK

ARRASATE/OÑATI
• Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

BERGARA
• **-%15** matrikula ordaintzean.

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)

ARRASATE
• **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
• **-%2** dendako produktueta.

MONDRAGON LINGUA

ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)
• **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
• **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu

AUTOBERRI

ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA
• **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
• **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
• Ordezkapeneko autoa **20 euro**.
• Erosketaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

CLINICA DENTAL BERGARA

BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)
• **-%10** zerbitzu guztietan
• **-%15** inplanteetan.
• 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

ZIENTZIEN KUTXAGUNEA

DONOSTIA
• Bi erosi eta bat ordaindu

AQUARIUM

DONOSTIA
• Bi erosi eta bat ordaindu

TXURI-URDIN IZOTZ JAUREGIA

DONOSTIA
• Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiagun, jaiagun bezpera, zubia edo oporraldia.
• **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
• **-%10** zubi eta oporraldietan.



2010 urteko kuota: **45 €**
Telefonoa: **943 25 05 05**
Posta-e: **kluba@goiena.com**

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. 100 metro koa droko etxebizitza salgai Markolen. Lau egongela, bi komun, sukaldia eta egongela, ganbarra, garajea eta bi terraza handi (150m²). Jantzitza utziko genduke. 650 34 89 85.

Arrasate. Etxebizitza salgai Jose Luis Iñarran. Lau logela, bi komun, egongela, sukaldia, trastelekua eta garajea. 630 03 41 65 edo 669 05 80 33

Bergara. Apartamentua salgai San Antonion. Sukaldia, egongela, logela bat, komuna, balakoa eta trastelekua. 46 m². Guztiz berriztatua eta jantzia. 635 70 49 74.

Bergara. Etxebizitza salgai Bolun. Egongela, hiru logela, sukaldia, bi komun, trastelekua eta garajea. Aukera ona. 688 67 10 31.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Jose Luis Iñarran. Hiru logela, bi komun eta trastelekuarekin. Txaro. Deitu 653 71 22 42 telefonora.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan San Andresen. Hiru logela, sukaldia eta komuna. Jantzitza. Prezio onean. Deitu 943 76 59 93 edo 665 70 75 80 telefono zenbakietara.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldia eta komuna. Bero-gailuarekin. Prezio onean. 666 40 65 58 edo 690 79 78 00.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukaldia eta trastelekua. 2009an berriztatua, prezio onean. 676 19 91 54.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan. Barrenkalen, guztiz berri, bi logela eta altzariekin. 629 38 29 96.

Oñati. Etxea saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, komun bat, sukaldia eta egongela. Garajea aukeran. Guztiz berriztatua. 665 72 87 89 edo 657 72 25 70.

Oñati. Hiru logelako etxebizitza. Bi komun, sukaldia eta egongela. Guztiz jantzitza. Deitu 645 71 98 84 zenbakira.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 4 pertsonarentzat. 618 14 71 34.

Oñati. Bikoteak etxea hartuko luke errentan, hiru logela eta igogailuarekin. 665 75 59 13.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat dugu alokagai. 630 71 35 83.

Arrasate. Logela ematen da errentan ikasle batentzat zein bestela. 620 54 60 59.

Arrasate. Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Erdialdean dago eta oso egoera onean. 300 euro, gastu guztiak barne. Otsailetik aurrera. 606 74 42 37.

Bergara 2 logelako apartamentu berri, logela bat errentan ematen da. 250 euro. 626 86 67 36.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Aretxabaleta. Garaje itxia salgai Santakurtz 25-27an. Prezio negoziagarria. 630 46 36 71.

Aretxabaleta. Garaje itxia Lezaman (Santakurtz 24). 16.000 euro negoziagarria. Aukera aparta. 647 08 00 16.

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Erdialdean garaje itxia alokagai. Kruz Gallastegi kalean, Arrano azpian. 607 66 02 44.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Oñati. Lokala ematen da errentan Bidebarrietan. Deitu 610 54 91 21 telefonora.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 656 77 46 60.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEA OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
604. KONPONDU
605. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

6/ MOTORRA

601. SALDU

Ford Escort XRi salgai. 5 ate, MK IV, azken seriea (1996) 1.8i eta 16v. 131.000 km dauzka. Kapritoxkoa da. Beti garajea gordetzen dugu. Prezioa, negoziatzen da. Interesatuta egonez gero, bidali zure proposamena 'jat2016@yahoo.es' helbidera. 607 52 54 21.

7/ ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurkumeak ematen dira opari. Bi hilabetekoak. Arrasaten. 608 74 43 52.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bikiendako aukia salgai. Jane etxekoa. Urdin iluna. Hiru gupilduna. 200 euro. Deitu 650 57 36 07 zenbakira.

Biolina salgai. Egoera onean. Osagai guztiak: arkoa, erre-txina, almoadila eta kutxa gogorarekin. Gara SV100 1/2 neurrikoa. Prezio negoziagarria. 665 16 09 76.

Erremailadora industrial salgai. Egoera onean. Prezioa adosteko. Antzuolan. 685 77 08 46.

Errepideko bizikleta gorria salgai. Egoera onean. Merke. Deitu 943 79 11 24 telefonora.

Giant ORC2 SH105 salgai. Errepideko bizikleta. 56 neurrikoa. 4.000 km. 500 euro. Deitu 656 75 35 86 telefonora.

Gitarra akustikoa salgai. Elektroakustikoa da, amplifikadorearekin erabilgarria. Stag markakoa. Etxean bakarrik erabili. Oso egoera onean. Ikasteko egokia. 100 euro. 637 45 94 73.

Karabana salgai. Lau plazakoa. Egoera onean. Deitu 658 75 58 23 zenbakira.

Narruzko txupa beltza salgai. M neurrikoa. Ia berria (bi aldiz jantzia). 35 euro. Deitu 626 28 68 13 telefonora.

Ordenagailua. Pentium 3. Windows 98. 256 MB RAM. Word, Excel, Access, Publisher, tekla-tua, saga, CD irakurgailua eta bozgorailuak. 60 euro. 666 24 86 40.

Snow taula salgai. 168 neurrikoa. Baita ere Burton fijazioak, 46 neurriko botak eta eskiak eramateko. Dena 250 eurotan. 661 73 37 91.

AUKERA

Etxebizitza adosatua salgai Elgetan.
Lehen mailako materialekin.
Eraikuntza bukatua.
PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita
Korosti Inmobiliaria
Ibargarai 3 - Bergara Tel.: 943 76 97 97
www.inmikorosti.com

ARRASATE

Zerbitzari eta sukaldari euskaldunak eta garbitzailea behar dira kafetegian lan egiteko.
Deitu 12:00etatik 18:00etara.

645 00 71 46

BERGARA

Kortazar tabernan sukaldaria behar da. Interesatuok ostegun arratsaldeetan bertatik pasatu.

402. ESKAERAK

Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. 45 urteko emakume euskalduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko, goizez,

Bergara edo Arrasate. Nagusiak zainduko nituzke, egunez. 943 53 29 18 edo 696 84 19 51.

Bergara. Garbiketa eta pertsona edadetuak zainduko lanak egiteko gertu nago. 13:00etatik aurrera. 691 03 25 02.

Bergara. Garbiketari, pertsona edadetuak zaintzen eta tabernari lan egiteko gertu egongo nintzateke. 637 28 58 52.

Bergara. Garbiketarako, pertsona edadetuak zaintza lanak egiteko eta tabernari moduan lan egiteko gertu egongo nintzateke. 671 71 90 03.

Debagoiena. Esperientziadun emakume arduratsua gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauz edo bestela. Legezko paperak dauzkat. 638 89 98 60.

Debagoiena. Geriatria laguntzaile gertu ospitalean gauz gaixok zaintzeko. 676 07 23 72.

Debagoiena. Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. 637 18 07 23.

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu etxeko lanak egiteko edota pertsona nagusiak zaintzeko. 943 76 44 27.

Debagoiena. Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luisa de los Santos. 671 27 78 36.

Debagoiena. Emakumea erreferentzia onekin gertu pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko. Paperak ditut. Lanaldi osoa edo murriztua egingo nuke. 696 19 05 15.

Debagoiena. Emakumea gertu ospitalean dauden gaixo zein nagusi edo umeak zaintzeko. Deitu gauetan, mesedez 943 71 46 24 telefonora.

Debagoiena. Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulazioa daukat. Esperientziarekin eta informekin. 671 35 22 60.

Debagoiena. Esperientziadun emakumeak lan egingo luke sukaldian, nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egiten: bulegoak, etxak eta abar. Enpresa zein partikularrekin. 661 48 86 74.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egingo nuke. Legezko paperak ditut. 663 65 78 43.

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edo ume zein nagusiak zainduko nituzke. 637 12 15 18.

Debagoiena. Garbiketa lanak, sukaldia laguntzaile edo etxeko lanak egingo nituzke. Deitu 630 20 12 03 telefonora.

Debagoiena. Mutil esperientziaduna nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. Etxean bizi izaten edo orduka. Baserrietara joateko arazo barik. 648 06 84 71.



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmikorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokan, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.

Antzuola:

- Buztinuzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

Elgeta:

- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Soraluze:

- Atxuri 49 m². 117.618 €.



DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telefono Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m², oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m², oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokan eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarrerreka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

DEBA

- Txalet bateko etxebizitza, hondartzako lehenengo ilaran

Soiua salgai. Bigarren eskuko Polverini markakoa, beltza, Mobila eta guzti. 800. Apropo sa ikasleentzat. 686 23 92 81 edo 943 76 44 69.

Somiera. Ikean 2008. urtean erositako oherako somiera salgai. Oso egoera onean. 150x190 neurrikoa. 100 euro, negoziagarria. 635 12 87 82 edo 943 25 05 79.

Tabike-armairua salgai. Deba goienean. 670 08 12 16.

802. EROSI

Aretxabaleta inguruan ortu egiteko lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Interesa izanez gero, deitu telefono zenbaki honetara: 696 32 63 13.

Moisesa erosi nuke. 650 57 36 07.

Tximinindako egurra. Tximinindako egur lehorra erosteko gurako neuke. 688 63 82 28.

804. HARTU

Autorako umeendako segurtasun aukira behar dut. 1-3 taldekoa. 650 57 36 07.

806. GALDU

Autoko giltza galdu nuen abenduaren 15ean, asteartean, San Andres auzotik Arimazubi (San Viator Txiki) ikastolara bidean. 618 49 28 56 edo 943 79 58 98.

Eskiak. Martitzenean, hilaren 12an, K2 Fujiative traberiarako eskia ahaztu nituen Arantzazun. Norbaitek topatu baditu dei diezadala. Eskerrik asko. 652 75 66 97 edo 669 78 17 81.

Lepoko zapia galdu nuen abendu bukaeran. Grisa eta beltza da. Arrasaten edo Oñatin. Norbaitek topatu baditu, dei diezadala. 637 90 57 15.

PSPA Bergaran. Joan zen abenduaren 13an Bergarako frontoian PSP bat desagertu zitzaidan. Baten batek hartu edo topatu baldin badu mesedez itzuli udaltzaintan edo deitu telefono hauetara: 630 60 39 34 edo 943 76 70 81.

807. AURKITU

Betaurreko gorriak aurkitu nituen Arrasateko Eroski inguruan. Musakolan, abendu hasieran. Graduatuak dira eta kaxa batean zeuden. Zure bada, deitu zenbaki 943 74 18 69 telefono zenbakira.

Bizikleta Oñatin. Bizikleta beltza agertu zen abenduko zubian Lazarraga kalean. Nahiko berria da. Zure bada, deitu zenbaki honetara: 626 17 73 55

808. BESTELAKOAK

Bergararik-Donostiara eguneror lanera (Errotaburura) joateko jende bila nabil. Lan ordutegia: 08:00-15:00. Deitu 679 86 51 36 telefonora.

Gasteiztik Arrasatera. Urtarrilaren 22:00etan joateko autotzara bila nabil. Deitu 695 70 51 42 telefono zenbakira.

MULTIOPTICAS
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

ADMINISTRATZAILEA
BEHAR DU

- Goi Mailako LH: Administrazioa eta Finantzak
- Euskaraz jakitea ezinbestekoa
- Egun osorako lanaldia
- Ordainsaria bakoitzaren balioaren arabera
- Bergara inguruan bizi izatea kontutan hartuko da
- Lanean berehala hasteko

Curriculum-a eta gaur egungo argazkia bidali ondoko helbidera:
210 posta-kutxa • 20570 BERGARA • eli@multiopticaspuzkoa.com

Leire Lasa > Spinning irakaslea

"Gimnasia erritmikoan aritzeak gauzak sakrifikatzen irakatsi zidan"

Kirola gogoko du 23 urteko neska bergarar horrek. Gimnasia erritmikoan urte askoan ibilita-koa da Leire Lasa. Baina bere bizitzako pasarte hori alde batera utzi eta heziketa fisikoko irakasle izateko ikasketak egin zituen. Horrez gain, Baskonia saskibaloia taldearen 'cheerleader' izan da. Orain, Arrasaten dago TAFYD ikasten eta spinning-eko eskolak ematen.

NAROA ODRIOZOLA > BERGARA

Batzuentzat, gimnasia joatea esfortzu handia da; beste batzuek, ordea, gogoko dute. Bigarren multzo horretan kokatzen da Leire Lasa bergararra. Harekin hitz egin eta gero, argi geratu zaigu kirola benetan gogoko duela 23 urteko gazteak.

Dantza egitea gustuko duzu. Txikitatik sortutako zaletasuna da?

Dantza egitea txikitatik gustatu zaidala esan daiteke. Eta gimnasia erritmikoa laga eta gero, gehien landu dudak ekin-tza izan da. Dantza mota guztiak gustatzen zaizkit: funka, salsa, aerobika...

Gimnasia erritmikoaren munduan ibili zara urte askoan. Zer-nolako esperientzia izan duzu?

Gimnasia erritmikoan zortzi urtez aritu naiz eta oso esperientzia ona izan da. Asko ikasi dut gimnasiarekin. Batez ere pertsona moduan. Gauzak sakrifikatzen ikasten da.

Zergatik gimnasia erritmikoa?

Txikitik nire lehengusina apuntatu zen eta harekin batera apuntatu nintzen probatzeko. Hala, jarraitu egin nuen eta, nahigabe, gaztaro guztia eman nuen. 8 urterekin hasi eta 16rekin utzi nuen.

Gimnasten bizimodua zaila dela diote. Zer deritzozu?


Bueno, sakrifizio handia dago eta ordu asko dira entrenatzen, baina, azkenean, gustukoa bada eta egindako lana ondo irteten bada, merezi duen zerbait dela uste dut nik. Izan ere, bete egiten zaitu.

Gimnasia erritmikoaz gain, Baskonia saskibaloia taldearen cheerleader-etako bat izan zara. Zergatik erabaki zenuen animatzaile izatea?

Asko gustatzen zaidalako dantza egitea. *Casting*-ak egin behar zituztela jakin nuen eta probatzea erabaki nuen. *Casting*-a egin eta hartu egin ninduten. Asko gustatu zitzaidan esperientzia izan zen eta oso pozik ibili nintzen.

Nolakoa izan zen casting-a?

22 neska inguru aurkeztu ginen *casting*-era. Dantza zati bat erakutsi ziguten eta denbora utzi ziguten ikasteko. Gero, banan-banan dantza egiten genuen ikus-teko bakoitzak nola egiten genuen



MIREIA BIKUÑA

PERSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Kirolmagisteritza ikasi nuen Gasteizen eta TAFYD egiten dihardut Arrasaten. **Zaletasunak:** Patinetan ibiltzea, kirola egitea, masajeak ematea eta lagunekin irtetea. **Liburu gomendagarri bat:** V.C. Andrew-

sen *Flores en el ático*. **Ikusitako azken filma:** *El Ilusionista*. Neil Burgerrena. **Gimnasta bat:** Irina Tchachina. **Bizi izateko leku bat:** Bergara. **Amets bat:** Ezin dut bat esan, asko ditut-eta. **Bidaiatzeko leku bat:** Italia. **Bizitzako leloa:** *Carpe diem*.

dantzan. Ondoren, entrenamenduen baldintzak esan zizkiguten. Orduetgia nahiko txarra zen; izan ere, gauean entrenatzen ginen. Hamarretan elkartzen ginen. Orduetgia gustuko ez zutelako, aurkeztutako asko ez ziren joaten. Azkenean, lau lagun hartu gintuzten.

Ikusleek inoiz ezer esan dizute inoiz?

Egia esan, denetik dago. Alde batetik, oso ondo hartzen zaituen jendea. Bestetik, ikuskizunarekin bat etortzen ez dela uste dutenak, saskibaloia ikustera joaten baita jendea. Baina inoiz ez dut ezer txarrik entzun.

Horrez gain, heziketa fisikoko irakasle izateko ikasketak egin zituen Gasteizen. Eta orain ere ikasten diharduzu.

Bai; hiru urte egon nintzen Gasteizen. Orain, Arrasaten nabil TAFYD ikasten eta aurten azkeneko urtea da. Gero, praktikak dauzkat eta Bilboko gimnasio batean egingo ditut.

Zergatik aukeratu zenituen ikasketa horiek?

Hasiara batean, SHEEN (IVEF) sartu nahi nuen, baina proba gainditu nuen arren, notak ez zidan eman. Horregatik, kirolmagisteritza egitea erabaki nuen. Baina hori bukatzean, ez nuen umeen irakasle izan nahi, nahia-go nuen gimnasio batean monitorea moduan eskolak ematen jardun. Orduan, TAFYD ikastea erabaki nuen eta gero, kurtso ezberdinak ateratzen joan nintzen osatzeko.

Gainera, spinning-eko irakaslea zara. Nolatan?

Kirol mundua gustuko dut eta Gasteizen bizi nintzenean gimnasia joaten nintzen spinninga eta horrelakoak egitera. Orduan, kurtsoa ateratzea erabaki nuen monitorea moduan jarduteko. Kurtsoa atera ondoren, curriculum bidali nuen gimnasioetara eta Arrasateko gimnasio batetik deitu zidaten spinninga emateko. Asteaz zehar hiru orduz ematen ditut eskolak.

Zenbat denbora daramazu irakasle?

Aurreko urteetan, gimnasia erritmikoko eskolak ematen ibili naiz Gasteizen eta Bergaran. Baina *spinning*eko irakasle urrian hasi nintzen. Speninga irakasteaz gain, batuka ere irakasten diet gaztetxoiei.



GOIENKARIA

Elkarrizketak, orain martitzenetan

Goiena magazinea-n Eneko Azkaratek egiten duen elkarrizketa martitzenetan izango da. Erakunde eta elkarteetako ordezkari zein agintariak gonbidatuko ditu. Ikus-entzuleok aukera izango duzue galderak egiteko.

GOITB, 'Magazinea'

> Egutero, 19:45, 21:15, 23:30.
> Elkarrizketa, martitzenean.



GOIENKARIA

Txapelpunk-eko Iñigo Arrasate 'Ilunpean'-en

Ilunpean saiko oraingo asteko elkarrizketatua Txapelpunk taldeko abeslari Iñigo Arrasate, *Iñigito Txapelpunk* ezizenaz ezaguna, izango da. Jon Berezibarrek elkarrizketatuko du musikari lekeitiarra.

GOITB, 'Ilunpean'

> Martitzena, 22:15.

astea GOITBn

| Egubakoitza, 15 | Zapatua, 16 | Domeka, 17 | Astelehena, 18 | Martitzena, 19 | Eguaztena, 20 | Eguena, 21 |
|---------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|---------------------------|
| 13:15 Marrazki bizidunak. | 08:00 Marrazki bizidunak. | 08:00 Barrebusa. | 13:15 Marrazki bizidunak. | 13:15 Marrazki bizidunak. | 13:15 Marrazki bizidunak. | 13:15 Marrazki bizidunak. |
| 13:45 Kantari. | 10:30 Barrebusa. | 09:00 Marrazki bizidunak. | 13:45 Kantari. | 13:45 Kantari. | 13:45 Kantari. | 13:45 Kantari. |
| 14:15 On ein. | 11:30 Kantari. | 11:30 28 Klip. | 14:15 Eltze beroa. | 14:15 On Ein. | 14:15 Udazken loreak. | 14:15 Eltze beroa. |
| 14:45 Berriak. | 14:00 On Ein. | 12:00 Itsasoari begira. | 14:45 Berriak. | 14:45 Berriak. | 14:45 Berriak. | 14:45 Berriak. |
| 15:15 Ur eta Lur. | 14:30 Udazken loreak. | 12:30 Wazemank. | 15:15 Sakonduz. | 15:10 Harmailatik. | 15:10 Ilunpean. | 15:15 Erreportajea. |
| 15:45 Itsasoari begira. | 15:00 Barrebusa. | 13:00 Erreportajea. | 15:45 Ikusmira. | 15:50 Ikusten. | 15:50 Sakonduz. | 16:15 Ikusmira. |
| 16:15 Ikusten. | 16:00 Marrazki bizidunak. | 13:45 Ur eta Lur. | 16:15 28 Klip. | 16:20 Itsasoari begira. | 16:20 28 Klip. | 16:45 Berriak. |
| 16:45 Berriak. | 18:30 Gipuzkoa Kultura. | 14:15 28 Klip. | 16:45 Berriak. | 16:45 Berriak. | 16:45 Berriak. | 17:15 Marrazki bizidunak. |
| 17:15 Marrazki bizidunak. | 19:00 Kale kantoi. | 14:45 Kale kantoi. | 17:15 Marrazki bizidunak. | 17:10 Marrazki bizidunak. | 17:15 Marrazki bizidunak. | 18:00 Sakonduz. |
| 18:00 Ilunpean. | 19:30 Itsasoari begira. | 15:15 Gipuzkoa Kultura. | 17:45 Kalekantoi. | 17:35 Wazemank. | 17:35 Harmailatik. | 18:45 Berriak. |
| 18:45 Berriak. | 20:30 28 Klip. | 15:45 Marrazki bizidunak. | 18:15 Ilunpean. | 18:15 Gipuzkoakultura. | 18:15 Ur eta lur. | 19:15 Marrazki bizidunak. |
| 19:15 Marrazki bizidunak. | 21:00 Ilunpean. | 18:15 Barrebusa. | 18:45 Berriak. | 18:45 Berriak. | 18:45 Berriak. | 19:45 Goiena Magazinea. |
| 19:45 Goiena Magazinea. | 21:45 On ein. | 19:15 Kantari. | 19:15 Marrazki bizidunak. | 19:15 Marrazki bizidunak. | 19:15 Marrazki bizidunak. | 20:45 Kantari. |
| 20:45 Kantari. | 22:15 Ikusten. | 21:15 Wazemank. | 19:45 Goiena Magazinea. | 19:45 Goiena Magazinea. | 19:45 Goiena Magazinea. | 21:15 Goiena Magazinea. |
| 21:15 Goiena Magazinea. | 22:45 Ikusmira. | 22:00 Erreportajea. | 20:45 Kantari. | 20:45 Kantari. | 20:45 Kantari. | 22:15 Gipuzkoakultura. |
| 22:15 Sakonduz. | 23:15 Wazemank. | 22:45 Gipuzkoakultura. | 21:15 Goiena Magazinea. | 21:15 Goiena Magazinea. | 21:15 Goiena Magazinea. | 22:45 Kalekantoi. |
| 22:45 Udazken loreak. | 00:30 28 klip. | 23:15 Ilunpean. | 22:15 Harmailatik. | 22:15 Ilunpean. | 22:15 Erreportajea. | 23:20 Itsasoari begira |
| 23:15 Kale kantoi. | 01:00 Emisio amaiera. | 00:00 Itsasora begira. | 23:00 Gipuzkoakultura. | 23:00 Wazemank. | 23:45 Goiena Magazinea. | 23:45 Goiena Magazinea. |
| 23:45 Magazinea | | 00:30 Emisio amaiera. | 23:30 Goiena Magazinea. | 23:30 Goiena Magazinea. | | |
| 00:45 Emisio amaiera. | | | 00:30 Emisio amaiera. | 00:30 Emisio amaiera. | 00:45 Emisio amaiera. | 00:45 Emisio amaiera. |

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearren errepaso (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga)
11:55 Arrasateko albistek, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

guardiako farmaziak

ARRASATE

| | | | |
|-----------------|-----------|-------------------|--------------|
| Zapatua, 16 | Azkoaga | Ferrieras 1 | 943 79 15 15 |
| Domeka, 17 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Astelehena, 18 | Fernandez | Maisu Aranbarri 1 | 943 79 22 26 |
| Martitzena, 19 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Eguaztena, 20 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguena, 21 | Morales | Araba 14 | 943 79 18 65 |
| Egubakoitza, 22 | Ruiz | Nafarroa 1 | 943 79 14 09 |

BERGARA

| | | | |
|-----------------|---------------|---------------|--------------|
| Zapatua, 16 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Domeka, 17 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Astelehena, 18 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Martitzena, 19 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 20 | Alvarez-Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 21 | Urritikoetxea | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 22 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |

OÑATI

| | | | |
|-----------------|-------------|----------------|--------------|
| Zapatua, 16 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Domeka, 17 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Astelehena, 18 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 19 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 20 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 21 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 22 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

ARETXABALETA-ESKORIATZA

| | | | |
|-----------------|--------|------------------|--------------|
| Zapatua, 16 | Anitua | Belorrieta | 943 08 11 43 |
| Domeka, 17 | Anitua | Belorrieta | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 18 | Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 19 | Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 20 | Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 21 | Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 22 | Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia.
Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

herritarrak galdezka

KIROL IKASTAROAK DOAN DIRA?

"Aurrekoan irakurri nuen kiroldegiak antolatu dituen fit-bike eta pilates ikastaroak doan direla urtarrilean. Horrela da? Eta noiz arte dago zabalik izenemate epea?", galdetu digu oñatiar batek.

Bi ikastaro horiek hasiberriendako dira, eta urtarrilean hasi eta bukatzen dira. Fit-bike ikastaroa bakarrik da doan, eta martitzenean hasi zen, eta beste biak hilaren 19an eta 26an dira. Pilates ikastaroa, berriz, ikasturte osoko ikastaroaren erdi prezioan emango dute. Saio horiek hilaren 18an, 20an, 25ean eta 27an dira, eta oraindik lekua dago.

IAT-N GREBAN DAUDE?

Irakurle batek hau galdetu digu: "Bergarako Ibilgailuen Azterketa Teknikoko langileek greba egin behar dutela entzun dut. Horrela da?"


Bergarako IATn ez daude greban. Gipuzkoako beste bi IATetakoak daude greban, hitzarmen kolektiboaren hari-ara, baina Bergarako beste enpresa batek darama. Edozelan ere, ohartarazten dute greba dela-eta lan handiagoarekin dabiltzala. Hortaz, komeni da tarte handiaren txanda hartzea, 902 93 27 00 telefonora deituta.

Egiguzu galdera eta geuk egingo diogu dagiokionari.

- Telefonoz: 943 25 05 05 • Faxez: 943 25 05 12
- Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com


eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 16

Zerua estaliz joango da eta euritara egingo du, baina hego ukituko haizearekin ez du askorik botako. 5 graduko minimoa eta 13ko maximoa izango ditugu.



Domeka, 17

Euria egingo du, eta haizeak ipar-mendebaletik joko duenez, tenperaturek nabarmen egingo dute behera. Oro har, giro nahasia eta freskoa.

TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

| MINIMOA | | Max. | Min. | Euria |
|----------------|------|------|------|------------------|
| Domeka, 10 | -6°C | °C | °C | l/m ² |
| Eguena, 7 | 4 | 1 | 15,8 | |
| Egubakoitza, 8 | 4 | 0 | 18,5 | |
| Zapatua, 9 | 4 | -3 | 11,1 | |
| Domeka, 10 | 5 | -6 | 0 | |
| Astelehena, 11 | 6 | -3 | 0,5 | |
| Martitzena, 12 | 8 | 0 | 10,8 | |

ASTEKO EURIA (l/m²)

56,7 L

ESKER ONA

Enrike Lete Irizar

Oñatin hil zen 2010eko urtarrilaren 3an, 51 urte zituela.

Jasaten ari garen une latz
hauetan zuen maitasuna eta
berotasuna eman diguzuen guztioi,
bihotz-bihotzez eskerrik asko.



Elo, Julen eta Irati.
Oñatin, 2010eko urtarrilaren 15ean.

ESKER ONA

Juan Joxe Agirre Aranguren

Antzuolan hil zen 2010eko urtarrilaren 9an, 57 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Antzuolan, 2010eko urtarrilaren 15ean.

MEZA

Marino Juaristi Gallastegi

Bartzelonan hil zen 2009ko abenduaren 18an, 84 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza
zapatuan, urtarrilaren 16an,
19:00etan, Bergarako
Santa Marina parrokiaren ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Martina Larrañaga Artolazabal

Jesus Aizpiriren alarguna

Bergaran hil zen 2010eko urtarrilaren 6an, 92 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2010eko urtarrilaren 15ean.

ESKER ONA

Matilde Azkarraga Arejola

Rufino Ugarteren alarguna

Arrasaten hil zen 2010eko urtarrilaren 11n, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2010eko urtarrilaren 15ean.

OROIGARRIA

Ventura Larrañaga Garcia

Bergaran hil zen 2010eko urtarrilaren 12an.

Bergarako Umore Ona elkarteke zure
lagunek, zure laguntza eskertuz.



Bergaran, 2010eko urtarrilaren 15ean.

URTEURRENA

Gregoria Zubia Zubia

Eustakio Zelaiaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, urtarrilaren 16an,
19:00etan, Oñatiko Mikel Deunaren
eliza nagusian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Julian Lopez Huegun

Juan Luis Lopez lankidearen aita

2009ko abenduaren 23an hil zen.

Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.



Arizmendi ikastola.
Leintz bailaran, 2010eko urtarrilaren 15ean.

OROIGARRIA

Candido Fernandez Galan

Ikastolako gurasoa

Arrasaten hil zen 2010eko urtarrilaren 10ean, 44 urte zituela.

Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.



Arizmendi ikastolako langile eta gurasoak.
Leintz bailaran, 2010eko urtarrilaren 15ean.

URTEURRENA

Lucia Peña Etxeberria

Jose Maria Markinaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urtarrilaren 17an,
12:30ean, Bergarako
San Pedro parrokiaren ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Fernando Lazkano Mujika

Gogorra egingo zaigu
zu ez ikustea.
Zaila benetan guri,
zu ez entzutea.

Nekea izango da
zu gabe bizitzea.
Eta, ezinezkoa,
Fernando, zu ahaztea.



Gero arte... potxolo.

Koadrilako lagunak.
Bergaran, 2010eko urtarrilaren 15ean.

OROIGARRIA

Juan Luis Arriola Zugasti

Xabin Arriola lankidearen aita

2009ko abenduaren 22an hil zen.

Ez agurrik, ez adiorik,
gero arte bakarrik.



Arizmendi ikastola.
Leintz bailaran, 2010eko urtarrilaren 15ean.

URTEURRENA

Markel Hernandez Gonzalez

2009ko urtarrilaren 18an hil zen.

Lehen urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren
16an, 19:00etan, Arrasateko San Andres auzoko
Ama Jasokundearen elizan ospatuko da.

Beti izango zara gure bihotzetan.



Elizkizunera joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

Maite Arantzabal Ugarte

2010eko urtarrilaren 15an hil zen.

Zoazen tokira zoazela, itxaroidazu.



Zure familia.
Bergaran, 2010eko urtarrilaren 15ean.

OROIGARRIA

Maite Arantzabal Ugarte

Gogorra egingo zaigu
zu ez ikustea.
Zaila benetan guri,
zu ez entzutea.

Nekea izango da
zu gabe bizitzea.
Eta, ezinezkoa,
Maite, zu ahaztea.



Gero arte... Mirrin.

Koadrilako lagunak.
Bergaran, 2010eko urtarrilaren 15ean.

Urtarrilak 15-22

MONIKA BELASTEGI

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



ELGETA

> Bill Lierly eta Travelling Brothers gaur gauean Espaloia Kafe Antzokian

Aspaldian Iruñean bizi den Bill Lierly musikari beteranoak emanaldia egingo du Elgetan. Aurretik, Travelling Brothers bilbotarrek joko dute. Kalitatezko bluesa, countrya, swinga eta rock-and-rolla gaur Elgetan, 22:30ean. Bi sarrera, 10 eurotan.

Bertsoak




OÑATI

> Hamaika Bertutek 3. urteurreneko jaia ospatuko du zapatuan Oñatin

Hamaika Bertute elkarte bertsolariek 3. urteurreneko jaia ospatuko dute zapatuan Oñatin. Goizean, 11:00etan, salda banatuko dute eta tabernaz taberna bertsoan arituko dira, ibarreko bertso eskoleto lagunekin batera.

Musika



ARRASATE

> Ibarreko piano ikasleen emanaldia izango da eguaztenean Amaia antzokian

Arrasate, Oñati, Eskoriatza eta Bergarako musika eskoleto piano ikasleen emanaldia izango da eguaztenean, hilaren 20an, Amaia antzokian, 18:30ean. 62 piano-jolek jardungo dute, Andoaingo otsaileko jaialdiari begira.

kaleko Slimming gimnasioan. Bergaran, martitzenetan 14:45etik 16:45era Giartzu gimnasioan edo eguaztenetan 16:45etik 18:45era Samadhi yoga elkartearen lokalean, Masterrekan.

Argibideak eta izenematea: 626 66 12 92 (Mentxu).

ARRASATE

> Yoga ikastarorako izenematea zabalik

Yoga ikastaroa Arrasaten (Txindoki dorrea, Bañez Doktorea 1): astelehen eta eguaztenetan, 09:30etik 11:00etara; martitzen eta eguenetan 14:30etik 16:00etara eta 19:00etatik 20:30era.

Argibideak eta izenematea: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARRASATE

> Eskulan ikastaroa Udaleko Emakume Sailaren eskutik

10-12 lagunez osatutako talde txikian eskulanetako teknika ezberdinak ikasiz ondo pasatzeko ikastaroa da. Egurra, laminak, margoketa, birziklatzea, Van Dal, ezta-nua, zilarra, beruna eta kristala landuko dituzte Bea Arregirekin. Martxoaren 23ra arte, martitzenero 15:30etik 17:30era edota 18:00etatik 20:00etara.

Argibideak eta izenematea 943 79 83 70 eta 651 70 79 36 telefono zenbakietan.

ARRASATE

> 'Estresa, nola gaintitu?' ikastaroa otsailean

Ekin Emakumeak elkarteak antolatuta, otsailaren 1etik 10era, astelehen eta eguaztenetan, 17:30etik 20:30era.

Argibideak eta izenematea: 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefonoan.

Antzerkia

BERGARA

> 'Rem fasea' Zabalotegin datorren domekan

Haurrendako txotxongilo emanaldia, Granadako Kaos Teatro taldearen eskutik.

Hurrengo domekan, urtarrilaren 24an, Zabalotegi aretoan, 17:30ean. Sarrerak, 3 eurotan.

OÑATI

> 'Arrastoa', Txalo taldearekin, urtarrilaren 24an

Ramon Agirre eta Asier Hormaza aktoreekin, Begoña Bilbaok zuzenduta. Anthony Shaffer da antzezlaneko egilea.

Hurrengo domekan, urtarrilaren 24an, Santa Ana antzokian, 19:30ean. Sarrerak kultura etxean salgai daude, 10 eurotan.

Musika

ARRASATE

> Mahaster River zapatuan Irati tabernan

Nahasterrekan diskoa aurkezten dihardute bergararrek.

Bihar, zapatua, Irati tabernan, 20:00etan.

ARRASATE

> Las Gildas eta The Dealers taldeak 3 aretoan

Rock kontzertua eskainiko dute bi taldeek.

Bihar, zapatua, 3 aretoan, 23:00etan. 5 euro.

BERGARA

> Alex 'El Hierro' eta Iñigo 'Crines' domekan Kai tabernan

Emanaldi akustikoa egingo dute.

Domekan, 20:00etan, Kai tabernan.

ARRASATE

> Arizona Baby taldearen emanaldia hilaren 22an

Joan den urteko sorpresarik atseginenetakoa. Emanaldi akustikoa egingo du hirukoteak Arrasaten.

Urtarrilaren 22an, Amaia antzokiko hall-ean, 20:00etan. Sarrerak Servikutxako kutxazainetan eskuragarri.

Erakusketak

ARETXABALETA

> 'Beste xomorro batzuk' argazki erakusketa Arkupen

Antonio Valencianen argazkiak dira.

Arkupen, urtarrilaren 31ra arte.

BERGARA

> Aratusteetako kartelak, hurrengo egubakoitzetik

Aratusteetako kartel lehiaketara aurkeztutako lan guztiak izango dira ikusgai.

Kultura etxean, urtarrilaren 22tik otsailaren 19ra arte, astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:00etara.

Ikastaroak

ARETXABALETA

> Dantza afrokaribearrak Jaiki elkartearen eskutik

Martitzenero, 19:30etik 21:00etara, Aretxabaleto kuartel zaharrean. Ekainera arte.

Izenematea 653 70 50 68 telefonoan edo jaikielkartea@yahoo.es helbidean.

BERGARA

> Erromeriako dantzak eta dantza soltea

Jardun euskara elkarteak antolatuta, erromeriako dantzen ikastaroa otsailetik maiatzera, martitzenetan

19:30etik 21:00etara. Fandangoa eta arin-arina Juantxo Urbietak erakutsiko ditu eguenetan, 19:30etik 21:00etara: hastapen maila urtarrilean eta otsailetik maiatzera maila guztiak.

Izenematea eta argibideak Jardunen (943 76 08 19).

DEBAGOIENA

> Nagusien zaintza eta sukaldaritzaren begetariano Bizikasirekin

Mendekotasuna duten pertsona nagusien zaintza, urtarrilaren 19tik otsailaren 4ra Elgetan; sukaldaritzaren begetariano, urtarrilaren 12tik aurrera Bergaran eta Angiozarren.

Argibideak Bizikasin: 943 76 93 94.

ARRASATE/BERGARA

> Biodantza ikastaroa

Arrasaten, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara, Erguin

PROPOSAMENA

ARRASATE

> Raimundo Amador gaur Arrasaten

Raimundo Amador (Sevilla, 1959) gitarrista ezaguna Arrasaten izango da gaur. Pata Negra taldearekin hainbat urtez flamenkoa eta bluesa landu ondoren, bakarkako ibilbideari ekin zion 1995. urtean. *Gerundina* eta *En la esquina de Las Vegas* dira haren lanetako batzuk. Bost urteko isilaldiaren ondoren, kantu berriekin etorriko da Arrasatera.

Gaur, egubakoitza, Arrasateko 3 aretoan, 23:00etan. Sarrerak 12 eta 15 eurotan salgai.



Hitzaldiak

ESKORIATZA

> 'Pentsaera positiboa'

Sonia Ulazia psikologoaren eskutik. Bizikasik eta Amuska emakume elkarteak antolatutako hitzaldia.

Urtarrilaren 20an Eskoriatzako kultura etxean, 18:00etan.

Deiak

ARRASATE

> Goikobaluren deia kantatu nahi duten guztientzat

Kantuan interesatuta dagoen edonorendako atea zabalik dituztela gogoratzen du Goikobaluk. Gaztetxo zein nagusiek elkarteko lau talde-tan jarduteko aukera daukate: Goikobaluko tailerra (4-6 urte bitartekoak) eguaztenetan 17:00etan; Goikobalu Txiki (6-9 urte) eguenetan 18:15etan; Goikobalu Gazte (11-20urte) eguaztenetan

19:00etan eta Goikobalu Abesbatza (nagusiak) martitzenetan 21:00etan eta eguenetan 20:00etan.
Argibideak 615 76 02 89 telefono zenbakian edo Goikobalu abesbatzaren entsegu lokalean (Saiolan eraikinean, Zaldibarren, beheko solairuan) jaso daitezke.

Lehiaketak

ARRASATE

> Jokin Zaitegi beka, Herta Müller itzultzeko

Arrasateko AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak, Kutxaren laguntzarekin, Jokin Zaitegi Sariketa antolatuta dute. Aurtengoa 23. ekitaldia da. Azken Literaturako Nobel saridunaren lana itzultzeko zuzenduta dago beka. Hain zuzen ere, Herta Müller idazle errumaniar-alemanaren *Atemschaukel* (*Arnasaren kulunka*) eleberria itzularaztea da xedea.

Argibideak AED elkartearen, 943 77 12 28 telefono zenbakian.

ARRASATE

> Aratusteetako kartel lehiaketa deitu du Udalak

Lehiaketan edozein pertsona har dezake parte. Kartelen neurriak 50 x 70 zentimetrokoak izango dira. Informatika euskarriari (Pendrive edo CDan) ere aurkeztu ahal izango da kartela, DIN-A3 tamainako paperean inprimatuta. Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute: *2010 Inauteriak Arrasate*. Irabazleak 400 euroko saria jasoko du. Lanak urtarrilaren 30ra arte jaso daitezke Biztalez Arreta Zerbitzuko bulegoan.

Lehiaketaren oinarriak Udaleko webgunean ikusgai daude: www. arrasate-mondragon.org.

BILBO

> Zinema eta animazioko film laburren lehiaketa

Nontzeberri.com kultura webguneak Nontzefilmak Zinema eta Animazioko Film Laburren Lehiaketa *on-line* jarri du abian FANT Bilboko Zinema Fantastikoaren Jaialdiaren laguntzarekin. Lanek zinemakoak edo animaziokoak izan behar dute, eta azken horretan animaziozko teknika guztiak onartuko dira (3D, Flash, stop-motion, eta abar). Irabazleak 2.000 euro eskuratuko ditu eta beste hainbat sari banatuko dituzte. Lanak jasotzeko epea 2010eko otsailaren 26an amaituko da, 13:00etan.

Lehiaketako oinarrien xehetasun guztiak Nontzefilmak-en webgunean: <http://www.nontzeberri.com>

ERMUA

> Aratusteetako kartel lehiaketa

Aratusteetako kartel lehiaketa deitu du Udalak. Lanak jasotzeko epea urtarrilaren 28ra arte izango da zabalik. Irabazleak 450 euroko saria jasoko du.

Argibide gehiago: <http://www.ermua.es>

Zinema

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

2012
Zapatua: 19:00, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Planet 51

Domeka: 17:00.

Buscando a Eric

Eguena: 20:30.

ARETXABAETA

ARKUPE

La chica que soñaba con una cerilla...
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Dos canguros muy maduros

Domeka: 17:00.

Sin nombre

Eguena: 19:30.

OÑATI

KULTUR ETXEA

Partir
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Dos canguros muy maduros

Zapatua eta domeka: 17:00.

BERGARA

ZABALOTEGI

Noche en el museo 2
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 22:30.

Ice age 3

Zapatua eta domeka: 17:00.

Stranger than paradise

Eguena: 20:00.

GAZTETXEA

To shoot an elephant
Domeka: 18:00.

ELGETA

ESPALOIA

Centizas del cielo
Eguaztena: 21:30.

ARAMAIO

KULTUR ETXEA

Tom y Jerry en el tesoro del galeón
Domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

La decisión de Anne
Egubakoitza: 20:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

COLISEO 1

El cónsul de Sodoma
Egubakoitza: 20:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

COLISEO 2

Solomon Kane
Egubakoitza: 20:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GURIDI

Avatar

20:15.

Capitalismo: una historia de amor
22:30 (egubakoitzean eta domekan); 19:45 (domekan).

Sherlock Holmes
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzean eta domekan); 17:30, 20:00 (domekan).

Solomon Kane
22:30 (egubakoitzean eta domekan); 19:45 (domekan).

¿Qué fue de los Morgan?
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzean eta domekan); 17:30, 20:00 (domekan).

Alvin y las ardillas
17:00.

Teniente corrupto
17:00, 19:45 (egubakoitzean eta domekan); 17:00 (domekan).

No es tan fácil
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzean eta domekan); 17:30, 20:00 (domekan).

Todos están bien
17:30, 20:00 (egubakoitzean eta domekan); 17:30 (domekan).

Hierro
17:00, 18:45, 20:30, 22:30 (egubakoitzean eta domekan); 17:00, 18:45, 20:30 (domekan).

Egubakoitzetik domekara.

FLORIDA-GURIDI

Celda 211
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 17:30, 20:00 (domekan).

El secreto de sus ojos
20:00, 22:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 20:00 (domekan).

La cinta blanca
18:00, 20:45 (egubakoitzean eta domekan); 17:30, 20:15 (domekan).

La decisión de Anne
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzean eta domekan); 17:30, 20:00 (domekan).

El cónsul de Sodoma
20:00, 22:30 (egubakoitzean eta domekan); 20:00 (domekan).

Un tipo muy serio
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzean eta domekan); 17:30, 20:00 (domekan).

Lluvia de albondigas
17:30.

Amerika
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean eta domekan); 18:00, 20:15 (domekan).

Planet 51
17:30.

Egubakoitzetik domekara.

YELMO CINEPLEX

Avatar
(3-D emanaldiak)
15:30 (zapatuan eta domekan); 18:45, 22:00.

Avatar
17:00 (zapatuan eta domekan); 18:00, 20:00, 21:00, 23:00, 00:00.

Lluvia de albondigas
16:00 (zapatuan).

Sherlock Holmes
17:30, 20:00, 22:30, 00:50.

La decisión de Anne
16:20 (zapatuan eta domekan); 18:25, 20:30, 22:35, 00:40.

Solomon Kane
18:05, 20:15, 22:25, 00:35.

Número 9

16:30 (zapatuan eta domekan); 18:10.

El mejor

16:00 (zapatuan eta domekan).

Planet 51

15:50 (zapatuan eta domekan); 17:50.

Celda 211
22:25, 00:30 (egubakoitzean eta zapatuan); 16:15 (zapatuan eta domekan); 18:15, 20:20, 22:25.

Nico, el reino que quería volar
16:15 (zapatuan eta domekan); 18:15.

Fama
16:05 (zapatuan eta domekan).

Todos están bien

22:20, 00:20.

Spanish movie

19:50, 21:50, 23:50.

No es tan fácil

19:50, 22:05, 00:20.

Bienvenidos a Zombieland

20:10, 22:10, 00:10.

Alvin y las ardillas

16:20 (zapatuan eta domekan); 18:20, 20:20.

Los fantasmas de mis ex-novias

20:40, 22:40, 00:40.

El cónsul de Sodoma

16:30 (zapatuan eta domekan); 18:30.

¿Qué fue de los Morgan?

15:45 (zapatuan eta domekan); 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

Teniente corrupto

18:00, 20:15, 22:30, 00:45 (martitzenezan ezik).

Urtarrilaren 15etik 21era. Gaurerako emanaldiak gaur eta bihar, zapatua.

ÁBACO BOULEVARD

Avatar

15:45, 18:45, 21:45, 00:45.

Sherlock Holmes

17:00, 19:30, 22:10, 00:45.

La decisión de Anne

16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

Nico, el reino que quería volar

16:00, 18:00.

Bienvenidos a Zombieland

20:00 22:00.

Teniente corrupto

15:45, 18:00, 20:20, 22:35, 01:00.

Celda 211

20:25, 22:40, 00:50.

Solomon Kane

16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 00:45.

¿Qué fue de los Morgan?

16:05, 18:05, 22:15, 22:20, 00:30.

Fama

16:05, 18:15.

Los fantasmas de mis ex-novias

20:10, 22:15, 00:30.

Ninja assassin

16:15, 18:15.

Alvin y las ardillas

16:15, 18:20.

Solomon Kane

16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 00:45.

Número 9

16:20, 18:20.

No es tan fácil

20:10, 22:25.

Todos están bien

20:15, 22:20.

Urtarrilaren 15etik 21era. Gaurerako emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

TENIENTE CORRUPTO **

Teniente haluzinagarria

> **Zuzendariak:** Werner Herzog.

> **Aktoreak:** Nicholas Cage, Eva Mendes, Michael Shannon.

> AEB, 2009. 122 minutu.

Werner Herzog zuzendari alemana New Orleansera joan zaigu Abel Ferraren *Teniente corrupto*-ren bertsio berri bat egitera. Istoriaren protagonista poliziako teniente bat dugu. Bizkarreko mina duela-eta botika ugari hartzen ditu eta kokainari ere ezetik ez dio esaten. Drogekin lotutako familia baten hiletaren ikerketa aginduko diote, eta horrela, filmean, tenientearen bizitza kaotikoa eta ikerketaren prozesua ikusteko aukera izango dugu. Errealitatea eta alde haluzinagarria nahasten dira. Alde batetik ikusten dugu ikerketaren prozesua; hau da, *thriller* askotan agertzen diren pausoak; bestetik, drogak tenientearengan duen eragina: Nicholas Cage-en mugimenduek eta itxurak beste mundu edo beste dimentsio baten dagoela erakusten dute. Makurtuta ibiltzen da Cage-en pertsonaia, gaizki jantzita eta orraztu barik; Colombo tenientearen itxura traketsa gogoarazten du, baina hori bai, goraino drogaturtako Colombo bat.

Thriller-aren ikuspegitik *Teniente corrupto* berri honek ez du interes handirik; betiko pertsonaiak agertzen dira eta gertatzen diren egoerak ere nahiko ezagunak zaizkigu. Filmaren alde onirikoak eta bitxiak poliki-poliki istorioaren pisua hartzen du. Tenientearen pausoa amildegirantz doa, dena gero eta txarrago doa eta irtenbiderik ez duela ematen du, baina bat-batean dena aldatuz joango da. Ez dakigu zehatz-mehatz filma pertsonaiaren alde haluzinagarriaren menpean erortzen den eta bukaera guztia erreala ala irreala den.

Teniente corrupto ez da film zorrotza, pertsonaiaren erara nahiko kaotikoa da, istorioa eta pertsonaiak ez dira interesgarriak, baina, hala eta guztiz, nahasketa gutititik, film on bat ateratzen ez bada, behintzat nahiko film bitxia dela esan daiteke.

Antonio Zabala

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

bono fotoa



Mendiek aurpegi desberdinak erakusten dituzte. Honek Oñatitik aurpegirik politena erakusten du. Zein da?

Argazkia eta galdera > Jose Fernandez

ZORIONAK AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEARI:

Arrasateko Luis Mari Heriz.
Erantzun zuzena: Telesforo Monzon. Olaso Dorrea.

✂

Garmendia Ardoak

ETXEA ETXEO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak
943 76 98 51

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO BOTILA ARDO PACKA*
ZOTZ ASMATZAILEON ARTEAN!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Larchago krintzeta: botila bat.

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK.....
HERRIA TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Industria ondarea, saritua

SARIA Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteak saritu egin du Garitano orain dela 28 urte egindako lanagatik

LABEGARAIETA 1981. urtean egin zuen Ramon Garitano arkitekto bergararrak Labegaraieta kiroldegiko proiektua

INDUSTRIA ONDAREA UCEM enpresako industria habeartea eta txatar-parkea izandakoak eraberritu zituen Garitanok

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

1981. urtean Bergarako Udalak eskatu zion Ramon Garitano arkitekto bergararrari UCEM lantegia zenari beste erabilera bat emateko proiektua garatzeko.

Garitanok gaur egun Labegaraieta kiroldegia denaren proiektua egin zuen. Hala, orain dela 28 urte egindako proiektuagatik saria jaso berri du arkitekto bergararrak. Hain zuzen, Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteak eman dio saria Garitanori.

ERREKUPERAZIOA

16.000 metro koadroko parkea zen eraberritu beharrekoa. "Eskatu nuen oinarriko bi egiturak mantentzea: habeartea kiroldegi moduan eta beste habearte txikiago bat kanpoko kirolgune moduan. Gainontzekoa botatzea eta parke publiko egitea proposatu nuen", azaldu du Garitanok.

Kiroldegiko kantxa den pabiloian bi garabi mantendu zituen Garitanok. "Modu horretan, pabi-



SARITUA Ramon Garitano. GOIENKARIA

loia bere garaian izandakoaren testigantza geratzen da; eta, gainera, garabiek euskarri lanak egiten dituzte", dio Garitanok.

Kanpoaldean kokatu zuen hirugarren garabia, eskuineko irudian ikusten denez.

Gainera, garai baten trenbidea izan zen bidea oinezkoendako bide moduan egokitu zuen. Labegaraieta eraberritzeak 140.486.000 pezetako kostua izan zuen (850.000 euro baino zerbait gutxiago).

ARRAZOIAK

Arkitektura industrialaren erreperatzeak arrazoiak asko dira, Garitanoren ustez. Kasu honetan, baina, badago arrazoi sentimentala ere. "Esan daiteke omenaldi txiki bat ere badela. Nire haurtzaroa eta gaztaroa pabiloi horien ondoan eman dut; eta gure aitak han egin zuen lan bizitza osoan", esan du. Garitanoren ustez, industria ondareak balio historikoa du; politik eta tamaina handikoak izanda, askotariko erabilera izan dezakete. Gaineratu du pabiloi horiek eraberritzea kostatzen dena ez dela ezer gaur egun obra handi bat egitea kostatzen denarekin alderatuta.

Eskertu egin gura izan du orduko alkate Jose Antonio Zabalen laguntza, eta baita Imanol Bolinagarena ere.



GARABIA Txatarra-parkeko garabia mantendu egin zuen Garitanok.

A.E.

ahobero

"Bi zaplazteko besterik ez zion eman, eta esan zion: bat musikagatik eta bestea argiengatik"

Monakoko Carolina > Printzesa

Carolinaren senar Hannoverko Ernesto epaitzen dabilta, orain dela hamar urte Kenyan izandako istilu batengatik. Zerbitzari bati "bi zaplazteko" besterik ez ziola eman dio Monakoko printzesak. Ez daki bakarria ere ezin zaiola eman inori?

iturri onetik

Oñatiko Oñatz dantza taldea Suitzara joango da uztailean jaialdi batera

Hori da oraindik argi daukaten bakarra: uztaileko lehenengo aste bukaeran joango dira Oñatz dantza taldekoak Suitzara, hango Euskal Etxeak gonbidatuta.

Jesus Irizarrek esan digu oraindik zehaztu barik dutela ze dantza egingo duten eta nortzuk joango diren. Dagoeneko hasi dira entseguak egiten eta datozen hilabetetan zehaztuko dute gainontzeko guztia.

piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Elurpean

Autoz joan behar dut lanera, beste aukerarik ezean. Eta errepide nagusitik bi kilometro gora dago ni bizi naizen baserria. Gauzak horrela, autoa erosterakoan ezinbestean eskatzen diot lau gurpiletan trakzioa izatea, elurra edo izotza denerako. Eta, gainera, negu sarreran elurretarako gurpil bereziak jartzen dizkiot. Urteotan aukera asko izan dut frogatzeko neurri horiei esker besteek ezin duten tokian ni ondo nabilela.

Geroztik jakin dut Alemanian derrigorrezkoa dela neguan gurpil bereziak jartzea eta auto askok dutela trakzio osoa. Eta harritzen nau nola hemen ia inork ez duen beste horrenbeste egiten. Nonbait samurrago da nork berea egin ez, eta natura-ama edo administrazioaita gutaz arduratu ez direlako ume mainontziarena egitea.

ai, ene!



Bulegoan eskuak bero izateko untxi arrosak

Egun hotz hauetarako egokiak dira irudiko eskularruak. USB bidez ordenagailura konektatzen dira, eskuak bero mantentzeko.

www.nopuedocreer.com

Lagun Aro GBC - Real Madrid saskibaloia partidurako sarrerak nahi?

Goiena Klubeko bazkide izateko Astelehenero Goienkaria-ren harpidedun izan behar da. Aprobetxatu Goiena Klubaren eskaintza bereziak!

Goiena Klubeko bazkide baldin bazara, deitu **943 25 05 05** zenbakira eta 3 sarrera bikoitzen zozketan* parte hartuko duzu.

Egin zaitez bazkide!

Telefonoa: **943 25 05 05**

e-posta: **kluba@goiena.com**

Kuota: **45 euro**



* Zozketan parte hartu ahal izateko azken eguna: urtarrilak 19